

# ARGIA



## EKONOMIA

Euskal Bankua,  
euskal ekonomia  
suspertzeko  
gakoa

## BELGIKA

Banaketaren balizko  
emaitzak

## MUSIKA

Nafarroako Haur  
Kantu Txapelketa:  
kantu  
herrikoien  
gorakada


## JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

«Klabe errazeko  
liburuak behar  
ditugu, jendea  
zaletzeko  
modukoak»



TERESA ALDAMIZ

# OROITZAPEN GOIBELEK MARKATUTAKO POETA









## Euskarazko telebista Iparraldean

**S**ORTU berria da Iparraldean telebista berria, F3ri lotua, sei minutuko emankizun murrizta egiteko, Baiona-Miarritze-Angelu inguruan antolatua eta aipatu herriek ordaindua.

Eta sei minutu horietatik, bat eta erdi baino ez da euskaraz! Gainera, Baionako auzapezak, Grenet jaunak, zera esan du, berak ez duela dirua ezarri Euskal Herriko telebista egiteko.

Zertarako bada saio berri hori, turistei eskaintzeko? Nere iritziz, bertako biztanleentzat eginga behar du, eta hala izanik, telebistaren bidez ere euskararen erabilpena hedatzeko, nahikoa erdaldundurik baita gure ingurua.

Bada, ordea, beste aferarik. Guztira bost kazetari ari dira lanean bertan, baina Euskal Telebistak ez du kazetari bat eta kamara bat baino ordaintzen. Beste zerbait merezi dugulakoan nago, eskaintza zabalagoa eta arretea gehiago ETBko agintarien aldetik. Eta horretara mugatzen al da EAJk duen nazio proiektua euskara Euskal Herri osora he-

# IRAKUR- LEAK MINTZO

datzeko? Ez da hori nazio-proiekturik. Zer erizten dio horri Ipar Buru Batzarrak?

**Maddalen Idiart**  
(Baiona)

## HIESa eta protagonismoa

**T**ELIBISTA pribatu espainiar batean ikusi berria dut HIESaren inguruan eginiko saio bat, Mercedes Milak aurkeztua. Eta nazka baino ezin dut sentitu.

Oso mingarria baita, azken finean, HIESaren inguruan gabiltzanontzat —eta neure kasuan anaia bat dudalako kutsatua— horrelako ikuskizun arbuia garria ikustea. Egia da informazio ugari eman zela, iritziak bildu zirela, testigantza larriak en-

tzun zirela... baina guzti horiek bigarren maila batean geratu ziren.

Arrazoiak: aurkezlearen beraren lana eta protagonismo nahia izatea gaisotasun larri honen gaintetik nagusitu ziren mezuak. Okerrena da ikusle askok ontzat joko zutelakazetariaren lana. Nola liteke jendea horrela erabiltzea? Nola horrenbeste nabarmendu nahia? Ez al da nahikoa kezkarria izurritearen eragina salbatzaile faltsurik izateko? Izan ere, horixe baino ez zitzaion falta izan Milari, mirakuluren bat eginez eta gaisoren bat osatuz programa amaitzea.

**Daniel Otegi**  
(Donostia)

**OHARRA:** Sail hau, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri litekeen beste edozeini buruz, **ARGIA**ko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da. **Gutunak, ahal dela, ez du mila karakter (folio erdi, espazio bi-koitzean) baino gehiago izango; bertan, igorlearen izen-abizenak eta kaleratu nahi duen sinadura agertuko dira, gehienez lau hitzetako titularrarekin batera. Gutun hauek ARGIA, 1 eta 2 pabilioiak, Industrialdea, 20160 Lasarte-Oria helbidera bidali behar dira.**

## H I R U G A R R E N B E G I A

# Oso polita da, ezetz asmatu nork egin duen

**HAU** telebista bihurtzen ari da (eh, lasai irakurle, ez zaitez hain urrutira joan, soldata mailan lehen bezala gabilta. Guri, herri xumeari, soldadak aspaldi *izoztu* zitzaizkigun. Gure itxulapikoetan pinguinoek ere erruten dute). Ez goaz inolako multimediarik egitera, baina haietako batzuen antza hartzen ari gara batzuetan. Herri txiki hau menderagaitz egiten duen aldizkari horrek, azken aldian, *txokolatada* gehiegi-  
txo egiten ditu.

Konturatuko zineten telebista ikusten duzuenok —besteek ez dute, noski, ezer galtzen—, be-

ren burua iragartzen igarotzen dutela bi segundutik hiru. Segidan joaten dira etxe bertako produktu baten bi iragarpen eta lehendik sei bat aldiz botatuko saio *zoragarriaren* errepikapena; seguruenik bigarren errepikapena.

Etxe honetan ere modu umilean kontaktu ziguten afariarena. Ongi. Azkenean ARGIA EGUNA. Oso ongi. Eta zenbaki berean ARGIAren eskutik kaleratu den mapa bati buruzkoak. Aparta. Dossierrean ARGIAko produktuen argazki, erabilera orri eta deskribapena besterik ez zen falta.

Ongi dago norberari

hainbeste izerdi ateratako lana iragartzea eta saltzen saiatzea; merezi dute aldizkaria egiten dutenek (?) eta bere laguntza eskergabea eskaintzen duten euskaltzale zintzo horiek... Baina katilu txikian. Euskal Herrian batez beste asteburuko lauzpabost «egun» izan ohi dira —trikitixa, dantza, komunikabide, inpedentzia, mendiak—, laster ez zaigu egutegian (ARGIArenean noski) egunik geratuko egunak egiteko. Eta kontuan hartuta komunikabideek egun horren bezperan, egun bertan eta biharra eman ohi digutela horren berri, bada

hori, baten bati gaixotau-  
nen bat sortuko zaiola eguna-gaindosia medio.

Onargarria da txikiek ere ozen aldarrikatzea beren lana, baina nork bere burua baino ez erakustea seinale txarra izaten da. Aldizkaria ez da oraindik horretan jausi eta tira. Gainera —sendatzeko moduan dago!—, bere egun eta afariei buruzkoak ez ditu oraingoz «Eguraldiaren laguntza...», edo «Milaka euskaltzale bildu...» edo «Egun arrakastatsua...» moduko hitz batere erabiligabeekin hasten. Gaitzerdi.

**MIKEL ELORZA**




- 7.** Politika kronika. GARBINE UBEDA.
- 8.** Joseba Gomez EAE-ANVko kidea: «Ipar eta Hego Euskal Herriko ezker abertzaleak batu egin behar dira» GARBINE UBEDA PELLO ZUBIRIA
- 10.** Politika ttanttaka.
- 12.** Nazioarteko kronika. LUKAS MARTINEZ.
- 14.** Belgika, federalismoaren bidean banaketaren trenak harrapatu zain. XABIER LETONA.
- 18.** Nazioartea ttanttaka.
- 20.** Miopiarik gabeko kirurgia, begien argi eta ilunak. ALBERTO IRAZU.
- 24.** Teresa Aldamiz: «Azaroaren 20an heriotzaren kolpea bere osotasunean aurkezten zait». MYRIAM GARTZIA.
- 30.** Euskal Bankua, euskal ekonomiaren gakoa. AMAGIOIA IBAN.
- 34.** MAHAINGURUA: Gizonezkoak maskulinitate desberdin baten bila. MYRIAM GARTZIA.
- 40.** Kultura Kronika. J.J. PETRIKORENA.
- 42.** «Yehuda», Jose Mari Velez de Mendizabalen azken lana kalean. «Jendea zaletzeko moduko liburuak behar ditugu, klabe errazekoak». PATXI SARRIEGI.
- 44.** Nafarroako Haur Kantu Txapelketa: kantua suspertu duen ekimena. IÑIGO HERCE. ANDER USABIAGA.
- 48.** Duguna dantza taldeak arropa berriez jantzi ditu ohitura zaharrak. IXIAR ROZAS. J.J. PETRIKORENA
- 50.** Munduaren zabaletik kultura. J.M. HERITZ.
- 52.** Kultura Agenda.
- 54.** Argitalpenak.
- 56.** Kultura Ttanttaka.
- 58.** Aukeran.
- 63.** Denborapasa.
- 66.** Ez dago katixima onik. ALFONSO SASTRE.




**NAZIOARTEA:** Federalismoa aspaldi, eta oraintsu arte sakabanaketa, berba madarikatuak izan dira Belgikan. Baina flandriar eta walloniarren arteko etengabeko arazoak direla eta, Belgikak, konstituzioa erreformatu eta federalismoaren bidéari helduko dio aurki. Ezin esan beraz, komunitate bien arteko —Brussela airean geratuko litzateke— banaketa ezinezkoa denik./14



**TERESA ALDAMIZ:** Duela sei urte, bere gizona zen Xanti Brouard hil zutenetik, asko aldatu da emakume honen bizitza. Manilan jaioa, ingelesa izan zen bere ama hizkuntza. Euskaraz egin diogu aste honetako erdiko elkarrizketa. Kazetaria eta poeta, senarrarekin ikasi omen zuen maitatzen Euskal Herria. Erbesteratua ere izan zen. Hamaika pasadizu guztion oroimenerako./24



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria




Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren  
laguntza jaso du





**MAHAINGURUA:** Oraingo honetan, azkenekoz, pil-pilean dagoen gaia ukitu nahi izan dugu: maskulinitatea eta gizon berriaren helburuak zertan diren egun. Horretarako Hasier Etxebarria, Xabier Laka, Xabier Odriozola eta Fernando Villadangos bildu ditugu ohizko gizonen baloreak nola eta norantza doazen jakin asmoz. Gizonezkoak izaera berri baten bila dabilzala dirudi./**34.**



**EKONOMIA:** Euskal Bankua datorren urtean martxan jarriko dela iragarri du berriro ere Jose Luis Larrea Jaurilaritzako Hazienda kontseilariak. Madriletik bizkor heldu dira proiektu horren aurkako erantzunak. Hala ere, proiektuak aurrera darrai. Zein helbururekin ordea? Banetako banku publiko bat izatearena edota finantza kontrol erakundea bilakatzearena? Haur argitzen ez den bitartean, bertako krisi ekonomikoak hor dirau./**30**



**MUSIKA:** Duela sei urte, kantagintzan hutsune nabarmena zegoela ikusirik, Kantuzaleen Elkarte Haur Kantu Txapelketa antolatzen hasi zen Nafarroan. Bistan dira emaitzak: sei urte hauetan ia 800 haur aritu dira txapelketako arlo ezberdinetan, eta partehartzea urtetik urtera gorantz doa. Aurtengo finala, Iruñeko Gaiarre antzokian burutuko da abenduaren 13an, eta bertan 23 gazte parte hartuko dute./**44**

**Jabea:** Zeruko Argia, S.A.L.

**Argia egiten dugu:**

**Donostian:** Eñaut Apaolaza, Amagoia Iban, Alberto Irazu, Joxi Goikoetxea, Ritxi Lizartza, Juan Jose Petrikorena, Patxi Sarriegi, Garbiñe Ubeda, Aitziber Yarza.

**Bilbon:** Maite Artola, Myriam Garcia, Maite Iriando, Xabier Letona, Maite Lizarraga, Sabino Madariaga, Amaia Nabaskues, Nere Portillo, Idoia San Sebastian, Lierni Uribarren, Ainara Zuazabeitia, Aitor Zuberogitia.

**Iruñean:** Iñaki Camino, Patxi Larrion, Ixiar Rozas, Iñigo Herce, Ander Usabiaga.

**Iparraldean:** Ixabel Etxeberria.

**Gasteizen:** Ismael Diaz de Mendivil, Jon Maia, Leire Lopez de Aberasturi, Igone Olarte, Estixu Ugarte.

**Kolaboratzaileak:** Iñaki Agirresarobe, Mikel Antza, Xabier Alegria, Edorta Arana, Xipri Arbelbide, Karlos Argiñano, Gorka Arrese, Patxi Azpillaga, Mikel Arrieta, Juan Mari Arzak, Mikel Asurmendi, Jean Louis Davant, Elhuyar, Joxan Elosegi, Xarlo Etxezarreta, Xabier Euzkitze, Luis Fernandez, Fernan Goñi, Andres Gostin, Jimu Iturralde, Josu Landa, Juan Jose Lapitz, Xabier Lekuona, Xabier Lezeta, Emilio Lopez Adan, Mattin, Xabier Mendiguren, Bego Montorio, Imanol Murua, Jaione Ogiza, Joxan Oiz, Eva Olaizola, Xabier Oleaga, Joxe Mari Ostolaza, Bota Puntutuba, R.M. Sabaris, Joxemi Saizar, Carlos Santamaria, Jon Sarasua, Tala, Txillardeggi, Iñaki Uribe, Iñaki Uriarte, Asisko Urmeneta, Iñaki Zarata, Pello Zubiria, Joxemi Zumalabe.

**Hizkuntz arduraduna:** Mikel Elorza.

**Argazkiak:** Aitor Bayo.

**Diseinu eta montajea:** Garbiñe Ubeda, Karlos Beristain.

**Infografia:** Beñat Azurmendi, Iñaki Martiarena.

**Azala:** Aitor Bayo, Garbiñe Ubeda.

**Publizitatea:** Josu Martikorena.

**Promozioa:** Jose Luis Olaziregi.

**Administrazioa:** Aitor Aznar.

**D.L.:** NA 80-1963.

**ISSN:** 0213-909X

**Commission paritaire:** 72562 E.


**Helbidea:** Industrialdea, 1 eta 2 pabiloiak, 20160 Lasarte-Oria, 114 Postakutxa Bilbo, Iratxe Monastegia 70 3.ezk 31011 Iruñea.

**Tfnoa:** (943) 37 15 45, (94) 424 46 63, (948) 17 80 78

**Faxa:** (943) 36 10 48.

**Inprimategia eta Fotomekanika:** ANTZA.





*asteroko*  
**ARGIA**

ARGIA: Industrialdea 1-2. Lasarte-Oria 20160.  
Telefonoa: 943-371545 / Faxe: 943-361048

**Harpidedun berriei  
Olentzero aurreratuko zaie**

**Egin zaitez  
harpidedun, eta  
EGUTEGIA  
dohain jasoko duzu**

ARGIAREN HARPIDEDUN  
IZAN NAHI DUT

(astekariarena eta  
urtekariarena)

IZEN DEITURAK .....

.....

.....

HELBIDEA .....

.....

TELEFONOA .....

.....

HERRIA.....

.....

PROBINTZIA.....

.....

BANKU edo AURREZKI KUTXA.

.....

.....

SUKURTSALA .....

.....

.....

KONTU KORRONTEAREN Zka..

.....

.....

SINADURA .....

.....

**Harpidetza Sariak:** (48 ale eta urtekaria)

Hego Euskal Herria: 10.300 pzta.

Ipar Euskal Herria: 685 libera.

Estatu espainiarra: 10.300 pzta.

Beste atzerriak: 13.450 pzta.

Airez: 21.300 pzta.



# Alturretako gaitzak jota

**URTE** t'erdiko oposizioaldiak ez ditu proiektu amankomun batera eramanean. Agintea eskuartetik kendu izan bazaie ere, Gipuzkoako Diputazioan gehiengo naturalak agintzen duela frogatu dute. Epelak pasarazi dizkiote EAJ-PSOE tandemari. Apuro bat baino gehiago gainditu dute, eta hala ere, ez dira bidea elkarrekin egiten animatu. Alturretako gaitzak jo ditu EA-EUE eta HB.

Herri Batasunak ez du oraindik behar bezala definitua instituzioetan jorratuko duen bidea. Bizkaian mutur batetik jo duen bezala, Nafarroan beste batetik jo du, eta Gipuzkoan erdibidean geratu dira. Egia esan, Diputazioko gobernuari EA-EUEekin batera heltzeko itxurarik ez du izan HBk.

EA-EUEk ez du nahikoa ausardiarik erakutsi sekula HBrekin urratsik

emateko. Larregi kezkatzen dute editorialek. Uda aurretik egindako saioan gertatu zen bezala, koalizio horrek zein balio izango luken argi adierazi diote komunikabideek, milimetroa mugitzen hasi aurretik. Komunikabideen editorialen boterearen aurrean, nahiago dute txintik ere ez atera.

EAK eta EUEk EAJ-PSOE tandemaren alternatiba izatera heldu nahi dute, baina horretara heltzeko bidea oztoporik gabea baldin bada. Bestela jai. Alajaina!


Bi alderdiek printzipio eta ideia handietara jo dute bateratzeak sortuko liekeen kaltea adornatzeko. Batzuek ez daude markoa hausteko prest eta besteek ez dute ETA salatu. Baina, nahi dutenean, praktikotasunerat jotzen badakite, eta ongi jakin ere.

**EAJ** eta PSOE lasai baino lasaiago dabilta bitartean. Lasai ibiltzeaz gain, probokatu ere egiten dute. Baina itzul gaitzen berriro oposiziora. Gauza izango al dira EA-EUE eta HB oposizioak agindutakoa gobernuari eginarazteko berriz ere? Diputaziotik harantz joz gero —eta batzuek ahobero deituko didate— zertan geratzen dira autodeterminazioaren inguruan EA-EUE eta HB elkarrengana hurbilduko zirela uste zutenen itxaropenak? Aurrrerantzean, fidatuko al dira bata bestearekin ezertarako?

**NAFARROAREN** Eguna paradoxaz beterik iritsi da aurtan. HBk mitin handi batekin ospatu zuen bezpera. Tafallatik HBko zuzendaritzara heldu den odol berriak nafar nortasuna eta euskal nazio proiektua uztartzeko ahalegin dotorea ekarri du. Beste hizkera mota bat ari da nagusitzen. Indarra antzematen da Nafarroako HBren ekitaldi eta inizatibetan. Nafarroak mugaren bi aldeetan duen nortasuna dago arrazonomendu ororen erdian. Zerikusia du, noski, Nafarroa Behereko Baigorrik sinbolizatzen duen mugimendu abertzalearekiko harremanekin. Labriteko mitinean IK erakundeko militanteei egindako aipamen zehatzak, Filipe Biddarten aitari opari sinbolikoa bidaltzeak eta honi eskainitako arrazonomenduak (nortasun nafarra defenditzen egindako ahalegina), ni behintzat, pozez bete nau. Bazen garaia!

Eta guztia txalotu bezain pronto, justu horixe bera aspaldidanik pensatzen zutenekin eta eman zitzairen egurrarekin gogoratu naiz.

**Garbiñe Ubeda**





Joseba Gomez EAE-ANVko kidea:

# «Ipar eta Hego Euskal Herriko ezker abertzaleak batu egin behar dira»

**E**AE-ANV alderdiak aurten 62 urte bete dituenik apenas inork izango zuen gogoan, EA-EUEren mitineko zurrunbiloarengatik izango ez balitz. EAE-ANV, HASI, LAIA eta ESBrekin batera Herri Batasuna sortu zuen 1979an. Harezkerotik, isilik pasatu dira alderdi honen gorabeherak, haien helburua «batasunerantz jotzea» izan baita beti. HBren baitan funtzionatu arren, bere politika berezia mantentzen du.

**ARGIA.** *Nortzuk zarete zuek?*

**JOSEBA GOMEZ.** ANV alderdi politiko bat da, ezker abertzalekoa, historikoa. ANV, HB fundatu zuen eta, gaur egun, Hego Euskal Herrian bere baitan kokatzen da.

**A.** *Zer asmotan zabiltzate orain? EAE-ANV sendotzera joko al duzue? Urteurrenaren inguruan kongresurik egingo al duzue?*

**J.G.** Alderdia sendotzeko asmoa beti dugu. Bestalde, kongresua ere egingo dugu laister. Urteurrenarako, bereziki ezker abertzalearen batasunaren mezua zabaldu nahi dugu. Ipar eta Hego Euskal Herriko ezker abertzaleak batu egin behar dira.

**A.** *Zergatik ez zarete HBren baitan desagertzen?*

**J.G.** HB ez da alderdi politikoa, ezta beharrik ere.

HBk iraun baldin badu horrexegatik izan da: alderdien koordinatetatik kanpo gauza bereziak egiten asmatu duelako. HB, ANV eta KAS ezezik beste sentsibilitate asko eta asko biltzen dituelako da koalizioa. HB alderdi politiko gisa planteatuko balitz jendeak gero eta urrutiago eta okerrago ikusiko luke, alderdiek fama txarra baitaukate. Kontrako bidetik jo behar du justu.

**A.** *ANV, bi ardatz ditu: independentzia lortzea baitetik, eta bestetik ezker abertzalea marko nazionalaren barruan egituratzea. Ez al dago nabikoa definitua HB esparru borretan?*

**J.G.** Independentziari dagokionez, sekulako jautzia gertatu da. Orain dela hiru urte, independentziaz mintzatzea ia ezinezkoa zen. Autodeterminazioaren bo-

rroka planteatzen zen orduan. Bazirudien autodeterminazioa, bidea izan beharrean, helburua zela. Azken hiru urteetan, independentzia eguneroko gauza bilakatu da, HBk ere bere burua independentziazaleztat aurkezten du. Lehen, HBren baitan independentziazale asko zeuden, baina helburua autodeterminazio eskubidea lortzea zen.

**A.** *Autodeterminazioare n aldeko borroka gaintitutzat jotzen duzue, baina batzuen ustez, hori gauzak errazegi esatea litzateke.*

**J.G.** Autodeterminazioaren aldeko manifestazioaren antolatzen denean, inork gutxi oihukatzen du autodeterminazioaren alde, independentzia eskatzen da. Bi kontzeptuok askotan nahasi egiten ditu herritarrak, egia da, baina autodetermi-

nazioa eskatzen denean zerbaiteko izaten da. Gaintitu dena ez da izan autodeterminazioaren aldeko borroka, baizik eta autodeterminazioa helburutzat hartzearen planteamentua. Autodeterminazioa eskatu behar da, gero independentzia eskuratu ahal izateko.

**A.** *Ezker abertzaleak zazpi probintzietan estrukturatu behar du zuen ustez. Formula konkretua ere planteatzen duzue: EMAk, EBk eta independentteek HBko Mabai Nazionalen tokia behar dute, eta gainera Ipar Euskal Herrian HB sortu beharko litzateke. Bete dadin Iparraldekoek nahi izan beharko dute. Dena den, zein epetan planteatzen duzue batasun hori?*

**J.G.** Iparraldea aipatu izan den bakoitzean epe, erritmo eta berezitasun kontuez hitz egin izan da. Guk betidanik esan izan dugu Baigorri eta Hernani desberdinak direla, baina baita Baiona eta Baigorri edo Goizueta eta Kortez ere. Batasunari dagokionez, herria ezker abertzalearen aurretik jarri da momentu honetan. Bada





«Bada esaldi bat, batzuen gustokoa ez izanda ere, asko erabiltzen dena. Hala dio: «Gu batzen ez bagara, azkenean bi Estatuek jipoika batuko gaituzte».

garaia ezker abertzalea batzekoa. Alderdi batzuek bi aldeetan funtzionatzen dute eta ezker abertzaleak ez. Bada esaldi bat, batzuen gustokoa ez izanda ere, asko erabiltzen dena. Hala dio: «Gu batzen ez bagara, azkenean bi Estatuek jipoika batuko gaituzte».

**A.** *Batasunak aipatuz, zuek argi eta garbi esan*

**A.** *Hala ere, barritzekoa da EAjren kontra bain gogor jokatzea, eta bestelako esperantza izatea EArekin. Hain desberdinak al dira biak?*

**J.G.** Urteen poderioz desberdinu egin dira. EAkoak gauza izan dira udaletan independentziaren aldeko mozioak onesteko edota intsumisoen aldeko borrokan inplikatzeko. EAj erabat nahasita dabil.

**J.G.** Noraino heldu behar duten EAkoek esan beharko dute.

**A.** *Haien esanak esan, zuen ustez noraino heldu beharko lukete?*

**J.G.** Alderdi batek independentziarekin dela esaten baldin badu, horrela jokatu beharko du gurekin instituzioetan sartzen bada.

**A.** *HBra bueltatuz, negoziaketa estrategia aldatu dela esan izan da. Alegia, beste ardatz batzuek planteatzen hasi zaretela.*

**J.G.** Arazoaren konponketa negoziaketaren bidez helduko da. Baina negoziaketa kontzeptua ez da itxia, dinamikoa da: Algerreko egoera eta oraingoa oso desberdinak dira.

**A.** *Okerragoa ala hobea?*

**J.G.** Politikaren ikuspegitik hobea. Algerian ez zegoen orain dagoen mugimendu independentistarik.

**A.** *Zertan geratu da, orduan, negoziaketa estrate-*

*gia hori?*

**J.G.** Kontzeptu hori beti aldatzen ari da, momentuko egoera politikora egokitzen.

**A.** *Zuek zer garrantzi ematen diozue une honetan? Posible izango al da aurki ETA eta Estatu espainiarra biltzea, ala luze joko du eta beste modu batera ari zarete indarrak pilatzen?*

**J.G.** Pilota beti dago Estatu espainiar eta frantziarraren teilatuetan. Biok euskal arazoarekiko politika komuna daramate. Batek ez du aurrera egingo bestearekin konforme jarri gabe. Biak bat dira jada.

Penagarria da, bi estatuak batera ibilita ere, ezker abertzalea hain banatuta ibiltzea. Akatsak bi aldeetan izan dira, batez ere Hegoaldeko egin ditugu, baina aurrera begiratu behar da.

## «HB alderdi politiko gisa planteatuko balitz jendeak gero eta urrutiago eta okerrago ikusiko luke, alderdiek fama txarra baitaukate» ●

*izan duzue EArekin egin behar dela tratua.*

**J.G.** Alderdi batzuek, beren burua abertzaletzat jotzen baldin badute, eta autodeterminazioaren alde borrokatzen baldin badira, horiekin ekintza batzuetan batasuna lortu behar dela iruditzen zaigu.

**A.** *Beraz, Garaikoetxearekin Arzalluzekin baino gehiago fidatzen zarete.*

**J.G.** Pertonekin, oro har, ezer gutxi fidatzen gara. Nahiago dugu proiektu politikoekin fidatu.


**A.** *Zer egin dezakete elkarrekin HBk eta EAk?*

**Pello Zubiria**

**Garbiñe Ubeda**



## E Z P A L A K



## ■ IRUINEN SUPLIKATORIOA ESKATUTA

**JOAN** den astean Auzitegi Gorenak Senatuari Iñigo Iruinen suplikatorioa eskatu zion. Honen bidez Iruinen aurkako ekintza judizialak eraman ahal izatea lortu nahi da, Adolfo Villoslada enpresaria askatzeko ordaindu zen zerga iraultzailean zerikusirik izan zuelakoan.

Eskaera hau egin baino egun batzuk lehenago Iñigo Iruin senadoreak Senatuko lehendakaria den Juan Jose Labordari idatzi bat zuzendu zion Auzitegiak suplikatorioa eskatzeran eragozpenik ez jartzeko eskatuz.

Auzitegi Gorenaren eskaera Senatuko suplikatorio batzordeak aztertu behrako du eta ondoren Iruinek epe bat izango du honen aurka agertzeko. Hala ere, Iruinek azaldu duenez argi utzi du ez duela suplikatorioaren aurkako inolako errekurtsorik aurkeztuko.

## ■ «EL LOBO» IKERTZEA GALERAZI DUTE MEXIKOKO AGINTARIEK

**MIGUEL** Lejarza Egia «El lobo», 1974ean ETA barnean zegoen poliziaren laguntzaile bat zen, eta bere bidez 1975ean 40 ETAKide atxilotu ahal izan zituen poliziak. Gaur egun, Miguel Ruiz Martinez izena darabilela uste da. HBk Bilboko Epaitegian aurkeztu zuen salaketaren bidez, Bilboko batzorde judiziala Mexikorantz abiatu behar zèn bertako Pastor Ortiz herriko erreregistro zibilean bere berri izango zuelako. Mexikon erreregistro zibilien izen ematea ez baita umea jaiotzerakoan egiten, baizik eta 18 urte bete ondoren. Horrela, El Lobo bertan izan ote den jakin ahal izango zen. Hala ere, Michoacan estatuko gorbernuak galerazi egin die bertara joatea. Batzordea abiatzeaz zegoela fax bat iritsi zen debekuaren berri emanez.


## ■ BESTE GOARDIA ZIBIL BAT URRA KASUAN SARTUTA

**KEPA** Urrari eginiko torturak direla eta ireki zen sumarioa daraman epaileak beste beste goardia zibil bat zigortu zuen. Goardia zibil honek, Urria atxilotu zutenean gidari lanak egiten zituen. Urrak salatu zuenez, La Salveko koartelera zeramatenean beste bide batetik abiatu eta zelai batean torturatu zuten. Goardia zibilak Urrak adierazitako guztia ukatu egin bazuen ere, epaileak berau zigortzea erabaki zuen.



«Uak gaur egungo marko juridikoa ez onartzeak guztia zakarretara botatzea ekarriko luke, Konstituzioa, Estatutua eta guztia berriro ere eztabaidatzen hastea. Baina bitartean ekonomia gero eta okerrago joango litzateke eta hau Hegoafrika bihurtuko da».

**Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia. Deia, 92-XII-1**



«UPN, azken batean, Madrilgo interesak hemen defendatzeko sortu zen. Ezjakin koadrila bat dira, ez dakite ezer historiari buruz eta gure iraganaren alderik txarrena adierazten dute».

**Floren Aoz, HBko Mahai Nazionaleko bozeramailea. Egin, 92-XII-2**



# G O R D E T Z E K O A K

## ITOITZEKO URTEGIAK ARAZOAK SORTZEN DITU NONNAHI

**AGOITZEKO** alkateak bere postu utzi berri du. Hasiera batean arrazoi personalak eta lan gehiegi egitea azaldu bazituen ere alkatetza usteko arrazoi bezala. Azkenean jakin izan da Itotzeko urtegiaren inguruko jarrera dela eta utzi behar izan duela bere postua Mikel Lakabe EAKo kideak. Azken aldian Itotz dela eta arazoak gero eta ugariagoak dira Nafarroako herri askotan.

# K A R T A J O K O A N

enbido...

...ordago!



### JOSEBA EGIBAR

Eusko legebiltzarrean eginiko gisa eskubideei buruzko komisioan Senideak elkararteak presoen arazoak azaldu zituen eta komisioari zerbait egin dezala eskatu zion. Senideak taldearen esanak ordea interpretazio ezberdinak jaso dituzte eta EAJ, PSOE eta EUEk kritika gogorak jaurti zituzten erakunde honen aurka. EAJko bozeramailea den Joseba Egibarrek adierazi zuenez *«preso askoren guraso eta familiartekoak beldur dira pentsatzen dutena esateko, Senideak elkarrearen beldur dira»*. PSOE eta EUEko berazamaileekin bat eginez Senideak taldearen lana politizatu nahi izan zuen *«ez da gisa eskubideei loturiko gai bat, estrategia politiko baten zatia baizik»* adieraziz ●



### RAMON GAZTELUMENDI

Senideak taldearen bozeramaileak kritika gogorak egin zizkon Joseba Egibarri *«politika egiteagatik»* presoen gaiaren inguruan. Gaztelumendik garbi azaldu zuen beraien taldeak *«presoen familiartekoek hartzen duten edozein erabaki onartzen dugu»* azalduz. ETKo presoen bergizarteratzearen inguruan politikariek egiten erabiltzen dituzten *«helburu politikoak»* ere gaitzetsi zituen. Senideak jorratu nahi duen gaia *«espetxeetan gisa eskubideak errespetatzea»* dela azaldu zuen Gaztelumendik. Senideak taldeak legebiltzarrean eginiko agerraldian argi agertu zuen beraien nahia preso politikoen egoerari buruz eginiko agiria aztertzea eta legea betetzea dela ●



*«Suspertze eta garapen ekonomikoa konfidantza sortzen duten baldintzetatik sor daitezke. Guzti hau bankaz gora geratzen da HB Gipuzkoako Foru Aldundian egotearen aukera soilarekin».*

**Guillermo Etxenike, Gipuzkoako diputatu nagusi ordea. ABC, 92-XII-3**

*«EA eta EUEk HBren eskaintza onartuko balute ETA Gipuzkoako Diputazioan sartu eta Artapalo, Pariseko zeldatik atera eta diputatu nagusi egitea izango litzateke».*

**Jesus Egiguren, PSE-PSOeko Gipuzkoako idazkari nagusia. Egunkaria, 92-XI-1**

*«EAJ eta PSOEk gipuzkoarrei zerga iraultzailea kobratu diete».*

**Imanol Murua, Gipuzkoako diputatu nagusi ohia. El Mundo, 92-XI-30**

*«Batzar Nagusietatik gobernatzan saiatu beharrean EAKoek gobernua hartu beharko lukete bebingoz».*

**Xabier Arzallus, EBBko lehendakaria. Deia, 92-XII-3**



# Heroien ordu latzak

**ERRUSIA** egitura erabat planifikatu eta zentralizatu batetik, merkatu egitura batera egokitu ahaleginetan dabil azken bizpahiru urteetan. Baina, batez ere, SESB desagertu eta Ieltsin lehendakariak erreformaren leinari esku gogorrez heldu zionetik. Errusiarrek botere ahalmentsuak eman zizkieten kolpe ahaleginaren ondorengo heroieri, behin salbatzailea izanak bigarrenen ere salbatuko zituelakoan.

Tanke batera igota, ordea, ez dira arazo ekonomikoak konpontzen. Liberalismo basatienari helduta baietz pentsatu zuen Ieltsinek. Urte t'erdiko agintaldiak ezetz erakutsi dio. Berak, lehenbiziz, denbora horretan herri-tarren egoerak okerrera egin duela aitortu du. Alabaina, erreformen emaitzek denbora gehiago behar dutela azpimarratu du. Beste nonbaiten

ere entzundakoa dirudi horrek.

Horixe da funtsean, Errusiako Diputatuen Kongresuko eztabaidaren gunea: «Denbora gehiago —hots, konfindantza— emango diogu bai ala ez». Ematekotan, urte hasieran eman zitzaizkion superbotereak —eta akaso gehiago— mantenduko ditu. Baina bere popularitateak behera egin du. Heroitik ezer ez izatera urrats txiki bat dago, gehienek berehala gaitzen dutena gainera. Beste askoren artean, George Bush edo Helmut Kohlenak adibide gertuenetakoak.

Lehendakaritzaren Administrazio-ko Informazio eta Analisisako Zentruak egin berri dituen azterketen arabera, Ieltsinen popularitatea erdira jaitsi da. Etxeko datuak direla, eta ez oposizioarenak, kontuan hartzekoa da.

Errusia Demokratikoak (erreforma gogorren zaleenak) eta Batasun Zibikoak (Rutskoi lehendakariordearen alderdiak) ere behera egin dute. Igo den bakarra Ieltsinek legez kanpo utzi zuen Salbapen Nazionalerako Frontea (nazionalista eta komunistak) izan da.

Azkenean borroka honetatik badi-rudi irtenbide kontsentsuatu bat aterako dela, eta ez Ieltsin ez Diputatuen Kongresua ez direla garaile aterako. Dena den, batera ala bestera, Ieltsinen egoera kolokan dago etorkizunera begira. Denbora gehiagorekin ere, areago Europa eta Estatu Batuetan krisiaren beldurrak gogor eragina duen honetan, gaitza izango da horrenbeste hamarkadetan horren ekonomia itxitik irekira iragatea. Gutxiago liberalismo basatiena bitarteko moduan erabiliz.

Gerra batean nork ez duen sofrizten pentsatzea ezinezkoa da. Irabazle zein galtzaileen artean gertatzen dira heriotzak eta gerraren gainerako ondorioak. Sofrimendu 'kopuruaz' ere gaitza da hitz egitea. Baina bai, aldiz, sofrizten dutenen kopuruaz. Eta horietan emakumeak —emakume izateagatik bereziki— zorigaitzoko txapeldunak dira. Bosniako lehendakaritzetako iturriek jakinarazi dutenez milaka emakume (iturri batzuen arabera 30.000-50.000) bortxatu eta torturatuak izan dira —eta dira— serbiarren 200 bat kontzentrazio esparruetan. Salaketa Bosniako agintariek egin dute eta larriena izango da seguruenik, baina serbiar eta kroaziar emakumeek ere jakingo dute bosniar emakumeak zer jasaten ari diren.





## TERMINOLOGIA

**Zozoa.** 1-Euskal Herri hezean ugaria eta guztiz ezaguna den txori beltz bandi samarra. 2. Adimen motelekoa. Leloa, inozoa, alua.

**FUJIMORI,** Peruko lehendakariak, ez du hotzik pasatuko. Egia esan Perun, mendian ezik, ez du hotz larregirik egiten, baina pertsonaia honek Antartidan ere hotz dardara gutxi izango luke. Besteak beste, azalaren sendueraren kontua da, eta Fujimorirenak, ez dirudien arren, zentimetroren batzuk izango ditu. Zer eta, Carlos Andres Perez Venezuelako lehendakariari, «kolpea ekiditeko garrantzitsuena herriaren babesa edukitzea» dela gomendioak egiten. Kolpista den pertsonaia dio hori. Dagoeneko milaka pertsona kolera-  
ren eraginez hil den herrialde bateko lehendakariak. Miseriaren eraginez sortua, Latinoamerikako gerrilla mugimendurik indartsuena duen herrialdeko lehendakariak. Kolpe ahalegin bat oraintsu jasoa duenak, eta abar luzea. Zo-  
zoak beleari...


**DANIMARKAK** emandako ezeztaren ondoren, errefusapen hura iparraldeko herrialde txiki haren kontua bakarrik zela sinestarazi nahi zигuten. Frantziako erreferenduma gero, Erresuma Batua eta Europako Diru Sistemaren gorabeherak ondoren, Frantziak GATTen akordioaren inguruan erakutsi duen jarrera geroago, eta Espainia eta Hegoko Fronteak finantzaketaren aurrean erakutsi nahi duten tinkotasunak, ez diote itsas barrerik iragartzen hilaren 11 eta 12an burutu beharreko Edinburgheko gailur konmunitarioari.

**Lukas Martinez**

## MUNDUA EZ DA BIRIBILA

### Edinburgheko bidegurutzean

**G** **AUZA** gehiegi gertatzen ari da azkendaldi honetan Komunitate Europearrean, krisi nabarmen baten itxura estali ahal izateko. Abendu honen 11 eta 12an, Edinburgheko gailurrean, ager daiteke, agian, krisiak norantz joko duen. Baina, dagoeneko, zenbait seinale nabarmendu da, eta ez dira oraingo agintarien aldekoak. Sekulako sakabanaketa soma daiteke Estatu Komunitarioetako buruen artean: ez dena ados jartzen Komunitatearen beraren diseinu ekonomiko eta politikoaz, ez eta ere bazkide berriak onartu ala ez ikusterakoan. Ez dakite Danimarkarekin zer egin. Prozesu Komunitarioaren oinarria den garapen ekonomikoa ere moteldu egin da. Ez daude unerik hoberenean.



**KARMELO LANDA**

HBko eurodiputatu

**BAINA** behin eta berriro, hori ikusita, datorkigun galdera hau da: eta ze beste alternatiba eskaini daiteke, bada, Europako herri eta hiritarren aurrean? Bada beste biderik, etorkizuna beste modu batez eraikitzeke modurik? Erantzuna ez da erraza, batez ere Euskal Herria bezain herri txiki, zigortu eta zatikatu honetatik eman behar denean. Baina egia bada hau ere: era horretako alternatibak ez daitezkeela egun gutxitan eraiki. Estatu boteretsuen diseinua den Maastricht horren porrotak, porrotik izango bada, beste zerbaiten premia aldarrikatzen du. Beste arkitektura europear baten premia alegia.

**HAS** gaitezen, behintzat, etxe horren zimendarriak ongi finkatuz. Kontsigna politiko baino zerbait gehiago da, haatik, gaur egun, autodeterminazioaren aldarrikapena. Gure nazioarentzako eta antzera daudenentzako botere ekonomiko eta politikoa eskatzea.

Ildo horretatik joko du, abendu honetan baita ere, Korsikan alkartuko den CONSEU erakundearen gailurrak: Europako Estatu gabeko Nazioen Koordinakundea. Edinburghekoaren ondoren izango da, abenduaren 27tik 31ra bitartean. Lehenengoaren porrot iragarriak, ardura handia ekarriko du bigarrenera. Bakoitza bere mailan bada ere. Baina gure egoeran daudentzako esperantza-argi txiki bat ere gauza garrantzitsua da. Ea urte berriarekin pizten zaigun.



# Belgika, federalismoaren bidean banaketaren trenak harrapatu zain

**E**uropako Komunitatearen bihotzean dugu Belgika, eta bere hiriburua, Brussela, Komunitateko bihotza da aldi berean. Europako zati baten bilgune. Baina bilgune den moduan, Belgikan bertan flandriar eta walloniar desberdintasun eta arazoan etengabeko lekuko da. Gero eta banatuago dauden bi komunitateen arteko harri bitxia.

**BANAKETA** berba Belgikan erdi debekatutakoa izan da duela gutxi arte, batez ere goi mailako politikarien artean. Alabaina, flandriar eta waloniarren artean urteetan behin eta berriro sortutako liskar eta arazoetan, maiz agertu den berba izan da. Gaur egun

jada, Europako nazionalismoen bultzadaz, berba Belgikako lau haizeetara hedatu da eta bi komunitateen urrunketa gero eta nabarmenagoa da.

Orain arte berba madarikatua banaketa izan den moduan, 60ko hamarkadara arte federalismoa zen kutsu hori zuena. Gaur egun jada federalismoranzko urratsak hartuta daude, eta askorentzat, horren ostean erabateko banaketa etorriko da lehenago edo geroago.

Belgikaren arazo nagusia, Jugoslaviarena izan den moduan, estatu artifiziala dela. Funtsean, duela 150 urte sortua, Frantzia eta Alemaniaren arteko estatu-ta-

**Belgika, Frantzia eta herri alemaniarren arteko estatu-tapoi gisa sortu zuten ●**



Aurrerantzean zer egingo du Balduino I erregeak?

poi gisa funtziona zezan sortu zutelako. Produktu historiko gisa herri edo nazio belgikarra ez da existitzen: Flandria eta Wallonia





Walloniar buruzagiak kezkatuta daude banaketak ekarriko liekeen ondorioekin. Argazkian Guy Spitaels sozialista eta Gerard Deprez kristaudeokrata.

existitzen dira, eta flandriarren gero eta bultzada handiagoagatik, gero eta banatuago bizitzeko asmotan. Uneren batean, akaso, sentimendu 'nazional' hori izan zutelara aipatzen da, baina une gaitzek eraginda izanik, laster desagertutakoak ere bai. Munduko bi gerra nazionalen garaia ziren.

### Federalismoaren bidean

Flandriarrak holandera zintzo dira eta populazioaren % 56 dira. Flandria eta Holanda bereizten dituen ezaugarri nagusia bilakaera historikoa litzateke, beraz, eta oraindik ere badira Holandarekin bat egin nahi duten sektoreak. Walloniarrei dagokienez, frantsesa da euren hizkuntza nagusia eta populazioaren % 33 inguru dira. Bi komunitate hauez gain alemanez zintzo dena ere bada, lurraldez Walloniaren barruan eta populazioa % 1ekoa.

Banaketa kontuak, dena den, ez dira oraingoak. 1962an hizkuntz komunitateen mugak zehaztu eta hiru

Belgikako erregioak zenbakitan				
	Brussela Hiriburua	Wallonia	Flandria	Belgika
<b>Azalera</b> (km <sup>2</sup> tan)	162	16.844	13.512	30.518
<b>Populazioa</b> (90-12-31)	960.324	3.258.795	5.767.856	9.986.975
<b>Atzerritarrak</b>	274.590	372.203	257.735	904.528
<b>Langabetuak</b> (1)	51.36	185.125	182.578	418.838
<b>Barne Produktu Gordina</b> (1988koa, mila milioi pezetatan)	2.668,75	4.674,6	10.504,9	17.846,5
<b>BPG biztanleko</b> (milioi pezetatan)	2.751.000	1.456.000	1.837.500	1.802.500
<b>Negozio Bolumena</b> (2) (mila milioi pezetatan)	11.024,3	10.279,85	—	54.162,5
<b>Inbertsioak</b> (mila milioi pezetatan)	630	642,25	—	3.192

Iturria: Le Vif / L'Express, 1992ko irailak 25.  
 (1) 1992ko datuak. Data horretan langabetuak populazio aktiboaren % 11,7 dira, baina ez ditu kontuan hartzen lanik eskatzen ez duen adineko jende kopurua (74.169 pertsona), ezta arrazoi sozial zein familiarrek medio inskribatu gabe dauden langabetuak (40.025 pertsona)  
 (2) 1990eko datuak

erregio sortu zirenetik, flandiar eta walloniarren aldenketa gero eta handiagoa da. Errealitate horri erantzun bat eman guran, aurtengo irailaren bukaeran Belgikako alderdi garrantzitsuenek Saint Maurice-ko akordioak sinatu zituzten.

Akordio honek konstituzioaren erreforma eskatzen du eta, besteak beste, bere

lehen artikulua aldatuko du. Konstituzioa sortu zenetik Belgika probintzietan ba-

**■ Flandria, Brussela eta Wallonia, hirurentzat ei litzateke kaltegarri banaketa, baina Walloniarentzat batez ere ●**



# Banaketaren balizko emaitzak

**BELGIKA** hiru erregioak osatzen badute ere, flandriar eta walloniarren banaketak aukera asko ekar ditzake etorkizunari begira. Hona hemen horietako posibleenak, nahiz eta batzuk —beti ere balizkoetan arituta— besteak baino erreala-goak diren:

**1. Flandria, Wallonia, Brussela: hirurak estatu independenteak.** Ez da samurra izango horrelakorik. Nazioarteko komunitateak, eta batez ere Europak, nekez onartuko luke milioi bat pertsona baino gutxiagoko hiri-estatua. Horrez gain, flandriarrak Bruselaren atzetik horrenbeste denbora aritu ondoren, gaitza litzateke independentzia Brussela barik aldarrikatzea.

**2. Flandriak bere aldetik, eta Wallonia eta Brusselak estatu independentea osatzen dute.** Dena den, jakina da hiriburuko frantses hiztunek ez dituztela oso gustoko walloniarrek, eta hiriburuak ere ez du oso irudi ona zenbait walloniar sektorearen artean. Gainera badirudi walloniarrek nahiko lan luketela euren buruz arduratzearekin. Eta, azkenik, nola onartuko lukete hori flandriarrek?

**3. Wallonia eta Flandria independenteak dira baina Brussela Flandriaren barruan geratzen da.** Brusela, Flandriako lurralde historikoa Flandria barruan geratzea ametsen ametsa litzateke flandriar askorentzat. «Baina kolorezko ametsak», diote hiriburuko frantses hiztunek. Flandriarrek, ordea, haien hizkuntz eskubideak bermatuz gero, «flandriarrak eta aberatsak edo wallonia-

rrak eta txiroak» horren aurrean zer egin ondo pentsatu beharko luketela diote.

**4. Flandria eta Walonia independenteen artean, Brussela Europako Komunitateak administratutako barruti moduan geratzen da.** Aurrekoak baino aukera sinesgarriagoa litzateke, eta etorkizunari begira, arazo gutxien ekarriko omen lukeena. Europa federaleko hiriburua bihurtuko litzateke orduan?

**5. Flandriak eta Holandak konfederazio bat osatuko lukete.** Gaitz samarra egungo egoeran. Flandriar batzuen ustez holandar kulturako 21 milioiko komunitatea osatzea ametsa litzateke; baina asko dira baita, hizkuntzaz gain, dagoeneko komunitate biek zerikusi gutxi dutela pentsatzen dutenak ere.

**6. Walloniak bat egiten du Frantziarekin.** Gutxi dira Wallonian irtenbide honen aldekoak. Eta egun Frantzian ere ardura handirik sortzen ez badu, ondo letorkioke lurralde eta populazio gehiago (60 milioi) izatea. Itxuraz bederen beste jarrera bat erakutsi ahal luke erraldoi alemanaren aurrean.

**7. Belgikako erregioak independenteak dira baina euren arteko konfederazio lokarri bat mantentzen dute.** Etxea banatzea baina elkarrekin erositako zenbait gauza gordetzeko armairu komun bat mantentzea esan nahi du: zor publikoa, zenbait ospitale unibertsarioak... Baina orain arte elkarrekin funtzionatu ez badute, gero zergatik funtzionatu behar du elkarlaguntzak gauza zehatz batzuen inguruan?

natuta dagoela dio; berriak Belgika estatu federala dela baieztatzen du.


Komunitateen etengabe-ko arazoengatik gobernu belgikarrak gaitzak eta aldakorrak izan dira etengabe. Adibide gisa: 1991tik 1992ra arte bederatzi gobernu desberdin izan dira, guttiak Wilfred Martens-ek zuzenduak. Gobernu bakoitzaren erorketa eta gero —erregeei bezala—, erromatar zenbaki bat jartzen zitzaion, eta horrela Martens lehen ministroa IX. eraino iritsi zen.

Krisi horietako batetik sortu zen konstituzioa erreformatuko duen idazkia. Irailaren 26an, txarto sendatutako zauri baten ondorioz, Ekonomia ministroak armak esportatzeko lizentziak ez berrizatzeko agindua eman zuen, eta Walloniako Kontseilu Erregionalak —armak Wallonian egiten dira batipat— kanpo merkataritza bere gain hartzeko mehatxua luzatu zion gobernuari. Gobernu berri hondoratuko zela ziurtzat jotzen zenean, irailaren 29an koalizio gobernuak Saint Mauriceko akordioak aurkeztu zituen.

Akordioa aurrera aterahal izateko, gobernuak legebiltzarraren 2/3 lortu behar ditu, sozialdemokrata

19.00 - 19.30

# MUGAZ GAIN



HERRI Irratia



# Txema Auzmendi

BISEKTOR

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99.8



eta kristaudekratek ar-  
tean ez baituzte 2/3 horiek  
lortzen. Flandriako Volks  
Unie alderdi nazionalistaren  
beharra dute, baina hauek  
ez diote laguntzarik emango  
ezeren truke: orain zentrali-  
zatuta dagoen gizarte se-  
gurantza —aspaldiko bo-  
troka eremua— komunitate  
bakoitzak bere kasa kudea  
dezala eskatzen du. Dena  
den, ez dirudi hori arazo  
larriak izango denik, izan

## ■ Bruselarekin zer egin da, besteak beste, banaketaren oztopo handienetakoa ●

ere, akordioen bilakaeraren  
emaitzarikoa bat izan  
beharko luke.

Konstituzio berriak alda-  
keta ugari dakartza kanpe-  
tentzia eta instituzioei da-  
gokienez. Konpetentzien  
eremuan ingurugiroa, kan-  
po merkataritza, ikerkuntza  
eta nekazaritza (EKrekiko  
Nekazaritza Politika Komu-  
na ezik) erregioetako go-  
bernuen esku geratuko li-  
tzateke.

Instituzioen aldetik,  
akordioen arabera erregio  
federalek Senatu federalean  
defendatu beharko dituzte  
euren interesak. 71 kidez

osatu egongo da (orain ar-  
te 181), 29 frantses hiztunak,  
41 holandera hiztunak eta 1  
aleman hiztuna. Senatuaren  
zeregin garrantzitsua ko-  
munitateen arteko bitarte-  
kari lana egitea izango da.

Senatuaz gain, Diputatu  
Ganbara 150 kidez osatuko  
da, eta gobernuaren kontro-  
la eta aurrekontuez ar-  
duratuko. Estatu mailako  
hauez gain, komunitateeta-  
ko erakundeak izango dira:  
Walloniako Kontseilu Erre-  
gionala, Komunitate fran-  
tziarraren Kontseilua, Flan-  
driako Kontseilua eta, Brus-  
selako erregio eta aleman  
hiztunen Kontseilua. Euro-  
pako legebiltzarreko 24 di-  
putatuetatik, 14 flandria-  
rentzat dira eta 10 frantses  
hiztunentzat.

Lurralde aldaketaren bat  
ere badakar. Orain arte Bra-  
bant-eko probintzia (bertan  
dago Brussela) bi zatitan  
banatuta geratzen da, ipa-  
rraldea Flandriarentzat eta  
hegoaldea Walloniarentzat.

## Nor galtzaile?

■ z da samurra galtzaile eta  
irabazleez berba egitea, are  
gehiago bi komunitateek  
borondatez —nahiz eta ba-  
tek gehiago bultzatzen  
duen— etorkizuna bide  
desberdinetatik egitea era-  
bakitzen dutenean. Orain-



Belgikan ere ohizko alderdien aurkako jarrera gero eta gehiago nabarmentzen da.

dik ez da hori Belgikaren  
kasua, baina banaketa hotsa  
gero eta indartsuagoa da,  
nahiz eta zailtasunak ere  
ugariak izango liratekeen.  
Hala ere, 1962an hizkuntz  
mugak ezarri zirenetik ko-  
munitate zein irakas-  
kuntza aldetik, esaterako,  
komunitate biak gero eta  
urrunago daude. Federalis-  
moa beste urrats bat dela  
aipatzen da.

Ekonomikoki Flandria  
askoz ere indartsuagoa da  
gaur egun eta norbaitek  
galtzekotan walloniarrek  
galduko lukete. Dena den,  
Belgika zentzuren batean  
existitzen bada, zentzu  
ekonomikoan da. Flandria-  
ko «Trends» aldizkari eko-

nomikoarentzat «Wallonia-  
ren porrota litzateke, Brus-  
selaren etorkizun eza, eta  
flandriarrak, akaso, ira-  
bazten aterako lirateke».  
Alabaina, arriskua handia  
litzateke hirurentzat, eta so  
egile askorentzat hirurek  
galduko lukete.

Horrez gain, ezin ahantzi  
banaketa ekiditen duen  
funtsezkoa den beste ara-  
zoetako bat: zer egin Brus-  
selarekin? Guzti horiek  
izanda, itsasoa baretu bide  
bada ere, banaketaren ma-  
muak hortxe jarraitzen du,  
etorkizuneko Europa Feder-  
al horren bihotzean.

**Xabier Letona**

14.30 - 16.00

**KALE KANTOIAN**

HERRI Irratia



OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8



## HISTORIA ETA GERO



### ■ HERIOTZARENAK BAINO ISTRIPUAREN SEMEAK

**NAZIO** Batuen Erakundeko gainerako beste armadek, espainiarrek beste istripu izaten badituzte, Bosniako kontuez arduratu baino, nahikoa izango dute soldaduek euren zauriak sendatzen. Batek eskumuturra okertu zuela, bestea kamioitik jausi... Minen eztan dek ere zauritu izan dituzte, baina gehienak garraioen gidaritzan gertatu dira. Azkenetarikoak, kamioi batek iraultzean bata, eta bestea bi kamioik topo ez egitearren bat kolpea ekiditen saiatu eta beste karriletik zetorren kamioi bat jotzean. Istripu edo leherketen eraginez, dena den, ez da oraindik hilik izan legionari espainiarren artean. Taldearen buruzagia den Javier Zorzoren ustez, leherketen kasuan behintzat *«Carmen eta Maribor-reko amabirjinek babestu gaituztelako»*.

### ■ ISRAELEKO ARMADAREN KOMANDOAK ALEMANIARA


**NEONAZISMOAK.** Alemanian ezagutu duen gorakada dela eta, Israeleko

legebiltzarrean eztabaida bizi eta hunkigarriak izan dira azken asteotan. Denetarikoak entzun dira baina bereziena Iser Harelk, Mosad-eko (espioitza zerbitzua) buruzagi ohiak egindakoa. *«Talde bereziak bidali beharko genituzke Alemaniara, bertan talde nazietako buruzagiak harrapatu eta biltzeko»*. Ez omen zitzaion kasu handirik egin, baina bitxiene da legebiltzarrean horrelako bat publikoki botatzeko izan duen ausardia. Nora eta Alemaniara gainera.

### ■ ARMENIA, BIELORRUSIA... GUZTIAK UEFA-RA

**AURRERAKOITASUNA** ez da izan, hain zuzen ere, UEFAren (Europako estatuetakoko futbol federazioen bilgunea) ezaugarri nagusienetakoa. Baina, hala ere, neguak —ahal izanez gero— beroki on bat agintzen duen moduan, garai berriek ere moldatzea ekartzen dute. Baita politika mundutik horren urruti ez dabilen UEFArentzako ere. Georgia, Errusia, Eslovenia, Ukrainia, Kroazia, Bielorrusia eta Armeniak lortu dute jada lekua bertan, eta Azerbadjan eta Moldabia bidean daude.

E  
L  
E  
M  
E  
L  
E  
E  
L  
E




*«Europa gerra zibil pribatuaren garaira itzultzen ari da, armada pribatuak nagusi diren gerretara. Somalia da gerra pribatuaren adibide bat. Heltzen da une bat, taldeek boterea bilatu baino beste taldeen aurrean bizirautea besterik bilatzen ez dutena»*.

**Paul Virilio, filosofo frantziarra.**

*«Epaiketa hau gezur eta antzerki politiko butsa da. Hiltzaile moduan tratatzen dituzte garai baten estatuburuaren ohore guztiekin hartzen zituztenak»*.

**Erich Honecker, Eki Alemaniako estatuburu ohi.**



*«PKK-ko buruzagia (Turkiako Kurdistan), Abdula Ocalan, ez da gizon helduia. Oso atzerakoia da. Diktadorea da eta ez du mende honetako errealitatea ulertzen»*.

**Jalal Talabani, Irakeko Kurdistaneko PKU alderdiko buruzagia.**



# O I H A R T Z U N A K

*«Venezuelar populazioaren % 90 Carlos Andres Perezen gobernuaren aurka dago».*

**Alberto Fujimori, Peruko lehendakaria.**



*«Fujimorirekin identifikatzen naiz, herri peruarrak behar dituen aldaketak burutzen ari delako».*


**Francisco Visconti, Perun errefuxiatutako venezuelar kolpisten buruzagietakoa.**

*«Oraingoz, erreformak berritarren gehiengoa porrot ekonomikora eramán du».*

**Boris Ieltsin, Errusiako lehendakaria.**

*«Gertakizunen atzetik abiatu da, baina ez da justua Bosnian gertatzen dena EKren errua denik esatea».*

**Maximo Cajal, Espainiako Atzerri ministroaren idazkariordea.**



## SOLDADU ESTATUBATUARREN SEMEA-ALABA BARREIATUAK

**M**UNDUAN zehar urte askotan barreiatuta ibili dira —eta dabilta— estatu-batuar soldaduak. Alabaina, ez dira mundua zaintzen bakarrik aritu. Filipinetan esaterako, 98 urteko egonaldia eta gero, 23.000 seme-alaba (beste iturri batzuen arabera 50.000) utzi dituzte bertan, gehienak gaueko ateraldietan 'egindakoak'. Horietako askok, bere amak lehen amodioa izan zuen taberna berberean egiten dute lan. Gaur egun txikiak diren gehienak, ostera, pobrezian bizi dira. Baina arazoa ez da Filipinetakoa bakarrik, estatu-batuarren presentzia ezagutu duten Vietnam, Kamputxea, Hego Korea edo Laos-ek ere antzerako arazoak dituzte. Haiek ere bapo ezagutzen dituzte marineen gaueko ateraldiak.




## KURDUAK EUREN ARTEKO BORROKA LATZETAN

**T**URKIA Iran, Irak eta Siriako estatuetan sakabanatua jarraitzen du Kurdistanek, betiko herri galtzaileak. Turkiako PKK-ko kurduak eta Irakeko UPK eta PDK-koek behin ere ez dituzte harreman ezin hobeak eduki, are gehiago borrokara ere heldu izan dira, baina ez gaur egungo laztasunarekin. Turkiar armadak Abdula Ocalan «Apo»ren PKK-ko gerrilariak Irakeko Kurdistanerantz zokoratu du, eta han UPK eta PDK-ko soldadu kurduak presionatu PKK-koen aurka egiteko. Baita egin ere hauek, borroka latzak izan ondoren, PKK-k Irakeko Kurdistaneko lurra erabiliko ez dituen konpromezua hartu behar izan du eta.



Eszimer laser berriak oftalmologoen arteko eztabaida piztu du:

# MIOPIARIK GABEKO KIRURGIA, BEGIEN ARGI ETA ILUNAK



Kirurgia erretroaktiboaren lehen operazioak joan den mende bukaeran izan ziren. Argazkian, ebakuntza bat.

**G**ero eta gehiago dira ikusmena hobetzarren kirofanotik pasatzen direnak. Izan ere, miopia zuzentzeko sistema ugari erabiltzen dira gaur egun oftalmologian. Etorkizunean astigmatismoa eta hipermetropia sendatzen lagunduko omen duen laser berri baten erabilerak, ordea, eztabaida sutsuak sortu ditu.

**TATO** Fernandez donostiarra, orain 7 urte, begietan ebakuntza egiteko erabakia hartu zuen. Kristal lodiko betaurrekoekin ibiltzen ohitua, gaur egun betaurrekoak irakurtzeko baino ez ditu erabiltzen. Gerroztik, berak esan digunez, ikusmena hobetu egin zaio, eta ez du begietan batere molestiarik izaten. Tato bezala, gero eta gehiago dira betaurrekoak edota lentillak kentzearen ebakuntza gelatik pasatzen direnak. Kirurgia erretroaktiboare n aukera egiten dutenak.

Esan dezagun, begie arduratzen den kirurgia era honetan, sistema ezberdinak erabili izan direla eta erabiltzen direla gaur egun. Horietatik klasikoena, «Fu-

kala» izenekoa, dioptria askotako pertsonen kasuan erabiltzen hasi zen, joan den mende bukaeran. «Fukala» delakoa, miopia ugaritasun horrek begian sorturiko kristalinoa —laino modukoa— kentzean zetzan, horren bitartez begiaren graduazioa aldatuz. Sistema honen arriskurik handiena begiko erretina kaltetua gertatzea zen. Beste sistema bat, gaur egun munduan gehien erabiltzen dena, «keratotomia erradiala» izenekoa da. Bigarren hau 6-7 dioptria bitarteko miopia dutenei egiten zaie, eta begiaren betzuringoan ebaki batzuk egitean datza. Hirugarren operazio bat «keratomileusis» izenekoa da, sistema konplexuago batez




betzuringoaren egitura aldatzen duena. Laugarren bat «ekiperatofaktia» dugu, gorderiko betzuringo bat begian jartzean oinarritzen dena —lentilla biologiko bat ezartzea, nolabait esatearren—.

Asmatu azken sistema, gaur egun aldeko zein kontrakoan artean eztabaida sutsuak sortarazten ari dena, «keratektomia fotoeretroaktiboa» izena duena da. Azken honetan, Eszimer izeneko laser asmatu berri batez, betzuringoan eragiten da. Laser honen erabilerak, aukera handiak ematen ditu miopiaren tratamenduan, baina baita astigmatismoa eta hipermetropia kirurgiaz zuzentzen hasteko garaian ere. Bestalde, orain arte sendatu ezin izan diren begietako betzuringoetako hainbat lesioaren tratamendurako baliagarria izan daiteke. Arazo da orain lau urte erabiltzen hasia dela eta emaitzak erabat ezagutu arte, askoren ustez, kontu askorekin ibili beharra dagoela laser berri honen erabileran.

### Oso sistema eztabaidatua

Estuinguru honetan, orain dela gutxi, Frantziako Gizarte Segurantzak kezka azaldu zuen hainbat zentro pribatutako laserraren kontrol gabeko erabilera zela eta. Espainian ere, laserraren erabilera ez dago arautua. Espainian, dena den, oso gutxi dira laser berriekin aritzeko aukera dutenak, eta Hego Euskal Herriari dagokionez, Bilbon bat dago eta Donostiako Quiron Klinikari urtarilerako beste bat ekartzekoak dira. Ipar Euskal Herrian, Donibane Lohizunen kasu,



Zasturain oftalmologoak esan digunez, «bada operatu ezin den mioperik, eta hori beti esan behar zaie».

operazio asko egin dira da-goeneko sistema berri honekin. Tresna berri gutxi egotea, nolana ere, gauza normaltzat jo dezakegu bere salneurriari erreparatuz gero: 60 milioi pezeta (3 milioi libera inguru).

Munoa oftalmologo donostiar ospetsuaren ustez, «*basiera batean laserrak aukera handiak ematen zituela zirudien, borrelako tresna batek kirurgilariaren eskua ordezkatzeko baitu; eta alde horretatik, seguruagoa izan behar duela*». Baina sistema hau oso eztabaidatua izaten ari da. «*Britainia Handian orain dela gutxi eginiko kongresu batean, esaterako, esperientziarekin aurrera segitzeko prest daudela esan dute. Baina bestalde, argi adierazi dute pertsonari argi esan behar zaiola prozedimentu esperimentalak dela oraindik, neurri batean aurrikustezina, eta horren ondorioz oso eztabaidatua*».

EEBBetan, Eszimer izeneko laserra, ikerketarako

baimendurik dauden erite-txeetan baino ez da erabiltzen. Honela, eritetxe guzti horien artean sinaturiko protokolo baten arabera,

emaitzen koordinazioa burutzen da. Hori da, hain zuzen ere, Munoa oftalmologoak eskatzen duena: «*Erabilpen eskubide aska-*

# XIRRIXTA


Euskarazko Hilabetekaria

4 / 8 urte arteko haurrentzat

## HARPIDEDUN EGIN ZAITEZ!

Argitaratzaile: Euskal Kultur Erakundea  
 LOTA - BP 6  
 64480 UZTARITZE  
 Tel: (07.33) 59.93.25.25  
 Fax: (07.33) 59.93.06.84.





**Eszimer izeneko laser berriaren bitartez, astigmatismoa eta hipermetropia sendatzeko aukera izan daiteke. Hori emaitzek esan beharko dute.**

tasuna eman aurretik hori beharrezkoa da. Emaitzak ez baitira kontrolik gabe aditzeko adina seguruak». Munoaren ustez, teknika

berria oso baliagarria izan daiteke, baina emaitzak ezin aurrikustea oso larritzat jotzen du. Bere iritziz, keratotomia, kirurgilariaren

eskuaren menpeko operazioa izanda ere, emaitza azkarren eta seguruena dituen sistema da gaur egun.

Donibane Lohizunen bada denbora pixka bat keratoktemia fotoeretroaktiboa erabiltzen hasi direnetik. Bertan, Juan Louis Douenne eta Gauthier Laurent oftalmologoek, mundu mailan oraindik ere erabili den keratotomia erradiala erabiltzeari utzi egin diote. Gauthier Laurentek 400 operazio eginak ditu dagoeneko laser berriarekin. Badute, beraz, esperientzia. Juan Louis Douennek adierazi digunez, «laserrak miopia handiagoak tratatzeko aukera ematen digu. Bereziki 1-7 bitarteko miopia kasuetan, aurrerakotatzen emaitzak kaxkarra- goak baitira. Operazioetako emaitzak onak dira, kasuen %80an 0,50 dioptriako akatsa izaten baita. Keratotomiaren aurrean, beraz, oso onak dira». Laser berriak sor ditzakeen kalteei buruz galdetuta, zera erantzun digu Douenne oftal-

mologoak: «Sistema berria orain lau urte hasi zen erabiltzen, eta ez dakigu, beraz, bemendik 20 urtera zer pasa daitekeen. Operazioetatik urtebete pasata, betzuringoan ez da orbanitze arazorik izaten. Dena den,

**«Laserraren emaitzak ez dira kontrolik gabe aritzeko adina seguruak» ●**

**MUNOA DOKTOREA**

keratotomiarekin baino denbora gehiago behar da begia erabat osatzeko. Jendeari lasai egon daitekeela esan diezaiokugu». Juan Louis Douennek esan digunez, operatutako jende gehienaren kasuan, operazio ondoko lehen hilabeteetan betzuringoaren aurreko partearen opakotasuna ematen da, urte erdiaren buruan edo erabat sendatzen dena.


### **Emaitzen irakurketa ezberdina**

Douenneren iritziz, gerta litekeen gauzarik okerrera, «operazioa egin aurretik bezala geratzea da. Baina ondo eginez gero, laserra ondo zentratzea baita gakoa, ez dago arriskurik».

Douennerekin lanean aritzen den Laurent Gauthierrek esperientzia handia du Eszimer laserra erabiltzen. «Laserra, nire ustez, seguritate handikoa da —esan digu bere datuen berri ematen hasi aurretik—, 5-6 dioptria bitarteko miopia operazioetan beste teknikak







Quiron Klinikan lanean ari diren Zasturain eta Otegi oftalmologoek urtarrilean izango dute Eszimer laserrarekin aritzeko aukera.

baino hobea. 6 dioptria arte, 0-1 bitarteko dioptria akatsa izaten da kasuen % 80an, eta 4 baino gutxiagokoetan % 95ean 0-0,5 dioptriako akatsa. 6tik 10era bitartekoetan zehaztasuna ez da horren ona». Gauthierren aburuz, laser berriaren abantaila da, lehengo sistemak baino hobea izateaz gain, oraindik asko hobetu daitekeela. Bere iritziz, «astigmatismoarekin hasiak gara eta etorkizuna ona da. Hipermetropian zailagoa da, emaitzak ez baitira horren onak, teknikan gehiago lan egin behar da. Astigmatismoa baikor ikus daitekeen bezala, hipermetropiari buruz ezkorragoak izan behar dugu». Operazio ondoko arazoak aipatzean, denborarekin kentzen joaten den betzuringoaren opakotasuna aitatu digu: «Orbantze prozesua keratotomiarekin baino azkarragoa baita dudarik gabe». Gauthierrek egiten dituen

operazioetatik %98 laserrarekin dira, eta %2 keratotomiaz.

Quiron Klinikan aritzen den Zasturain oftalmologoa, ez dago erabat konforme Laurent Gauthierren usteekin. Bere ustez, «Eszimerrekin aukera handiagoak daude, miopia eta astigmatismoa batera ematen direnean adibidez. Keratotomiarekin astigmatismo-

keratotomiarekin, berriz, bada betzuringoaren zati bat ukitu ere egiten ez duzuna». Laserrak kirurgilariaren eskua ordezkaturatu, abantaila dagoela onartzen du Zasturainek, «baina orbantze arazoak hor daude». Zasturain oftalmologoak argi ikusten du kasu bakoitzean zein sistema erabili behar den: «Keratotomia sei miopia-dioptria arte, lase-

bili behar ez den askotan erabiltzen ari da: «Bada operatu ezin den mioperik eta esan egin behar zaie. Gerra dago Eszimerrekin eta keratotomiaren aldekoen artean. Jende asko, ordaindutakoari emaitzak ateratzeagatik, behar ez diren ere laserrarekin aritzen da. Ikuspuntu merkantilista ere badago».

Begietan ebakuntza egitea, izan ere, ez da batere merkea. Eta prezioak ere arautu gabe daude. Keratotomia operazioa eginez gero, 150.000 pezeta (7.500 libera) ordaindu behar dira, gutxi gorabehera, begi bakoitzeko. Laserrarekin, berriz, 500.000 pezeta beharko ditu bi begiak konpondu nahi dituenak. Dirutza hauek ikusita, seguru badagoela sakela bete nahian ari denik. Hori da, behintzat, oftalmologo askok salatzen dutena.

**«Gerta litekeen gauzarik okerrera, operazioa egin aurretik bezala geratzea da; Baina ondo eginez gero, ez dago arriskurik» ●**

#### DOUENE DOKTOREA

dioptria bat baino gehiagorekin ez baitago zehaztasun handiegirik». Laserrarekin, bere aburuz, zuzenketa zehatzagoa da, baina sistema horrek keratotomiak baino arazo gehiago sortarazten ditu: «Inguru optikoaren ebunaren zati bat suntsitu egiten da, eta

rrarekin bezala. 6tik 10era laserra. 10etik aurrera keratomileusis sistema da egokiena. Laserrak, ondo erabiliz gero, 6 dioptria arte ez du arriskurik. 6tik 10era zehaztasuna jaitsi egiten da, eta 10etik aurrera ez du balio». Zasturainek esan digunez, Eszimer laserra era-

**Alberto Irazu**



# «Azaroaren 20an heriotzaren kolpea bere osotasunean aurkezten zait»



«Gero eta gogorragoa egiten zait urteroko prentsaurrekoa, badakidalako kazetariak nik esandakoari puntarik maltzurrena aterako diotela».

**D**enbora asko pasatu da berarekin egindako lehenengo elkarrizketatik. Orduan minduegia zegoen, Xanti Brouard bere senarraren hilketatik bi hilabetera hitz egin baikenuen. Denborak lasaitasuna eman dio azaroaren 20an egunkari guztietan agertzen den honi, eta gaur egun Xantiren kontsultan sartu eta balak utzitako aztarnak erakusteko indarra du. Terek zortzi urte hauetan ikasi du zer den bakardadea.





•Pare bat proiektu literario ditut. Bat Xantirekin izandako bizipenen narrazio kronologikoa da, eta bestea liburu hirueledun bat.

**ARGIA.** Ez zaizkizu el-karrizketak gebiegi gustatzen?

**TERESA ALDAMIZ.**

Hala da. Urtero egiten dugun prentsaurrekoan agertzea gero eta gogorragoa egiten zait, badakidalako nik esandakoari puntarik maltzurrena aterako diotela, oso kazetari gutxi baitago esandakoa ondo igorriko duena. Dena den, lore eskaintzan ez zait hainbeste kostatzen hitz egitea, lasaiago nago, badakidalako datorrena gustoz eta nahita etortzen dela. Desberdina da.

Urteak pasatu ahala, gogorrago egiten zait bakarrik egotea. Bakardadeak, gero eta gehiago, gaintitzen nau. Xanti zegoenean, asko hitz egiten genuen Euskal Herriaz, banekien zehatz-mehatz zer gertatzen zen, eguneroko albisteak komentatzen genituen elkarrekin, eztabaidatzen ge-

nuen... Berak utzitako hutsunea gero eta gogorragoa egiten zait.

**A.** Dena den, intimitatea oso garrantzitsua da zuretzat, zure altxor gordeena da eta kazetariok hor sartzea ez zaizu batere gustatzen.

**T.A.** Ene intimitatea merezi dut, baina gehien gorrotatzen dudana intentzio txarrez egindako galderak dira. Intentzio txarrez egindako galdera politikoa kbatez ere. Baina ohitzen hasia naiz.

**A.** Literaturak zure intimi-

tatearen jauregia izaten jarraitzen al du?

**T.A.** Orain jauregi horren parkeetara ateratzen naiz. Poesiazale batzuekin elkartu naiz. Rapsoda bezala gabiltza, beste emakumeon

## NORTASUN AGIRIA

1928ko irailaren 8an jaio zen Manilan  
 ●Kazetaritza ikasi zuen Sto. Tomaseko Unibertsitatean, ingelesez ●Bere gurasoak lbarrangelukoak zirenez Euskal Herrira etorri zen 1951n ●Free-lance bezala aritu da eta «Punto y Hora»ko kolaboratzailea izan zen

●Kirola izugarri gustatzen zaio, tenisa eta frotenisa batez ere, baina bere biziorik handiena irakurtzea eta rapsoda bezala aritzea da  
 ●«23 voces para un poema» eta «Entre Amigos» poema liburuetan kolaboratu zuen ●Bere azken liburua 1986an argitaratu zen





poesia bultzatzen dugu, ter-  
tuliak antolatzen ditugu...  
Lagun koadrila bat aurkitu  
dut, 27ko belaunaldikoek  
bezala, poemak elkarren ar-  
tean osatzeko.

Behar nuen, zuloan gero  
eta gehiago sartzen ari nin-  
tzelako. Etxean geratzen  
nintzen, ez nuen irteten.  
Nahiz eta idazten jarraitu,  
zuloa gero eta haundiagoa  
eta beltzagoa bihurtu zen.  
Hortik ateratzeko premia  
nuen.

**A.** Zer idatzi duzu *Xantiri*  
omendutako «*Poemas para*  
*vivir*» eta gero?

**T.A.** Pare bat proiektu di-  
tut. Bat, Xantirekin izan ni-  
tuen bizipenen narrazio  
kronologikoa da. Horiek  
bildu eta argitaldari baten  
bila nabil. Bestea 1989an  
bukatu nuena da. Ingelesez  
idatzitako poema batzuk.

Manilan jaio nintzenez,  
ikasi nuen hizkuntza inge-  
lesa da. Nahiz eta gurasoak  
euskaldunak izan, gurekin  
ez zuten euskaraz hitz egi-  
ten. Orain, euskaraz idaztea  
xamurrago egiten zait hitz

egitea baino.

Pablo Sorozabalen ideia  
izan zen ingelesez idaztea.  
Bi astetik behin poemak bi-  
daltzen nizkion eta bikaina  
iruditu zitzaion. Orduan, li-  
buru hirueleduna egitea  
bururatu zitzaion, ingelesez,  
gazteleraz eta euskaraz.  
Berak gaztelerazko itzulpe-  
na egiten zuen bitartean,

## ■ «Xanti zegoenean, Euskal Herriaz hitz egiten genuen, banekien zer gertatzen zen; berak utzitako hutsunea gero eta handiagoa egiten zait» ●

Laura Mintegik euskarazkoa  
egingo zuen. Elkarrekoek  
ideia onartu zuten, baina nik  
euskarazko itzulpena gaz-  
teleratik egiterik ez nuen  
nahi, eta orduan, itzultzailea  
Bernardo Atxaga izan zite-  
keela komentatu genuen.  
Oraingoz proiektu hau gel-  
dituta dago eta ez dakit non  
izango dituzten nire poe-  
mak. Bestetik, ez zait gus-  
tatzen jendearen atzetik

ibiltzea, telefonoz deitu eta  
nekagarria suertatzea.

**A.** *Xanti zen zure poemien*  
*miresle ezkutua.*

**T.A.** Hasieran kostatu egin  
zitzaion ulertzea. Gogora-  
tzen dut, mitinetan nire poe-  
mak irakurtzen nituenean  
lotsatzen zela, baina jen-  
dearen gustokoa zela kon-

turatzen zenean lasaitzen  
zen.

**A.** *Kazetaria ere bazara.*  
*Duela urte batzuk Rosa*  
*Monterok esan zuen kaze-*  
*taritza senar tradizionala*  
*dela eta literatura maitalea.*

**T.A.** Ados nago. Kazetari-  
tza eguneroko kontua da,  
musua edota laztan arina,  
eguneroko bakeroak, ohiz-  
ko senarra. Eta literatura

esaldi bikain bat burutzeko  
ilusioa da, elkar aurkitzea-  
ren zain egotea, sentsazioen  
leherketa, esnatzea... Dena  
den, maitale eta senarraren  
arteko desberdintasuna  
adierazteko ez naiz egokie-  
na, biak batean izan dituda-  
lako. Kazetariak ez ditu hi-  
tzak zaintzen, edozer gauza  
egiten du artikulua buka-  
tzeagatik. Literatura aldiz,  
hitzen edertasuna mimatzea  
da. Dena den, osagarriak  
izan litezke ondo eramanda,  
maitalea eta senarra bezala.

**A.** *Euskal Herrian ez zara*  
*gehiegi aritu kazetari be-*  
*zala.*

**T.A.** Filipinetatik etorri  
nintzenean, kazetaritza titu-  
lua eta kazetari bezala espe-  
rientzia banuen, baina Eus-  
kal Herrian, 1951n, emaku-  
mea izatea ez zen erraza.  
Emakumea izateak dexente  
murriztu zituen nire lan au-  
kerak. Orduan emakumeak  
kalera bakarrik ateratzea ez  
zegoen ondo ikusita, gu izan  
ginen lehenengoak kalera  
atera ginenak. Azkenean,  
Xantik kalera ez bazidan



«Kazetaritza  
eguneroko kontua da,  
musu edota laztan  
arina, ohizko senarra.  
Literatura, berriz,  
esaldi eder bat  
burutzeko ilusioa da,  
elkar topatzearen zain  
egotea, sentimenduen  
leherketa, esnatzea».



laguntzen txarto sentitzen mintzen. Gaur egun oso desberdina da, eta zaila da garai haietako ideiak ulertzea.

Kazetari bezala ezin nintzen aritu, ingelesezko klaseak ematen hasi nintzen. Xantik ez zuen atsegin baina nire lanarekin jarraitu nuen berarekin ezkondu eta gero. Xanti, beste gizona batzuk bezala, matxista zelako, nahiz eta onenatarikoa izan, eta matxista ez izaten saiatu arren. Saiatzen zen, eta batzuetan lortu ere. Dena den, ez dut aitzakiarik jarri nahi. Nik ere ez nuen balentriarik izan kazetaritzarekin jarraitzeko.

**A.** *Nola ezagutu zenuen Xanti?*

**T.A.** Manilatik etorri nintzen udan ezagutu nuen, Lekeition, festa batean, nahiz eta lehendik ere ikusia nuen. Gogoratzen dut orduan jada Bilbon aritzen zela lanean eta Lekeitiora joaten zeñ bakoitzean, gurasoekin portura joaten zen iritsi bezain laster, beraiekin hitz egitera. Hori da berataz gogoratzen dudana lehen gauza.

**A.** *Garai hartan Euskal Herria ulertzen eta maitatzen ikasi zenuen. Nola izan zen?*

**T.A.** Ulertzen ez nuen guztia galdetzen nion Xantiri. Ezkondu ginenean Euskal Herri osoa ezagutu nuen, erakutsi zidan. Berak eramaten ninduen eta gauzak azaldu. Geroago presoen kontuak etorri ziren. Xabier Haya zen etxeetara abiatzen zena presoentzako diru es-



ke. Gogoratzen dut etxera etorri zenean Xantik 20.000 pezeta eman zizkiola. Duela hogeitamar urteko 20.000 pezeta! Xabierrek ez zuen sinesten!

Nire heziketa Filipinetan, familia oneko alaba batena

izan zen, eta han, ezarritako ordena ezin zela aldatu irakatsi zidaten eta Xantik, aldiz, kontrakoa esaten zidan. Ez nuen ulertzen nahiz eta hasieran bezain inuzentea ez izan; hala eta guztiz ere, galdera asko egiten nizkion. Eskatzen nizkion behar nituen azalpenak.

Beste guztia, erraz etorri zen. Etxean mutilak gordetzea, ezkutatzea... bi hilabete egon nintzen etxetik atera ezinda etxe hau eta bestea mutilez beteta zeu-

**«Ulertzen ez nuen guztia Xantiri galdetzen nion. Berak irakatsi zidan zer den Euskal Herria. Gero presoen kontuak etorri ziren. Ulertu nuenean borroka biona bihurtu zen, elkarrekin eramaten genuen aurrera».**

**«1951n Euskal Herrian emakumea izatea ez zen gauza erraza, eta honek dexente murriztu zituen nire lan aukerak kazetari bezala» ●**



delako. Nire seme-alabak ere zaindu behar nituen eta ikastolara joaten ziren ba-koitzean gogorarazten nien ezer ez esateko. Orduan 10-12 urte zituzten eta egoeraz ohartzen ziren. Baina Xanti ez nuen pakean utzi dena azaldu zidan arte. Ulertu nuenean, borroka biona izan zen, elkarrekin eramaten genuen aurrera.

**A.** *Nola bizi izan zenuen Iparraldean igarotako epealdia?*

**T.A.** Oso txarto. Seme-alabak laga egin nituela uste nuen. Galdu egin genuen, erbesteratzea, preso egotea bezala, galtzea delako. Zerbait galtzea da. Haurrak senideen artean banatu genituen eta gu bisitatzeko pasaporteak egitera joan gine-nean, astero, ez zieten bai-menik eman.

Bestetik, Iparraldean eraman genuen bizitza etxeko hormen barrukoa izan zen. Xanti gero HASI izango zena-rekin buru belarri zebilen eta ni, etxekoandre bezala.

1975eko udan 3.000 atera ginen Hego Euskal Herritik Iparralderantz, ihesi. Gau batzuetan jende berria jasotzera ateratzen ginen, batzuk igeritan zetozen... Gero, baserrietan eta ezkutatzten genituen... Oso zaila egin zitzaidan.

**A.** *Xanti hil eta gero, etxe honetara, bera hil zuten etxera, itzuli zinen, zergatik?*

**T.A.** Hona etorri behar nuen, ezin nuen Xanti ahan-tzi... ez da masokismoa. Hemen daude oroimen guz-tiak, gure bizitza hemen bu-ritu zen, hemen hil zuten. Kontsultan daude balen az-tarnak, azken tiroa jotzeko erabili zuten balaren aztar-na. Seme-alabak ere ados zeuden eta hona itzuli gi-nen.



**«Azaroaren 20an 'noiz arte?' oihukatuko nuke. Beste urte bat pasatu da baina, noiz arte? Nik ere hiltzeko unea espero dut, ea heltzen den.**

**A.** *Nola sentitzen zara azaroaren 20an?*

**T.A.** Noiz arte? oihukatze-ko gogoia daukat. Data horretan beti bururatzen zait berdina, «beste urte bat pasatu da, baina noiz arte?». Guzti honekin bukatzeko gogoia dut, hiltzeko unea espero dut, ea heltzen den. Urteurrenak pasatu ahala, ideia, pentsamendu, senti-mendu hau sakontzen doa. Oso bakarrik sentitzen nai-zelako, eta nire seme-alabak

bikainak dira baina desber-dina da... Bestetik, nire senti-menduak ezin ditut azale-razi, eurak ere minduta dau-delako, nik bezala sufritzen dute. Hasieran oso depresio latzak izan nituen. Xantik utzitako hutsunea gaindi-tzea gero eta gogorragoa da niretzat.

Ez dut kexatu nahi baina, adibidez, udaleko zinego-tziak etortzen direnean, nor-mal hitz egiten saiatzen naiz baina egun horretan ez naiz

ni, ez nago betiko moduan. Ez da itxura egitea, baina irribarrez egon behar dut, benetan sentitzen dudana negar egiteko gogoia de-nean.

Urtean zehar nire oroi-menak kontrolatzen ditut, bakardadea orekatu..., bai-na azaroaren 20an herio-tzaren kolpe krudela bere osotasunean aurkezten zait.

**Myriam Gartzia**



# ARGIA txokoak



## Nañarri taberna

Txikia  
baina  
martxosoa  
Kale Nagusia 15 BEASAIN  
☎ 88 06 59



Alaitsu eta jator  
gurekin elkar  
Zapa kalea 8 HERNANI ☎ 33 15 06


Behin joan ezker  
ahaztu ezingo duzuna



## XIRULA TABERNA

Iturriotz 3 BEASAIN ☎ 88 20 23

BASAKANA  
taberna



**Giro alaia eta jatorra**

Iturriotz 11 BEASAIN ☎ 88 20 23



## TXIKI JAI

LASARTE-ORIA  
Kale Nagusia  
Tel.: 37 09 77

5,30etatik AURRERA  
GOSARIAK EGUNERO



# EUSKAL BANKUA, EUSKAL EKONOMIAREN GAKOIA

**E**uskal Herriko ekonomiaren krisi egoera nabarmena den honetan agertu da berriro ere komunikabideetan aspaldidanik enpresari, ekonomilari zein politikari askoren ahotan egon den Euskal Banku Publikoa. Eusko Jaurlaritzako Hazienda kontseilaria den Jose Luis Larrea izan da oraingoan gaiari heldu diona. Euskal Bankua datorren urterako omen da, baina zer nolako bankua? Zein helburu eta kompetentziarekin?

**B**I urte pasatu dira dagoneko EAJ eta PSEren arteko gobernu negoziaketak hautsi zirenetik, eta orduan haustura horren arrazoirik nagusienetakoa izan zen euskal banku baten eraketa pil-pilean dago berriro ere egun, urte amaierarako iragarri baitu Gaisteizko Hazienda sailburua den Jose Luis Larreak Euskal Bankuari buruzko proiektuaren

zirriborroaren aurkezpena.

Proiektu honen aurkezpenaren berri izan orduko, Madriletik jasotako erantzuna ez da oso baikorra izateko modukoa. «*Onartezina da horrelakorik pentsatzea*», adierazi du Estatuko Ekonomia ministroa den Soltxagak.

Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea, Fernando Buesa, izan da zehatze-



Euskal Banku Publikoak ez du bere txanponik botako, baina bere eraketak diru politikan parte hartzeko helburu abertzaleak ikusi ditu Madrilak.



na: *«Aldarrikapen abertza-  
leak egiteko tresna gisa,  
euskal kutxek Banco de  
Españan duen kutxa koefi-  
zienteak exigituko badi-  
tuzte, ez gaude batere  
ados».*

PSEkoak emandako erantzunak argitan utzi du arazoaren gakoa. Bilbao Bizkaia Kutxak, Gipuzkoa-ko Kutxak, Euskaldiko Kutxak, Vital Kutxak eta Baserriarren Kutxak Espainiako banku publikoan kutxa koefiziente gisa depositoan dituzten 100.000 milioi pezetak (5.000 milioi libera inguru) bilakatu dira arazoaren oinarri: euskal bankuak diru horren kontrola eskuratuko balu diru politikan parte hartzeko ahalmena izango bailuke.

Proiektu horren osaketa burutu duen Hazienda sailburu ohiarentzat ere, Alfonso Basagoitirentzat, Madrilen kezka gehien sortu duena *«Banco de Españan dauden 100.000 milioi pezetzen drenai»* izan da. Diru horrek finantza merkatu ez-

**■ Gasteizek datorren urteko aurrekontuetan sartu du jada Euskal Bankuarentzako 1.489 milioi pezetako partida bat ●**

berdinetan zirkulazioan jarrita emango lituzkeen etekinak erabiliz, alor publikoko aurrekontuak estal daitezkeela esan du sarritan Larreak, eta aurrezki kutxa eta kreditu kooperatibak zaindu eta kontrolatzeko kompetentzia Euskal Ban-



kuari legokiokeenez, Eusko Jaurlaritzako Hazienda Sailak bereganatuko lituzke lan horiek. *«Eta teknikoki eutsi dakiok nabi horri, Estatutuak kreditu publiko eta banka arloan konpetentzia osoa ematen baitigu»*, adierazi du Larreak.

Madrilekoek ez dute ordea Estatutuaren irakurketa bera egiten. Bitartean, Gasteizek datorren urteko aurrekontuetan sartu du jada Euskal Bankuarentzako partida bat, 1.489 milioi pezetakoa. 3.000 milioi pezetako aurrekontua luke banku honek, eta zifra hori osatzeko falta diren milioiak hiru foru aldundiek jarriko lituzkete.

PSEren aurkako jarreraren ondotik, beste alderdi politikoena ere bizkor heldu da. EA eta EUEk euskal banku publiko baten beharraz behin baino gehiagotan aritu diren bitartean, HBk euskal ekonomiaren suspertzerako plangintzare n barruan puntu garrantzitsu bezala definitu du finantza erakunde publiko indartsu baten osaketa, eta hori lortzearen truke instituzioetan parte hartuko lukeela ere azaldu du alderdi honek.

Baina zein dira euskal

banku publiko batek bete beharko lituzkeen lanak? HBrentzat euskal ekonomia berrindartzeko tresna egokia litzateke, eta badirudi duela sei hilabete Jon Azua, Ekonomia eta Industria sailburua, ildo beretik zihoala adierazpen hauek egitean: *«Eusko Jaurlaritza AHV eta*

**BBK-ko zuzendaritza taldea. Kutxa honek, EAEko beste laurekin batera Banco de Españan duen kutxa koefizientea izan da Madril eta Gasteizen arteko eztabaiden ardatza. (Argazkia: Kepa).**



**ZINKUNEGI**  
OPTIKA

**HERNANI, 4**  
**Telf. 42 06 24**

**20004 DONOSTIA**



Baleren Bakaikoa, ekonomilaria:

## «Euskal Bankuaren proiektua itxura egiteko zerbait besterik ez da»

**ARGIA.** *Posible al da gaur egun euskal banku publiko bat eratzea?*

**BALEREN BAKAIKOA.** Nire ustez bai. Eta hori da lortu nahi dutena bai Eusko Jaurlaritzak, bai HBk. Helburu desberdineki nire biek, baina posible da.

**A.** *Zein balorazio egiten duzu Gasteizek aurkeztu duen proiektuaz?*

**B.B.** Proiektua itxura egiteko zerbait bezala ulertzen dut. Ez du benetan euskal banku publiko bat lortu nahi. Horren adibide garbia da hasieran aurkeztutako aurrekontueta n bere eraketarako bideratu zen diru kopurua: 250 milioi pezeta. Kapital horrekin ez zoaz inora. EAJkoek

nahi dutena Euskal Herriko finantz erakundeak kontrolatzea da.

**A.** *Kutxa koefizienteari garrantzi handia eman zaio, zer dela eta?*

**B.B.** Berari esker diru politika egin daitekela. Baina horretarako eskuduntzarik ez dagoenez, horretaz hitz egitea ez zait batere serioa iruditzen. Diru politikarako eskuduntza Estatuko bankuak soilik dauka.

Posible da, hori bai, depositoan dagoen diruaren zati bat sektore publikoan erabiltzea, eta alde horretatik badute garrantzia, hemengo diruaren zati bat Jaurlaritzak bideratu ahal izatea suposatuko bailu-

ke. Nahi hori hor dago, baina sektore publiko indartsu bat sortu behar da horretarako, bestela enpresa eta elkarte konkretu batzuen eskuetara joango da diru hori, 3R planarekin gertatu den bezala. Jaurlaritzakoen lagunengana bakarrik joan dira sosak.

**A.** *Zein eragin izan dezake banku honek euskal finantz erakundeetan?*

**B.B.** Konpetentzia aldetik ez dut uste gehiegirik egingo dietenik, baina beste aldetik, kontrol sistema handia bilaka daiteke.

**A.** *Zer paper bete beharko luke euskal banku publikoak?*

**B.B.** Krisi garaian gaude, eta horren eraginez gehien ahultzen dena sektore pribatua da. Horregatik erantzukizun horrek egun sektore publikoan datza. Banku publikoa tresna bilakatu beharko litzateke.


Bankua euskal kreditu erakundearen begiztate eta kontrola izateko, eta EAEko kreditu erakundearen kutxa koefiziente teknikoaren zentralizaketa eta informazio lanen burutzea bermatzeko tresna litzateke.

Hazienda sailburuak behin eta berriro adierazi duenez, «argi daukagu ez dugula diru propiorik bo-

teamenduak aldatu egin dira. Azken aldian Larreak azaldu duenez, Euskal

■ «Argi daukagu ez dugula diru propiorik botako, eta Banco de Españarekin harreman onak nahi ditugu» ●

JOSE LUIS LARREA



Balere Bakaikoa euskal banku publiko baten alde dago, baina EAJk aurkeztu duen proiektuak paper hori ez duela betetzen esaten du.

Acenorreko zuzendaritzan sartu den une honetan, oso egokia litzateke euskal finantza erakunde publiko bat osatzea, eta ez bakarrik agente aktiboak sortzeko, Administrazioaren elkarte eta proiektu industrialetan parte hartzeari ateak zabaldu abal izateko ere bai.


Baina egun EAJren plan-



tako, eta Banco de Españarekin harreman onak nahi ditugu. Hala ere, Madrilek ezin digu ukatu euskal finantza erakunde bat osatzeko eskubidea. Bankua martxan jarri ala ez erabaki behar duena Legebiltzarra da».

Eztabaida guzti honen inguruan, euskal finantza erakunde desberdinek ere zer esanik izango dute etorkizunean. Horrela, banketxe zein kutxa desberdinei beren iritzia eskatu ondoren, gehienek gaia zertan geratzen denaren zain dardela erantzun digute. Bilbao Bizkaia Bankuko bozeramaileek jakinarazi digutenez, «etorkizunerako arazo bat azaltzen da. Europako diru baterakuntzarako birugarren fasean sartzean diru politikaren diseinua Europako Banku Zentralearen eskuetan geratuko da, eta horren ondorioz baliteke kutxa koefizientearen bazterketa suertatzea».





**Jose Luis Larrea,**  
Eusko  
Jaurlaritzako  
Hazienda  
sailburua.  
Madrilekin tirabira  
asko sortu dituzte  
azken hilabeteotan  
egin dituen  
adierazpenek. Bere  
esanetan,  
Legebiltzarra da  
euskal bankua  
martxan jarri ala ez  
esan dezakeena.  
(Argazkia: Simal).

Euskal Bankuak zer funtzio beteko lituzkeen galdetzean, BBBkoek diote EAEko finantza politikaren koordinaketaz arduratzea litzatekela bere ardurarik

egokiena, *«baina Kreditu Ofizialak garai batean egin zituen akatsak ekiditen saiatu beharko lirateke».*

Aditu guztien esanetan, Euskadiko Bankua sortzea-

gatik norbait kaltetua izatekotan, horiek aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak lirateke, baina lehen aipatu bezala, ez dute oraindik beren iritzia iragarri. Ezta EAE-Nafarroako Kutxen Konfederazioak ere.

Gipuzkoako Kutxako lehendakaria den Fernando Spagnolok duela hiru hilabete adierazi zuen ARGIAko orrietan Euskal Banku Publikoak aurrezki kutxetan izan zezakeen eragina: *«EAEko kutxek Banco de Españaan duten diru kopurua Euskadiko Banku horrek kudeatuko balu, hainbat gauza egin abal izango lirateke. Baina arriskua ere izugarria izango luke. Dirua uzten denean itzultzeko izan obida, baina itzultzen ez bada... Duela gutxi hemen, Kutxako bulegoetan, bildu ziren enpresariak, eta beren lehendakaria ere bertan zen. Bankuaren alde zegoela eta bultzatuko zuela*

*aipatu zuen. Banku horren funtzioa zehaztu gabe dago».*

Confedebaskeko (Euskal Enpresarien Konfederazioa) lehendakari den Euskadiko Bankuari buruz duen iritzia eskatu diogunean, prentsa bulegotik jaso dugun erantzuna argia izan da: *«Gai horri buruz ez dugu zer esanik. Gu enpresariak gara, eta diru publikoak erakunde publikoen gestioaren hobetzerako erabiliko denez, ez du zerikusirik enpresa pribatuekin. Alegia, gurekin».*

Erakunde pribatuekin zerikusia izan ala ez, argi dago banku publiko baten eraketak garrantzi handia izan dezakeela ekonomia osoa Europari begira antolatzen ari den honetan. Eragina, banku horri emango zaion erabilpenaren araberrakoa izango da.

## Euskal Bankuaren lehentasunak

**HASIERATIK**, Euskal Bankuaren eraketak helburu konkretu batzuk izan ditu, eta horrela adierazi du behin eta berriro Gasteizko proiektu hau aurkeztu zuenetik. Laburbilduz, EAEn sortzen diren **errekurto publiko guztien bilketa** lortu nahi du, eta diru horren **gestioa** ere bertan egin, horretarako beharrezkoak diren finantz zerbitzu eta aholkularitza tresnak sortuz. **Abalen prestakuntza** ere aipatu izan da Euskal Bankuaren eraketarako urrats bezala.

Zor publikoa pairatzeko ahalegin handiak egitekotan, udalak lirateke hartzaile nagusiak, zor ugari hartzen baitituzte.

Denborarekin, lehentasuneko puntu hauek beterik, **zor publikorako fondo bat eratuko litzateke, gestio elkarte bat sortuz** fondo horren erantzule eta banatzaile gisa.

Kobertura ariketak eta kredituetarako inbertsio gogorrak Euskal Bankuaren eraketa prozesu osoaren azken urratsak lirateke.



# GIZONEZKOAK MASKULINITATE DESBERDIN BATEN BILA

**E**z da erraza gizonetzkoak euren gauzez hitz egiteko elkartzea. Hasier Etxebarria, idazlea eta kazetaria; Xabier Laka, eskultorea; Fernando Villadangos, Garai Elkarteko sexologoa eta gizon taldeekin esperientziaduna; eta Xabier Odriozola, Sumendiko kidea eta Fernando bezala gizon taldeetan aritu dena, elkartu ditugu. Gizon tradizionalaren baloreen krisia eta maskulinitate berria eraikitzearen beharra dira eztabaidagai. Zer da gaur egun benetako gizon bat izatea?

**ARGIA.** *Lebenbizi aztertu behar den gaia, orokorregia izan arren, maskulinitatearen kontzeptua argitzea da. Orain arte erabili diren kontzeptuak, indarra, boterea, abultasun eza, eta abarren apurketa egon al da? Zer da gaur egun gizon bat izatea?*

**F. VILLADANGOS.** Gure gizartean, adibide bat jartzeagatik, gizon bat izateko hasierako erritualak soldadutza da. Hori da eredia. Hori diote behintzat batzuek. Soldadutzaren bitartez gizon bat bihurtuko zarelara. Hor ikasiko ditu gizonetzkoen balore tradizionalak, gaur egun ere erabiltzen direnak.

**H. ETXEBERRIA.** Dena den, nik uste balore horiek soldadutza baino lehen ere agertzen direla edota inposatzen direla: mutil koadriletan, mendian, futboleko jokatzeko... haur-

tzarotik agertzen dira. Soldadutza balore horien forma soziala da.

Bestetik, gizonetzkoen artean aldaketa eman da, gizartea bera aldatu delako. Hau da, dagoeneko ez gara ehiztariak, bulegogizonak gara.

**X. ODRIOZOLA.** Gizarartean badago talde bat orain arteko balore tradizionalekin jarraitzen duena, eta zorionsua da balore horiekin. Baina badago beste talde bat, balore horiek zalantzan jartzen dituena.

Duela 30 urte, mugimendu feministarekin hasi zen Estatu Batuetan eta gaur

egun gizonetzkoen txanda heldu da. Badaude gizonetzkoek ukatu zaizkigun arloak ere, sentimenduen azalaraztea hain zuzen ere. Gizonetzkoek eskatzen digutena zera da, guztiari aurre egiteko jarrera, gogorra, ausarta, indartsua, aurpegia ematea. Lehena izatea, hoberena izatea da.

Jabea izatea, maitasuna egitean ere beti gainean, lan egiteko makina bat izatea... Badaude ohizko maskulinitate horren ezaugarri batzuk zorionsuak ez gaituztenak egiten, eta emakumeak dira hori guztiari aldatzeko eskatzen digutenak; emakumeak

dagoeneko aldatu direlako.

Pertsona berri baten beharra dago, ez maskulino edo femenino, baizik eta pertsona. Orain arte maskulinitate hartu izan ditugunak emakumeek ukatu zaizkien ezaugarriak dira, eta gizonetzkoak maskulinoak izan dira feminitatearen ezaugarriak ukatu zaizkielako. Ez da, berez, maskulino edo femenino biko kontzeptu desberdinak direlako. Ez dira sexu bakoitzaren ezaugarri desberdinak.

**F.V.** Nik esango nuke gizonak izaten ikasten dugula. Zientifikoki eta psikologikoki frogatuta dago neska zein mutila izaten ikasten dugula. Ezaugarri maskulinoak eta femeninoak ez dira biologikoak, kulturalak baizik.

**A.** *Gizonetzkoek galduta sentitzen zarete zuen gustoko diren eredu faltagatik?*

**H.E.** Emakumeak guk baino aukera gehiago dituzte zorionsua izateko, badakielako emakumea izatea zer den. Gizonetzkoek, aldiz, ez ditugu eredu garbiak. Nire ustez, feminitatea eta maskulinitatearen artean badaude desberdintasunak, eta nik feminitatea zer den badakit

■ «Ohizko baloreen arabera, gizonetzkoa ausarta, gogorra, aurpegia ematen dutena, indartsua, hoberena, lehenengoa izatea da. Zalantzan jartzen dut» ●

**X. ODRIOZOLA**





Fernando Villadangos, Hasier Etxebarria, Xabier Odriozola eta Xabier Laka bildu ditugu gizonetzko buruz hitz egiteko (argazkian ezkerretik eskuinera).

baina ezin dut esan zer den maskulinitatea.

**X.O.** Argi dago gure aurrekoen baloreak ez ditugula gustoko baina, nolakoak izan beharko ginetek? Noren antza hartu beharko genuke? Orain agertu den fenomeno «gizon biguinarena» da. Emakumeen artean gizon gogorak ez du onarpenik, eta izandako botereak utzi behar izan ditugu eta paper 'biguina' gureganatu. Baina paper honetan ere, gizonetzkoa ez da zoriontsua ez delako bere papera, baina emakumeak bere beharren arabera gizona eskatzen du. Gizonetzkoak ez gara sumisoak, emakumea eta gizonen artean oreka lortu behar dugu.

**F.V.** Gizon 'biguinak', gizon femeninoak edo gizon xuabeak ez du baliorik. John Wayneren ereduak ere ez. Emakumeek gogoeta handi bat egin dute eta honen on-

dorioz, harremanak ere aldatu dira. Emakumeek ez dute nahi ohizko etxekoandreak izan, eta gizonaren zain egotea —nahiz eta egon badaude horrelakoak ere—. Honen alternatiba

ustez, gizon xuabearena, emakumeekin harremanak lortzeko estrategia ezezik, bernizez estali den gizon gogorra da. Geruza urratzen bada, gizon tradizionala agertzen da.

## «Gizon 'biguinak', gizon femeninoak, gizon xuabeak ez du balio; ezta John Waynerena ere. Emakumeek harremanak aldatu dituzte» ●

**F. VILLADANGOS**

zein da? Maitagarria, xamurra izatea, laztanekin gehiago jolastea, ulerkorrago izatea, ahots doinua gozotzea,... baina eredu hau frogatu duten gizonetzkoak ez dira asetu, ez dute euren burua, beren tokia aurkitu. Honenkin femeninoak sentitzen dira eta hutsune handi bat dute, zerbait falta dute. Nire

**H.E.** Nire neska lagunekin hitz egin dut gauza hauetaz eta hauek esaten zidatenez, gizon 'biguina' dute laguntzat baina ez maitale, senargai eta abar bezala. Beraz, ez da bakarrik gizonari balio ez zaion eredu. Emakumeak aspertu egiten dira. Nik ez dakit zer demontre egin behar dugun?


**A.** Zuen ustez emakumearen jarrera gizon 'berriarekiko' egokia al da?

**X. LAKA.** Emakumeak behar duena zera da: gizonaren jarrera batzuk —jarrera zehatz eta ez orokorrrak, une zehatz batzuetan—, Bogart batenak izatea. Hau da, emakumeek gizon 'biguina' behar dute, baina une zehatzetan gizon primitiboa ateratzea.

**X.O.** Hori emakumeari dagokionez, baina gizona beldur da bere burua aldatzeko dituen oztopoak gaintzeko. Alde batetik, ez dakielako argi eta garbi nolakoa izan behar den, eta bestetik, bere boterea galtzeko beldur delako. Emakumea ez da gizonen parean jartzera ausartzen, lehen gizonengandik eginda jasotzen zituen gauza asko ez dituelako izango.

**X.L.** Gizona ez da boterea galtzeko beldur, baizik eta





«Emakumeak aukera gehiago ditu zorionsuagoa izateko, badakielako emakumea izatea zer den. Guk ez ditugu gustoko ditugun eredu garbirik» esan du Hasier Etxebarriak.

galtze horren ondorioen beldur. Emakumeak ere botere estereotipo horiek hartzeko aukera du eta gizona horren beldur da, emakume 'gogor' hau bere kontra aritzea. Emakumea

agresiboa bihur daiteke.

**F.V.** Gehiago ere badago. Emakumeek ere boterearen baloreak barneratu dituzte. Kezkatzen nau. Sexualki ere dominazioa azaltzen da. Emakumeen artean penetrazioaren ideia nagusitzen da, indarraren ideia, xarmangarritasuna alde batera utziz eta gizonengan konplejuak eragiten ditu. «Emakumeak multiorgasmikoak dira!» eta gizona maila ez ematearen beldur da. Emakumeak plazerra sentitzen du eta ez du behar zakil bat plazerra izateko. Horrek beldurtzen gaitu.

Penetrazio baginala eta orgasmoa bihurtu dira emakumeen plazererako erak. Honekin gizonezkoek orain arte izan dituzten plazeraren estereotipoak berreganatu dituzte. Baina niri behintzat ez dit balio, eta zalantzan jartzen dut. Bestela, gehiengoak horrela funtzionatzen du.

**H.E.** Dena den, sexualki denetatik dago.

**X.L.** Baina 60ko hamarkadan emakumearen plazerra ere sari bat bezala bozkutzen zen. Hau da, gi-

zonari esker emakumeak plazerra sentitzen zuen. Maskulinitatea frogatzeko balio zuen. Baina emakumeak plazerra lortzea zakil bat gabe oso gogorra da gizona koentzat.

**H.E.** Dena den, lagunaren artean 'ipar abantzamendua' deitzen diogunari beldurra diot. Duela gutxi nire lagun bat Eskandinavian egon da eta horietako neska batekin ligatzeko aukera izan zuen. Neskak gauzak garbi utzi zizkion ezer egin baino lehen, eta bota zion instrukzio liburua, zer egin behar zuen lehenengo eta zer zuen gustoko noiz, nola eta non.

**F.V.** Eta berak zer egin zuen?

**H.E.** Beldurtu.

**F.V.** Emakume horrek gauzak argi zituen baina ez gaude horretara ohituta. Zure lagunak egin behar zuena da bere instrukzio liburua bota eta biek gauza berbera nahi badute aurrera; eta horrela ez bada bakoitza bere aldetik eta listo. *Cosmopolitan* emakumea badago.

**X.O.** Baina emakumeari ere hanka sartzeko aukera eman behar zaio. Oraindik ez dakigu nora abiatu behar garen, emakumea bidean dago baina eurek ere nahas-te-borraste ederra dute.

**A.** *Gizonezkoak emakume berriaren beldur zarete?*

**X.O.** Gizonezkoai ukatu zaigu sentimenduen alorra eta askotan beldurra sentitu



## 29 zenbakia PLAZARA

ERREPORTAIA NAGUSIA:

«Parke Naturala Aralarren»

124 Posta kutxa ORDIZIA ☎ (943) 88 96 12

■ «Gizonezkoak aldatzeko beharra dugu, emakumeek eskatzen digute aldaketa hori» ●

H. ETXEBARRIA



arren ez dugu onartuko. Negar egiteko gogoia izan arren ez dugu horrela egingo, hori delako irakatsi digutena. Ahultasuna edota beste sentimendu batzuk onartzen ditugunean, ez hutsune psikologiko, sexual eta abar bezala, baizik eta gure per-

■ «Homosexua-  
litearen mamua  
egon badago  
mutilen arteko  
harremanetan. Nik  
behintzat badut» ●


X.LAKA

tsionalitatearen osagarri bezala, orduan jakingo dugu zer nahi dugun eta nolakoak izan behar garen.

**X.L.** Bazirudien gizonetz kook zaurtezinak ginela... nik ezin dut negarrik egin eta honek pena ematen dit. Eta uste dut sasigozoa izaten ikasi dudala. Barne eztabaida daramat, eta buruarekin hitz egin dezaket baina bihotzarekin ez. Izugarritzko mugak jartzen dizkot nire buruari.

**X.O.** Denok izan dugu inoiz negar egiteko gogoia, denok izan ditugulako tristorak. Gizonaren arima gizon horren buruaren pean bizi da, ezin ditugu gure sentimenduak azalerazi. Horren beldur gara gure sentimenduak adierazteaz... Horrela gertatu den bakoitzean aurpegiratu dizkigute hainbeste gauza: nena, marikoia...

**H.E.** Baina gizonetz kook aldaketen beharra dugu. Adibidez, gaur egungo nire lagunak ez dute zer ikusirik lehengo koadrilako lagunekin. Aukera bat egiten duzu beharren arabera eta une



honetan, nire kasuan behintzat, badaukat lagunekin hitz egiteko aukera hori.

**X.O.** Baina gertatzen da, halaber, lagunenean ere badagoela sentimendu horiek azaltzeko beldurra. Hau da, zure lagun bat zugana baletor arazoren batekin eta negarrez hasten bada, zu beldurtuko zinateke eta




egingo zenukeen aurreneko gauza kopa batera gonbidatzea litzateke. Ez zenioke utziko topatu zareten tabernan zure besaburuaren gainean negar egiten.

**X.L.** Lehen esan dudana, ezin dut negarrik egin eta gainera ezin dut jasan nire alboan inor negar egitea. Batzuetan uste izan dut, pentsa noraino heltzen di-

«Emakumeek behar dutena zera da: gizonetz kook biguinak baina une zehatz batean Bogartena egitea».  
Xabier Laka.



«Gizonak izaten ikasten dugu. Zientifikoki eta psikologikoki frogatua dago neska zein mutila izaten ikasten dugula».  
Fernando Villadangos.



«Gizonezkoei ukatu egin zaie sentimenduen alorra eta askotan beldurra sentitu arren, ez dute horrela adierazten. Negarrarekin berdin gertatzen da». Xabier Odriozola (ezkerreko argazkian).

ren nire mugak, negarra txantaia modu bat zela. Eta negarrak izan beharko luke sentimendu guzti horien ikurrina bezala, gozotasuna, sentimenduen ordezkatzaila bezala. Ez ditut gizon taldeak ezagutzen baina uste dut gizonezkook gure sentimendu eta bizipenetaz hitz egiteko esparruak behar ditugula.

**F.V.** Gizon taldea ez da beharrezkoa bizitza aurrera eramateko baina gizonezkook babestuta dagoen toki

bat behar dugu. Gizon taldeetan parte hartu dutenek askotan komentatu didate hori izan dela euren sentimenduak azaltzeko izan duten lehenbiziko toki eta aukera. Ez dut terapia bezala hartzen, baizik eta gizonek hitz egiteko antolatzen duten bilera moduan.

**H.E.** Baina negar egiteko esparru horiek nire lagunen artean aurkitzen ditut.

**A.** Dena den, neska lagunak eta mutil lagunak ber-

din tratatzen dituzue?

**X.L.** Nik izugarritzko zortea izan dut, nire lagun gehienak neskak direlako. Eta lagun hauek emakumeak direla konturatzea izugarritzko aurkikuntza izan da. Sexuaren osagarria kendu diot eta apreziatzen ditut lagun bezala, ez emakume bezala. Bestetik, informazio izugarria eman didate emakumeari buruz.

**F.V.** Ni konsziente izan naiz inguruko gizonekin ez nuela laguntasuna bultzat-

tzen, hau da, emakumeen oso lagun ona izan naiz baina gizonena ez. Honetaz ohartu nintzenean mutil lagunengana jo nuen eta gaur egun, oso lasai eramaten ditut harreman hauek. Orditik neska lagunekin ditudan harremanak birplantatu ditut. Neska lagun baten baliioaz ohartu naiz. Lehen prozesua desberdina zen, hau da, emakumea-laguna-sexu aukera, eta gaur egun, emakumea lagun eta pertsona bezala ikusten dut, eta gizona ere bai. Harrituta nago.

**A.** Horrek zer esan nahi du? Pasioa desagertzen dela?

**X.L.** Ez, baina gozotasunari lekua uzten diogu. Hau da, nik ez dut nahi pasio aukera hori galtzea, animalia zentzua galtzea. Norbaitek erakartzen banau, ez dut zertan hori ezkutatu behar.

**F.V.** Osagarriak dira gozotasuna eta pasioa.

**X.O.** Haiseran ez nien neska lagunak deitzen. Gero ohizko gizonezkoak ezagutu nituenean hasi nintzen neska lagunak izaten, baina gero gizonak alda daitezkeela ohartu nintzenean.



mutil lagunak izaten hasi nintzen eta gaur egun oso gustora nago, nire mutil lagunen eta nire artean ez dagoelako, oraingo, sexu aukerarik, sexuaren mamurik ez dago. Nire ustez, emakume batekin egoteak beti sexu aukera hori dakarrelako, eta ez nago lasai.

**X.L.** Nik ez dut aukera hori ukatzen, guztiz kontrakoa, nik ere, horrela erantzuten dudalako, emakumea-laguna-sexua aukera. Eta ez diot nire buruari alde 'basati' edo pasional hori ukatzen. Aukera guztiak zabalik uzten ditut: homosexualitatearen aukera, nire burua hiltzeko aukera edo une batean bortxatzaile potentzial bat izateko aukera.

**A.** *Gizonen artean laguntasuna ematen bada, homosexualitatearen mamua desagertu dela esan nahi du?*


**X.L.** Ez.

**H.E.** Ez.

**F.V.** Bai. Homosexualitatearen mamua, gizonen artean konfidantza egotea debekatu duen polizia da.

**X.L.** Mamu hori mantentzen da nigan. Gustatuko litzaidake horrela ez izatea, baina horrela da.

**H.E.** Kontaktua falta handia izan dugu. Nik 35 urte ditut eta nire ustez, orain bezala ez dut inoiz laguntasuna landu. Ez dut gaur egun dudan lagun kalitatea izan. Denborak langundu dit, orain arte ezin izan dut horrelakorik egin. Gaur egun epealdi horretan nago. Harritzen gara mutil lagun ba-



«Gizon taldea ez da beharrezkoa bizitza aurrera eramateko, baina gizonezkook babestuta dagoen toki bat behar dugu». Fernando Villadangos.

tekin konfidantza maila lortzen dugunean. Berria da. Nire neska lagunen laguna izanda ikasi dut nire mutil lagunen laguna izaten.

**F.V.** Nire esperientzia hau izan da: lagun homosexualak izan ditudanean eta euren egon naizenean, beldur hori galdu dut, beldur irrazional bat zelako. Mutil lagun bat izatea eta korporki aske egoten ikasi dut.

**X.O.** Nire mutil lagunekin segurtasuna daukat, mutil lagun horrek neska lagun

batekin harreman sexualak dauzkalako eta horrek berearekin lasai egoteko aukera ematen dit.

**X.L.** Nik bi lagunmin dauzkat, bat neska eta beste mutila. Mutilekin badut homosexualitatearen mamua, asko mugatzen nau. «Maitemindutako emakumeak» filmean badago gizonen arteko txantxetako borroka bat eta izugarri gustatzen zait bien arteko gorputzen kontaktua dela eta. Sexualki erakargarria da. Ludikoa da.

**X.O.** Baina, gizon eta emakumeen artean badaude tabu batzuk. Nire mutil lagunak uki ditzaket, ez dago sexu 'arriskurik'. Baina nire neska lagunak ukitzen baditut, olagarro bat naizela pen-

tsatuko dute. Umeak adibidez, ez dute sexu errepresio hori bizi eta eskolaurrian asko antzematen den gauza da. Mutilak beti daude bata bestearen gainean eta neskek ere. Nire ikasleek, mutilek, ukitzen naute gertu dagoen pertsona bat naizela jakiteko eta, gero, neskek ere ukitu naute. Eta izugarri gustatu zait sexu aukerarik gabeko kontaktu hori.

Gauza asko komentatu gabe geratu ziren eta mahainguru honetan komentatutako hainbat gai hemendik kanpo geratu dira, baina bertan bizi izan genuen esperientzia intentsoa izan zen.

■ «Nire neska lagunen laguna izanda ikasi dut nire mutil lagunen laguna izaten, eta azken honek harritzen nau» ●

H. ETXEBARRIA

**Myriam Gartzia**



# Bi urte sinesgarritasun eta arrazoiez

**GOARDIA** Zibila kotxeen matrulukari begira eta non ez zaion trena azaltzen, txu-txu-txu-rik gabekoa, «Egunkaria»-rena, martxa arinekoa, alaia, euskararen mezua zabaltzera datorrena. Altoa eman eta bide baztertera. Agur Ben-Hur, gureak egin du! Paperak, baimenak, honen zergatia, haren arrazoiak eman eta gero... hiru isun. Arazo legalak aitzakiatzat jarri eta Nafarroan ibiltzeko oztoporik jaso zuten «Egunkaria»-ko animatzaileek. Iruñean gertatu zen. Azpeitiko Antzerki Topaketetan gerta zitekeen berdin. Kale animazioa saiatzan duen obra baten erdian Goardia Zibila azaldu, eta bertako guztiak asaldatuko balitu. Eta horrelakoetan ezin *zapping* egin.

«Egunkaria»-ren trena geldiarazteko ahaleginetan azkena eta inozoena izan da Goardia Zibilarena. Anekdotak hutsa. Bi urte ondoren zenbat halako? Zenbat traba eta oztopo Euskal He-

rria, Ipar eta Hego biltzen dituen gauzatu gabeko egitasmo politiko eta kulturala, egunero, gainditu dituen trena geldiarazteko? Biba eta txaloak, animoak eta gizarte euskaltzalearen-gandik jasotako besarkadak gailendu dira baina, kazetaritza txukunez, nazional, baterakoi, zabal eta independentea izateko xedeari zuzen jarraitu dion «Egunkaria»-ren abiadura eta ibilbidean. Badago, hala ere, ulertzen zaila den errealitate ankerrik. Inkestek dioten arabera 40.000 irakurle jaso dituen euskarazko egunkaria ukatzera datozenen jarrerez ari natzaizue. EAEko Gobernuaren ikuspegi begi okerrez.

Ahaleginik egin da, elkarrizketak bideratu, beharrezko txosten eta argibideak eskaini, baina erantzuntzat Goardia Zibilaren antzeko isun mingarriak jaso dira: laguntza oro ukatu da, publizitate iturriak itxi. Bestelako egitasmoak haizatu, puztu eta gizen-

du direnean. Gipuzkoako Foru Diputazioak 50 milioi pezeta (2,5 milioi libera) luzatu izanak ageriagoan utzi du gainera, EAEko Gobernu honen itxikeria, hamar urte eta gero, euskararen normalizaziorako beharrezkoak diren jarrera ireki eta bateratzaileak ukatzera datorrena. Guzti honen eredutzat jo den «Egunkaria»-n ikastekorik badute, nahi izanez gero.

**BILBOKO** Nazioarteko Laburmetraien Zinemaldiaren inguruan malko ugari isuri dira, ohi denez. Laburmetraien errealitatea murrutik handiez es talitakoaren parekoa da. Kalitatezko lanak aurkezten dira, dudarik ez. Euskal zinemagileenak horietan barne. Ikusle gutxi ordea, urte osoan zinema aretoek aukerarik eman ez eta ezkutuan, irtenbiderik ez, aukera faltan dagoen arloa baitugu hauxe. Oinarriak huts egiten dio. Uzta berriaren trebaleku behar lukeena.

AEK-k bere 8. mintegia egingo du Nafarroako Aiegin, abenduaren 11, 12 eta 13an, «Herriz herri, auzoz auzo, urtez urte, pausoz pauso... AEK euskara berreskuratzen» lemapean. Mintegiaren helburuetan, euskalgintza alorrean elkarlana bultzatzeko aurrerapausoez, iraskasteko moduen azterketaz eta barruko funtzionamendu eta plangintza ekonomikoaz solasatu eta ondorioak emandako prentsaurrekoan. Guzti honen zehazteko 350 ordezkari bilduko dira Aiegin, azken hiru hilabeteetan egindako ekarpenen zehazteko orduan. Gaiaren jarraipen zehatzagorik egingo dugu datozen asteetan.





## TERMINOLOGIA

**Despotismo.** *Pertsona batek indarra, dirua nabiz agintaritzaz baliaturik besteei egiten dien gehiegikeria.*

Norbera bere zilborrari begira dagoela dioten horiei hamai-kagarrenez ezetz esan behar. Euskal Eskola Publikoaren Legearen atarian, sortu berria den Denon Artean plataforma horren lekuko. Hainbat elkartetk batera joko du honela, hezkuntza sektoreen parte hartzea ukatu eta goitik lerrotu den lege proposamen itxiari konponbiderako aukerak gehituz. Politiko-koen despotismoa salatzeraz datoz bidenabar. Ekimen herri-tarrekiko uste eta susmo ustelen babesean hazi dituzten argudio antzuak desegiteko ordua dela aldarrikatzera datoren plataforma berri honek, azken orduko esprintean irabaziko al ditu marathoi luzean entzungor ari direnen arreta? Egoerarik zailenean daude bederen, hasi orduko.

behetik ito antzera sumatzen da espaldion. Frankotiradoreen eremua bilakaturik irauten duen laburmetraien haria nonnahi eten daiteke, Bilboko Zinemaldiaren aurretik bezala atzetik babes eta sustapenerako erabakirik hartzen ez den neurrian. Ezertarako balio al dezake Zinemaldi honek urte osorako ahaztera kondenaturik badago gero maila honetan egiten dena? Sakoneko galderak azaleratzeko bederen, baliagarria gerta daiteke; berdin errealitate honen aldarrikatzeko; nazioarteko ekoizpenez jabetzeko ere. Iazkotik aurtengora eta datorrenera maila berean mantentzen den errealitate gordina- ren ispilu ez da bestela.

**J.J. Petrikorena**

## MIN TZO AK MIN TZO

# Hamaikagarrenari begira

**E**GINIKOAREN laudorioz beteriko ospakizuntzat aurkeztu nahi izan du hainbatek euskararen legearen hamargarren urtemuga. Jadanik famatu bilakatu diren 100.000 euskaldun berri horiengan finkaturiko baikortasuna hedatzeko mezua, ohi bezala, estadistikak eskeintzen dituen datuen egiazkotasuna ezin malgugo horren bidez. Informazioaren alde anitzen artean hautaketaren garrantzia. Titularraren indarra.

**UKAEZINEZKO** datu pozgarria dugu 100.000rena. Euskararen aldeko etengabeko lan ixil askoren fruiturik ikusten ez denaren sententzia no-nahi jaso dezakegu gaur egun. Etsipenerako tentazioaren aurrean indarrak berri- ta aurrera jarraitzeko moduko itxaropena eskeintzen diguna. Ez da urtebete honetarako opari txikia. Lortutakoa lor zitekeenarekin alderatuz gero? Operazio aritmetiko horretan legoke gutxienezko hausnarketa baten oinarria.

EAEko biztanleen artean administrazioaren hizkuntz politikarekiko konforme ez dagoen % 43 gutxietsiz, bereziki horien arteko ia erdiak gutxiegi egin dela adierazten duelarik, eginikoagatik eta batez ere garatu gabe, alperrik galduriko aukeren aurrean asaldaturik dagoen aurkako jarrera politikoiari begira ari da Jaur-larritza bere hizkuntz politika garatzen. Ez da kasualitatea izango, holakorik gero eta gutxiago, estadistikaren afizioaz multzokako zehaztasunak eskeintzea ofizio dutenen inkestagile horien aldetik ez jasotzea zeintzu diren euskaldunen arteko eritziak atal honi dagokionez. Interesgarria ez nonbait eta ezkutuan gorde beharreko datu esan-guratsua.



XABIER ALEGRIA

**GUZTIAREN** konponbide, elkarlana. Hitz majiko berria. «Konfrontaziotik aniztasunean oinarrituriko elkarlanera pasa behar da eta HPIN hala saiatuko da» esaten zuen hitzez hitz Mari Karmen Garmendiak duela bi astetako ARGIAN. Zaila litzateke egungo beharrak era egokiagoan laburbiltzerik. Esandakoaren borondate onari erabateko aitortpena zilegia den bezalaxe hitzen mamia eta hitzen gauzatzeari begiratzea ezinbesteko. Erantzunik gabeko galdera sorta luzeegia sortzen da berehala: Zeintzu dira elkarlan hori praktikan gara ez dadineko oztopoak? Nola irentsi daiteke halako deklaraziorik «Euskaldunon Egunkaria» bigarren urtemuga kolokan jartzen ari direnen aldetik? Zer arraio ari da gertatzen ikastolen mugimenduari berari akordio aukera guztiak itxi diezaioten, elkarriketak gauzaten ari direnean PNVk publikoki ukatzera ailegatzera? AEKren 8. Mintegiaren atarian duela hamar urteko esperim-entua errepikatzeak asmotan?


«Erakundeen kontrako eta bortizkeriaren aldeko jarrerak oso zaildurik du elkarlana- zioen Deiak azaroaren 17an. Ildo beretik erantzun zuen Mari Karmen Garmendiak «Ados?» teleaioan Hendaia- tik elkarlana bideratzearen beharraz luzaturiko galderari. Elkarlanak aniztasunaren onartze bene-benetakoan du oinarri. Hitzetan baino el- karlanerako zinezko aukeretan zehazten dena. Euskararen aldekoen artean oso ja- rrera aldeko- interes handiko duen % 9 horrekin batera ibiltzeko parada eskeinko duten ezinbesteko baldintzak bete behar dira, bidea garatzeko indar berria aurkitu nahi izatekotan.



«Yehuda», Jose Mari Velez de Mendizabalen azken lana kalean

# «Jendea zaletzeko moduko liburuak behar ditugu, klabe errazekoak»

**A**rma salmentaren inguruan kokatu du Jose Mari Velez de Mendizabalek bere azken liburua. Mundu osoan barrena, aireportu batetik bestera garamatza. «Yehuda» da giltzarria. Zehaztapen gehiagoren bila jo dugu berarengana eta hainbat konturen inguruan mintzatu zaigu.



**ARGIA.** *Aspaldi hasi zinen idazten.*

**JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL.**

Lehenengo artikuluak 1974ean idatzi nuen, «Zeruko Argia»-n, Donostiako zezen plazari buruz, umorezko klabean. Lehenengo li-

burua geroago etorriko zen, 1979an.

**A.** *Nola hasi zinen azken liburu honekin?*

**J.M.V.** Etxeko ordenagailua estreinatzean egin nuen lehenengo orria. Arkatzetik ordenagailura saltoa emateko lagundu zidan. Pretentsio

handirik gabe, horrela hasi nintzen. Nik uste, kalean, autobusean... tarte libreetan irakurtzeko moduko liburuak dela.

**A.** *Lanbidez asko bidaiatu beharrak lagunduko zizun liburuko hainbat pasarte idazteko garaian.*

**J.M.V.** Liburuan zehar islatzen ditudan hainbat esperientzia aireportuetan jasotutakoak dira, eta gehienak bizitza izandakoak dira. Esate baterako, Lyonen gainean egiten dudana deskribapena nahiko zehatza da. Bezero garrantzitsuak dauzkate mundu osoan zehar eta liburuan asko agertzen dira.

**A.** *Idaztean ondo pasatzen duzula esan daiteke orduan.*

**J.M.V.** Egunero ordu asko ematen ditut lantokiko bulegoan sartuta, eta etxera iristen naizenean nolabaiteko ihesbidea da idaztea. Esate txarra lumaren bidez botatzen dut. Lasaigarria da burua beste zerbaitetan jartzeta.

**A.** *Momentu bonetan ba al*



duzu esku artean beste lanik?


**J.M.V.** Oraingoz lan honi jarraipenik egiteko asmorik ez daukat, atsegina izan da, besterik gabe. Beste zerbait badaukat ordenagailuan sartuta, baina kontakizun laburrak dira, askoz patxada handiagoz irakurri beharrek.

**A.** Darabilkizun kontatze-ko moduari buruz, zeri ematen diozu garrantzirik handiena?

**J.M.V.** Bizitasuna, eta gertaerak bat bestearen atzetik ematea izan da egin dudana ahaleginik handiena. Normalean askoz astunago idatzi izan ohi dut eta oraingoan hori izan da gehien zaindu dudana. Arin idazten saiatu naiz.

**A.** Eleberri beltzak ba al du aparteko garrantzirik?

**J.M.V.** Normalean egiten diren lanak intimistagoak dira. Beharra dago euskal literaturan gauza arinak eta errazagoak egiteko. Jendea, eta gazteei batez ere, kontakizun irakurgarria eskaini behar zaizkio. Klabe errazeko liburuak behar ditugu, jendea zaletzeko modukoak. Gauza errazak irakurtzeko joera bultzatu behar da, gazteen artean batez ere. Beste liburu batzuek, berriz, beldurra ematen didate. Gehiegizko zailtasuna duten liburuak, susmoa dut, aitzakia bilaka daitezke irakurle berrientzat euskaraz ez irakurtzeko. Gehiegizko zailtasun hori kontraproduzentea izan daiteke. Hizkuntza eta tematika aldetik zailtasuna neurtzea beharrezkoa dela uste dut.



«Gehiegizko zailtasuna duten liburuak, susmoa dut, aitzakia bilaka daitezke irakurle berrientzat euskaraz ez irakurtzeko. Gehiegizko zailtasun hori kontraproduzentea izan daiteke. Hizkuntza eta tematika aldetik zailtasuna neurtzea beharrezkoa dela uste dut».

Momentu honetan jendea zaletzeko moduko liburuak behar direla uste dut.

**A.** Zer aurkitzen diozu idazteari?

**J.M.V.** Plazerra, zalan-tzarik gabe. Nire bizitza profesionaleko estuasunetik aldegitoko aukera ematen dit. Gauzak poliki egitea gustatzen zait. Duintasunez lan egitea funtsezkoa da.

**A.** Orain dela urte batzuetako euskal literaturarekiko zer aldatu da?

**J.M.V.** Argi batzuk distira

bereziz ari direla ikusten da, eta hori pozgarria da. Noraezan galduta ez gabiltzan seinalea dela uste dut. Lehen gureak zertarako balio ote zuen galdezka ibiltzen ginen, gaur egun hori gaindituta dago. Dagoeneko, balizko irakurleek baldintzatzen dute literatura, eta ez produzitzeko ahalmenak. Ia denetik egitea tokatu zaigunoi ere espezializazio batera jotzeko garaia iritsi dela esango nuke. Eta aldi berean, jende gazteari aukera berriak bilatu behar zaizkie, eta asko lagundu. Idazle berriak falta dira, agian betikoek leku hori betetzen dutelako. Bide berriak jorratu behar dira, eta gazteentzako argitaletxeak

eta argitalpen berrietarako bideak urratu. Gaurko zabalkundea lehengo idazleengan oinarritua dagoela ematen du, eta eskema berriak bideratu behar dira.

**A.** Gerora begira zer hartu behar luke kontuan euskal literaturak?

**J.M.V.** Kantitatetik kalitatera pasatu beharra daukagula uste dut. Eta horretarako azpiegiturak behar dira. Berehalako irtenbidea eman behar zaio jende berriari lanak argitaratzeko. Argitaletxeetatik sortu beharko luke mugimendu berriak, behar izanez gero instituzioek lagunduta.

■ «Gaurko zabalkundea lehengo idazleengan oinarritua dagoela ematen du; eskema berriak bideratu behar dira» ●

**Patxi Sarriegi**



Abenduaren 13an izango da finala Iruñeko Gaiarre antzokian

# Nafarroako Haur Kantu Txapelketa: kantua suspertu duen ekimena



Guztira, ikastola nahiz eskoletako ia 800 haur mugitu ditu kantu txapelketak Nafarroa osoan.

**A**zken hilabetean kanporaketak egin ondoren, 23 haur iritsi dira Nafarroako Haur Kantu Txapelketako finalera. Haur mailan, kantua suspertzeko ahaleginek eman dute bere fruitua, publiko aldetik arrakastuak izan diren kanporaketa hauetan. Kantu herrikoia ren gorakada nabarmentzen ari da Nafarroan.

**AZAROAREN** 14ean izan zen Lekunberrin 3. Haur Kantu Txapelketako lehenengo kanporaketa; eta hil honen 13an, Iruñeko

Gaiarre antzokian izango den finalean arituko dira sailkatu diren 23 partehartzaileak.

Bitartean, beste bi kanporaketa ere burutu dira, bat Lizarran eta bestea Donezteben. Andoni Sagastibeltza Euskal Kantuzaleen Elkarteko kidea da eta Nafarroako txapelketaren antolatzaileetarikoa bat. Berak azaldu digunez, *«finalerdiak eskualdeka egiten dira, eta bertan zonaldeko eskola eta ikastoletako haurrak aritzen dira»*. Beraz, txapelketa hau, OHOk seitek hamalau urtera bitarteko haur nafar guztiei irekia dago.

Bi sailetan banaturik dago txapelketa: lehena, sei eta bederatzirte bitarte dauden gaztetxoek osaturikoa; eta bestea hamar eta hamalau bitartekoek osaturikoa. Bi sail hauetan, partehartzaileak hiru ataletan banatzen dira: banakakoa, bikoteena eta taldeena. Par-taide edo talde bakoitzak, hori bai, euskaraz den pieza bakar bat kantatu behar du eta instrumentuak erabil di-



tzake, horrela nahi izanez gero.

Hala ere, eta Andoni Sagastibeltzak esan digunez, «kantuak dira, eta ez instrumentuak, epaimahaia k gehien kontuan hartzen dituen». Aurten, lau pertsona hauek osatzen dute epaimahaia: Fermin Iriarte, Eusebio Izeta, Nerea Muruamendia eta Mikel Juaniz; laurak musika munduan adituak. Hauen lana partaide bakoitzaren kantuak puntuen bitartez islatzea da, eta eginbehar hau burutzeko irizpide hauek baliatzen dituzte: doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa eta kantuaren erakarpena.

«Erakarpena» izeneko sail honetan, kantuaren originaltasuna edota kantutegi zaharretatik berreskuratze eta plazaratze lana baloratu nahi izaten da, baina hau oso subjektiboa denez, urte honetatik aurrera epaimahaia iritzi bakan bat azalduko du. Azkenik, esan behar da modalitate bakoitzeko lehenengo biak izaten direla sarituak, lortu dituzten puntuen arabera.

Bestalde, udaberri partean Euskal Herriko Txapelketa izanen da eta bertara herrialde bakoitzeko lau ordezkari joango dira.

## Kantagintza hedatu

Ordezkariek ez dute izan behar herrialde bakoitzeko garaileak nahitanahiez, epaimahaia aukeratzen dituen hiru baizik. Laugarrena publikoak aukeratzen du.

Txapelketaren mugimendu guzti hau duela sei urte hasi zen Nafarroan. Kantu munduan hutsune bat zegoela ikusirik berau suspertzeko txapelketa hauek an-

Andoni Sagastibeltza, Haur Kantu Txapelketako antolatzailea:

## «Euskal kantagintzan baikorrak izateko lehen urratsak ematen ari gara»

**ARGIA.** Zer da Euskal Kantuzaleen Elkarte? Zeintzuk dira bere helburuak?

**A. SAGASTIBELTZA.** Elkarte berri hau Euskal Herriko kantuzale guztiak elkartzeko asmoz sortu da. Bere helburu nagusia zera da: Euskal Herrian kantatzeko ohitura zaharra bultzatzea; gaur egun oso gutxi kantatzen baita.

Konkretuki, elkarte honek kantu txapelketen bideratzea eta sortu berriak diren musika taldeen promozioa hartuko lituzke bere gain. Kantuzale eta talde anitz baitaude gure herrian, baina zoritxarrez, promoziorik ez.

**A.** Instituzioen aldetik di-



rulaguntzarik jasotzen al duzue?

**A.S.** Aurten Nafarroako gobernuak dirulaguntza eman digu; baina hori ez da Nafarroako Elkartearen aurrekontuaren erdira ere iristen.


**A.** Bertsolaritzan gertatzen den legez, txapelketek ba-

lio al dute kantua bultzatzeko?

**A.S.** Txapelketak eta kompetentziak jende gehiago erakartzen du, eta neurri horretan balio dute. Dena dela, ez da ahaztu behar horrek ere sortzen dituela zenbait arazo.

**A.** Nola ikusten duzu euskal kantuaren egungo egoera? Eta etorkizuna?

**A.S.** Esan dudan bezala, kantatzeko ohitura galtzen ari da. Honen erruduna, neurri handi batean behintzat, gaurko musika dugu. Leku askotan ezin da hitz egin ere. Nik uste dut baikorrak izateko lehen pausoak ematen ari garela.



Nahiz eta gaur egun kantuaren ohitura ahaztu samarra egon, antolatzaileak baikor azaltzen dira etorkizunera begira, haur mailan ematen ari diren urratsek urte batzuek emango dituztelakoan baita daude.

tolatzen hasi zen zaletu talde bat. Egin zen lehenengo hartan haur eta helduek elkarrekin egin zuten lehia. Baina mailak ezberdindu behar zirela ohartu zirenean sortu ziren txapelketa bereizirik.

Hauek dira txapelketa hauen helburuak: lehenik, euskal kantagintzaren hedapena eta berau haurrei erakustea. Bigarrena, kantuzaletasuna haurrengan piztea. Azkenik, kantuaren bidez haurrak hezitzea.

Musikaren gaia ez da txantxetako haurren heziketan, erritmoak eta kordinazioak haurrengan oreka mantetzen izugarri laguntzen baitute.

Sei urte hauetan antolatuak dituzten txapelketek lortu dutena bai-





Prestakuntza ez da behar bezain ona, eta horren ondorioz kantuen maila ez da antolatzaileek nahiko luketen adinakoa.

BIDEO ETA FILMEEN  
OZENKETA

AHOTS AUKERA  
HOTS DIGITALAK  
MUSIKAK

SINTONIAK—MAKETAK—MEZUAK

**ZBI**

BIKOIZKETA GRABAKETAK

San Roque Auzoa, 15

☎ 45 46 55 - 45 96 29

Fax: 46 29 64

20009 DONOSTIA

korra izateko modukoa da: egun, ia 800 haurrek parte hartu dute txapelketako arlo ezberdinetan eta partaide-tza urtetik urtera gorantz doa. Maila aldetik, ordea, ez da horren baikor azaldu Andoni Sagastibeltza: «Kan-

■ **Lekunberri,  
Lizarra eta  
Doneztebeko  
kanporaketetan,  
aretoak jendez  
gainezka azaldu  
izan dira ●**

*tuak azken orduan prestatzen dira eta txapelketa batek denbora minimo bat behar izaten du paper ona egin nahi bada». Hementxe dute datorren urteetarako erronka nagusia, nola bideratu zaila baldin bada ere.*

Hala ere, herrialdeen artean badaude ezberdintasun nabariak. Ipar Euskal Herrian, esate baterako, kantagintza ikaragarri nabarmendu da. Erraztasuna eta trebetasuna daukate, eta batzuek, frantsesez hitz egin arren, euskaraz kantatzen dute. Gazteek ere kantu zaharrak abesteari eusten diote, hegoaldean gertatzen ez den bezala.

Publikoaren erantzuna, dena den, aparta izan da ia saio guztietan aretoak jendez gainezka azaldu baitira. Guzti honek, baikorra izateko arrazoiak ematen ditu, eta lan honen uzta datozen urteetan jasoko delakoan daude antolatzaileak. Euskal kantuak, Nafarroan bederen, bizirik dirau.

**Iñigo Herce**  
**Ander Usabiaga**



# SUTTA GAR

+ BIHOTZ ERRE

## O I A R T Z U N

Madalensoro . 1992.eko ABENDUAK, 19 - Larunbata  
Gaueko 10 t'erditan




Oiarzungo Udala

Antolatzailea



Laguntzaileak



SARRERAK SALGAI:

OIARTZUN Amasoko Taberna, Madalensoro,  
DONOSTIA. Bileren Argia, Frutak, Karikari, Musikarte, Berrig  
ERRETERIA, Arantzeta IRUN, Berrito Hip, Centro Musical  
LESAKA, Zuzen BAIONA, Zabai Liburutegia.



# Duguna taldeak arropa berriez janzten ditu ohitura zaharrak

**H** amaikatxo dantza bildu ditu Iruñeko Duguna taldeak 1949an sortu zenetik. Nafarroako folkloreaken uzta oparoari erreparatzen diote batipat. Galdutako nahiz ahaztutako hainbat doinu, martxa eta ohituraren aztarnetatik abiatu eta ikuskizun erakargarri eta biziak lotzea dute helburu. Guzti honen adierazi asmoz, aste kulturala antolatu dute Iruñean, euren egitasmo berrien nondik norakoa emateko ere baliatu dutena.


**AZAROAREN** 23tik 29ra bitartean antolatu duten «Duguna 1. Kultura Astea»-ren aterbean, euskal

dantza eta moralari buruz nahiz Luzaideko eta Berastegiko ihauteria eta dantzez aritu dira. Patxi Laborda,

taldeko partaideak dioenez, «orain artean, *han bemenka berreskuratutako lanak taula gainean erakutsi bai-*

*no ez genuen egiten. Dantza eta ohiturak biltzen burututako saioen berri ere eman behar genuelakoan geunden. Galtzeaz daukagun folklore altxorren garrantzia azpimarratu eta horri buruz jardun dugu, beraz». Hain zuzen ere, Berastegikoak duela 15 urte galdutzat eman ondoren Tolosako Udaberri dantza taldeak berpiztu zituen. Luzaideko «Karroxak»*

Folklorea oinarritzat harturik espektakulu berriak jorratzera jotzen dute Duguna taldekoek. Kalitatea eta teknikari erreparatuz landu ohi dituzten emankizunak horren adierazgarri dira.





—ihauterietan egiten zen ikuskaria—, 1929an egin omen ziren azkenekoz. *«Bertako apaizarengana jo eta bildutako datu apurrez, eta ikusle izandakoengandik entzundakoez osatutako emankizuna zertan izango den adierazi dugu Kultura Astean».*

Azaroaren 29a, San Saturninoren eguna, Duguna sortu zenekoa, urtero dantza berriren baten aurkezteko baliatzen dute. Duela hiru urte, Tolosan jasotako «Bordon dantza», eta iaz, Legazpiko hainbat dantza ekarri zituzten Iruñera. Aurten, Berastegikoak aurkeztu dituzte, *«beti ere, folklorea oinarritzat jo eta ikuskizun bereziak egiten saiatuz».*

## Formula berriak frogatuz

Emanaldietan ikuskizunak erakustea dute helburutzat; beraien ustez, dantza munduan, purismoa ez baita kalitatearen sinonimoa. *«Kultura Astean egindako mahainguruan honen gainean jardun genuen, bi iritzi kontrajarri azaleratu zirela: zein da taldeen helburua? Batzuek dantzak bere horretan, aldaketarik egin gabe, zabaldu behar direla diote. Gure iritzi, folkloretik abiatu eta formula berriak saiatu behar dira, teknikari garrantzi berezia emanaz».* Hau dioen Patxi Labordak, euren ikuskizunaren oinarria zertan den zehaztu digu segidan: *«Gure emanaldiak ordubete ingurukoak dira, hamarretik gora dantza*

## Urtetako dantza pausoak

**IRUÑEKO** Udalaren eskutik eta Patxi Arrarasek zuzenduta, 1949. urtean, Udal honetako dantza taldea sortu zen. 1955ean hasi ziren lehenengo aldiz taldean neskak dantza egiten, eta 60ko hamarkadan ekin zioten atzerrira irteteari.

1987an taldea desegin zen ikurrinaren inguruan Udalarekin sortu ziren ezadostasunen ondorioz. Baina ez zuten etsi eta handik urte batera Duguna izena hartu zuen taldeak, hasierako urratsetan an-

tzezten zuten ikuskariaren oroimenez.

Emanaldietan erakusten dituzten dantza asko aldatu egin dira urte guzti haue-tan. Lehen, Nafarroa Behereko ihauteria, Bizkaiko ezpata-dantza, Baztango mutil-dantzak, eta Lesakako makilgurutzak dantzatzen bazituzten, gaur guzti hauek hobetu eta osatu dituzte beste berri asko erantsiz. Hauen artean Iruñeko thun-thun eta Urdiaingo giza-dantza dira aipagarriak, Dugunakoak baitira dantza estilo hauek lantzen dituzten bakarrak.



**Euskal Herriko bazterretatik landa atzerriko hainbat lekutan aritu izan dira. Argazki honetan, Okayamara egindako txangoa gogorarazten digute.**

*sartzen ditugula, bata bestearen segidan, esketxak bailiran. Erritmo bizia eta ikusgarritasunari erreparatzen diogu bereziki, egin beharreko moldaketak ildo bonetatik bideratuz».*

Astero hamar orduraz emantseiatzen duten 120 dantzari-ek oso argi dute hori dela jarraitu beharreko bidea, dantzaren teknika menderatu eta kalitatezko saioak erakustea. San Saturnino egunaz gain, ihauterietan ere, emanaldi berezietara ohituak gauzkate Dugunakoek. Aurten, Lantzekoak jorratu dituzte; datorrenekoak Luzaidekoak izango dira, «Karroxak» izenez ezagutzen direnak berreskuratu baitituzte okasio

horretarako. *«Honen antzera, hainbat obitura galduta edo galtzear daude, eta gure asmoa horien arrastoari jarraitzea da, Nafarroan bezala Euskal Herri osoan».* Beti ere, zaharretik gauza berriak sortuz. Emanaldiak Nafarroan egiten dituzte batipat, horrezaz gain Bizkaian ere nahikoa ezagun egin direla. *«Aurten, Expo 92 barnean ospatu zen Nafarroa egunean «Amalur» ikuskizuna, eta independentziaren alde Bilbon egin zen manifestaldian ere erakusterik izan dugu gure ekarpena».*

Euskal dantza eta kultura zabaltze nahi horrek Japon eta Ingalaterraraino eraman du Duguna taldea. Iaz, Okayamako nazioarteko jaialdian Europako talde bakarra izanik arrakasta handia lortu zuen, eta bitxikeria moduan, ikusleak irrintziak eta oihuak entzutean txun-

diturik gelditu zirela kontatu digute. Aurten, Cleveland konterriko «Intertie» jaialdira abiatu ziren uztailean, banatzen ziren sei sarietatik hiru lehenak lortuz.

Nahiz eta momentu txar-rrak igaro dituen, eta Nafarroako gobernutik inolako dirulaguntzarik jaso ez arren, 1949. urtean sortutako talde hau aurrerantz doa etengabe. *«Duela 5 urte, Iruñeko Udalarekin ikurrinaren kontura izandako istiluen ondoren Administrazioaren aldetik gaizki ikusiak gaude, eta hau gauza larria da, bots, folklorea eta politika nabastearena. Horrez gain, datozen urteotan jende gaztea erakar-tzen ere lanik izango dugu, dantza baino maiteago baitituzte beste kontuak».*

**Ixiar Rozas**

**J.J. Petrikorena**

**■ Galtzear dauden dantzak eta ohiturak berreskuratu eta Iruñera ekartzen dituzte San Saturnino eta ihauterietan ●**




135




**EKO ASTEASU**  
Keelavite poligonoa z/g  
ASTEASU




**EKO VILLALBA**  
San Juan Kalea, 9  
EIBAR



**EKO TOLOSA**  
Zumalakarregi kalea, 4  
TOLOSA



**AUTOSERVICIO GORA-BERA**  
Agerretxe Ibilbidea  
DEBA




**EKO EUOMAR**  
Nafarroa ibilbidea, 37  
ZARAUTZ




**SUPER ANDONAEGUI; C.B.**  
Andonaegi kalea, 10  
SAN PEDRO - DONOSTIA



**MERKEK IGLESIAS**  
Azkuene Kalea, 12  
TRINTXERPE




**SAN JUAN BAUTISTA  
KOOPERATIBA**  
Villas auzoa  
HERNANI



**EKO IRUN**  
Blas de Lezo, 22  
IRUN



**EKO LEZO**  
Avda. Jaizkibel, 1  
LEZO




**EKONOMATO ORBEGOZO**  
C/ Eliz-Kalea, 1  
ZUMARRAGA




**SUPER RENTERIA**  
Vicente Elicegei kalea, 5  
ERRETERIA



**EKO BERAUN**  
Galtzaraborda Etorbidea, z/g  
BERAUN - ERRETERIA



**EKO ERREKONDO C.B.**  
Zigordia kalea, 7  
ZARAUTZ



**EKO LEGAZPIA**  
Urola s/n  
LEGAZPIA



**SUPERMERCADO SOKOA, C.B.**  
Sokoa Merkatalgunea, 7  
Hirigintza (ARABARKA jaietxearen atzean)  
HONDARRIBIA




**BETI MERKEK**  
Loiola kalea, 12  
DONOSTIA



**EKO ALTZA**  
Larraxo Ibilbidea, 96 zbk.  
ALTZA



**EKO VILLALBA**  
Torres Urquizu kalea, 13  
EIBAR



**EKO AIETE**  
Etxaidi Saita  
AIETE - DONOSTIA



**BASTIDA**  
Erdiko kalea, 32  
MUTRIKU

**ZURE ETXE ONDOAN**



**EKO**



**SUPER IZTIETA**  
San Sebastián kalea, 16  
ERRETERIA



# Al Pacino itsutua maitasunaren bila

**G**assman-ek «Profumo di donna» filmean egiten zuen paper berbera eraman du pantailetara Al Pacinok «Scent of a woman» remake amerikarrean.

Protagonista gerran itsututako koronela da, asteburu ero batez New Yorkera maitasunaren bila abiatuko dena.

**ESTATU** Batuetan abenduaren 25ean, eta Europan otsailaren bukaeran estreinatuko da «Scent of a woman» Martin Brest-ek zuzendu eta Al Pacino aktore nagusiak honela definitu duen filmea: «Maitasunari buruzko filmea baina obizko maitasun istoriorik gabekoa; emakumeari buruzko filmea baina emakumerik gabekoa».

Gaia —elbarritu ondoren bizitzari aurre egin behar dion pertsona— ez da berria pantailetan eta, kasu honetan, argumentoa ere ez da landu gabekoa Universal etxeak Dino Risi zuzendariak 1974ean filmatutako «Profumo di donna» filmearen eskubideak erosi baitzuten oraingo remake hau egin ahal izateko.

Jatorrizko bertsioko Fausto kapitaina Frank Slade koronela bilakatzen da bertsioko amerikarrean, Al Pacinoren esanetan bizitzaren filosofia oso argia



duen pertsonaia: «Gauza bi besterik ez daude gizon bati bizitza jasaten lagun diezaioketenak: emakumea eta, neurri askoz apalago batean, Ferrari bat».

Michael Corleoneri bizitza eman zion aktorea oso pozik agertu da nortasun berriarekin, esker oneko pertsonaia izan omen baitzaio. Egia esan, hala izan behar du, ohizko jarrera aldatuz, promozio kanpaina egiteko Europara etortzea onartu baitu Al Pacinok.

**J.M. Heritz**

Z I P R I Z T I N A K



## «Edouard II», D. Jarman eta homosexualitea

Hamalaugarren mendeko errege britaniar homosexuala da Derek Jarman zuzendariaren azken lanaren protagonista. Filmea, 1592an Christopher Marlowk idatzitako antzerkiaren bertsiolibrea da, umore eta probokazio dosi handiekin, eta bidea ematen dio Jarmani Britania Handiko egungo homosexuali eta errege familiar buruzko gogoeta egiteko.

## Mishima-ren gidoi bat agertu da

Akira Oda zinema zuzendariak ezagutzera eman du filme gidoi baterako Mishima idazleak zinta batean grabatu zituen ideiak. Azaroaren 25ean bete ziren hogeitabi urte idazleak antzinako gudarien modura bere buruaz beste egin zuenetik eta urteurrenaren aitzakiaz azaldu da jendaurrera Odak berak enkargatu zion lan bukatugabe hau.



ABENDUAK

11

## ■ TEKNOLOGIA BERRIAK AZTERTUKO DIRA BILBON

BILBOKO Merkatal Ganbaran burutuko dira abenduaren 11tik 15era bitarte, **Ikusmen Semiotikako Nazioarteko Elkartearen** bigarren biltzarra eta **Semiotikako 4. Nazioarteko Ihardunaldiak**. Teknologia berriak eta ikusmen gaitasuna aztertzea dira jardunaldi hauen helburu nagusia.

## ■ ESKULANGINTZA AZOKA TOLOSAN

IBAI-ONDO elkarteak antolatuta, zenbait eskulan ikusteko aukera izango da Tolosan, abenduaren 11tik 13ra arte. **Bi erakusketak** osatuko dute Eskulangintza Azoka: bat Ferialekuan muntatuko da, eta bestea Beotibar Pilotalekuan.

## ■ DALI ARTISTAREN ALTZARIAK BILBON

ABENDUAREN 12 arte ikus daiteke Bilboko Barreinkua kalean dagoen «Daliren altzariak» erakusketa. Salvador Dalik **bere ikuspegitik landutako altzariak** osatzen dute erakusketa: ez-pain itxurako zizailu bat, bizkar bihurriko aulki bat, lanpara bitxi bat edo errinozeronte itxurako tiradorea. Altzari surrealista hauek, margolariaren obretan agertzen diren forma geometriko eta bihurriak dituzte.



**DANBA** taldeak joko du abenduaren 19an Arrasateko poliki-roldegian. Gaueko 10etan hasiko da kontzertua eta sarrerak 500 pezeta (25 libera inguru) balio du. **Soziedad Alkoholika** eta **Parabellum** taldeek ere parte hartuko duten kantaldi honetan, «**Frango funts**» bere azken diskoa aurkeztuko du Danba laukoteak. (Argazkia: Ikor Kotx).



**JUAN MARI LEKUONA** arituko da «Gaurko euskal poesia» jardunaldietan, abenduaren 17an Gasteizko Filologia Fakultatean. Goizeko 11etan izango da hitzaldia; eta jardunaldiak Gasteizko Euskal Filologia Sailak antolatu ditu Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz.

ABENDUAK

12

## ■ SU TA GAR TALDEA ZALDIBIAKO PILOTALEKUAN

SU TA GAR taldeak Zaldibiako pilotalekuan joko du abenduaren 12an gaueko 11etan. Kontzertu hau egin eta gero Bolibar herrian arituko da Eibarko laukotea **Taupada** taldearekin batera, abenduaren 18an gaueko 11etan. Ondoren, abenduaren 19an Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan izango da Su Ta Gar. Gaueko 10.30etan hasiko da zuzeneko emanaldi hau, eta bertan, **Bihotz Erre** taldeak ere parte hartuko du.

## ■ HERTZAINAK TALDEA IRUÑEAN ZUZENEAN

HATOR Euskalerrira Kultur Etxeak antolaturik, Iruñeko Anaitasuna aretoan joko du Hertzainak taldeak abenduaren 12an. Kontzertu honetan, La Polla Records taldea ere arituko da, eta bertan izango da **Hertzainak zuzenean ikusteko azken aukeretako bat**. Talde honen azken lana, Durangoko Azokan aurkeztu den «Denboraren orratzak» izenburua duen lana da.

ABENDUAK

15

## ■ PELLO ALBERDIREN MARGOAK MADRILEN

MADRILEKO La Kabala arte galerian ikusi ahal izango dira abenduaren 15a arte Pello Alberdiren obrak. Elgetako pintore honek hainbat sari jaso ditu; eta **estilo abstraktoa** jorratzen du, erakusketa osatzen duten obrek adierazten duten bezala.



ABENDUAK  
**15**

## ■ «AMERIKA ETA EUSKALDUNAK» ERAKUSKETA MARTXAN

GASTEIZKO Amerika aretoan zabaldu zen azaroaren 19an, datozen hilabeteetan **Donostian eta Bilbon ere** izango den «Amerika eta euskaldunak» erakusketa. Abenduaren 15a arte egongo da Amerika aretoan lau sail nagusi hauetan banatzen den erakusketa ibiltaria: XV. mendearen aurreko Amerika eta euskaldunei buruzko aurkezpena, XV. mendetik hona Amerikako euskaldunen presentziaren berri ematen duen saila, ikusentzuteko muntaia, eta datu-basea.

## ■ DONOSTIA HIRIA ANTZERKI SARIA

ABENDUAREN 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte beren lanak Donostia Hiria antzerki gidoi sariketan parte hartu nahi duten antzerkigileek. Antzerki lanaren iraupenak **75 eta 120 minutu** bitartekoak izan beharko du.



**IMUNTZO** eta Beloki bikoteak parte hartuko du abenduaren 13an Zumarragako 5. Trikitixa Jaialdian. Beloki pilotalekuan, arratsaldeko 8.30etan izango da ekitaldia, eta bertan Zabale Anaiak, Laja eta Landakanda, Errekalde Anaiak nahiz Zabaleta eta Imanol bikoteak ere arituko dira. (Argazkia: Carlos Villagran).

ABENDUAK  
**16**

## ■ SAENZ DE GORBEA BILDUMA IGORREN

BILBOKO Windsor Galeria martxan jarri zuen **Miguel Saenzen omenaldi gisa**, abenduaren 16a arte ikusi ahal izango dira Igorreko industrialdean, Saenz de Gorbea bilduma osatzen duten lanak. Ehun artista baino gehiagoren obrak daude bilduma honetan. Picasso, Le Groumellec, Oteiza, Chillida, Mendiburu, Balerdi, Zumeta, Gortazar, Candaudap artistarenak, besteak beste.



**KAFE ANTZERKI** Zikloa burutuko da abenduaren 10etik 13ra bitarte, Tolosa, Lasarte, Erreterria, Andoain, Donostia eta Hernanin. Aurten, Dar-Dar taldea, Tatam Club, Marcelino e Silvestre italiarrak, eta Fernando G. Kortazar Mexikon jarduten duen artista gazteiztarrak parte hartuko dute.

ABENDUAK  
**17**

## ■ MARIA DOLORES PRADERAREN KANTALDIA BARAKALDOKO ANTZOKIAN

BARAKALDOKO Antzokian abenduan izango diren ekitaldien artean, Lars Von Trier-ek zuzendutako «Europa» filmea ikusteko aukera izango da osteguna den abenduaren 17an. Ostirala eta larunbatean, **Karraka** antzerki taldeak «Hoy, ultima funcion» muntaia aurkeztuko du; eta Abenduaren 20an Maria Dolores Pradera kantari ospetsuaren zuzeneko emanaldia ikusteko aukera izango da.


ABENDUAK  
**18**

## ■ ARTE TOPAKETETAKO LANAK ARTELEKUN

SALAMANCAKO Arte Ederretako Fakultatea, Bordeleko Ecole des Beaux Arts eta Artelekuren arteko topaketetan parte hartu zuten artisten lanak osaturiko erakusketa, abenduaren 18an arratsaldeko 7.30etan zabalduko da. Lanegunetan, **8.00etatik 20.00etara** ikusi ahal izango dira obra hauek, Artelekun, urtarrilaren 29ra arte.



## L I B U R U A K



«SUSA». 29.  
ZENBAKIA. 32 orr.

POLIZIA da literatur aldizkari honen azken zenbakiaren gai nagusia. Bertan, Jose Luis Otamendi, Joseba Sarrionandia, Andoni Tolosa, Mikel Elortza, Amagoia Gurrutxaga, Fermin Muguruza, Andres Gostin, Bego Montorio, Itxaro Borda eta Xabier Olarraren idazlanak aurki daitezke. Baita Arantxa Arrizabalagak euskaratu dituen J.L. Tinoco, J. Niza eta M. Alegren poemak. El-karrizketa Emilio Lopez Adan «Beltza»ri egin diote zenbaki honetan; eta separata, «Euskal narradore on

eta gaiztoei buruz» egindako txostena da ■

«ESKUA BETE IZAR». RAFIK SCHAMI. ITZULTZAILEA: XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU. ELKAR. 208 orr.

DAMASKON jaio zen Rafik Schami, 1971n Siriatic aldegin eta Alemanian bizi da gaur egun. Haur eta gazteentzako istorioak idazten hasi zen, eta horretan dihardu. Bere idazlanek sari ugari eta kritika onak jaso dituzte; eta «Eskua bete izar» euskarara itzultzen den bere lehen liburua da. Branka saileko lan hau egunkari bat da; hamalau urteko mutil damaskoak bat bere burutazioak gordetzeko idazten hasi, eta hiru urte t'erdiz bere gogota, sentimendu eta bizitzako gorabehera guztiak jasotzen dituena. Bertan, Siriako hiriburuko giro berezia agertzen da ■

«MARIMARRUBI SORGINA». GLORIA FORT. ELKAR.

HAURREI zuzenduriko Sirena Bilduma saileko 34. idazlan honetan, marrubiak asko gustatzen zaizkion sor-

gin baten pasadizuak kontatzen dira koloretako marrazkien laguntzaz. Lan hau, berez, katalunieraz idatzi zuen Gloria Fortek, eta edizio honetako euskaratzailea J. Ormazabal izan da. Marrazkiak Fortek berak egin ditu ■



«PATAKON». XABIER MENDIGUREN. ELKAR. 125 orr.

BIZKAIKO mendietan bizi izan zen Patakon da Branka saileko idazlan honetako protagonista. Pertsonaia hau aitzakia bezala harturik, abentura nobela bat egin du Xabier Mendiguren Elizegik. «Patakon: daukanari kendu, ez daukanari emon» esaerak

dion bezala, mendietan lapurtzen jardun ondoren Ondarroatik itsasoz ihes egin behar izaten du Patakonak, Karibe itsasora iritsi eta itsaslapur bihurtzen da. Bere beste hamaika pasadizu agertzen dira umorez betetako eleberri labor honetan. Gazteei zuzenduriko sail baten barruan agertzen bada ere, irakurle guzientzat egokia da «Euskaldunon Egunkaria»-n foiletai gisa argitaratu zen liburu hau ■

«FISIKA. OINARRIZKO KONTZEPTUAK. GIDALIBURUA». IÑAKI AZKUNE MENDIA. ELHUYAR. 205 orr.

FISIKAN erabiltzen diren kontzeptuak argitzeko tresna den liburu hau bi zati nagusitan banatzen da. Lehen atalean, asko erabiltzen diren elementuz osaturiko lau taula osatu dira, alfabeto grekoaz, ikurrez, formulez eta zirkuituetako ikurrez. Bigarren atalean, fisikako kontzeptuen funtsezko ideiak labor eta hiztegi moduan azaltzen dira. Kontzeptuak alfabetikoki ordenaturik daude eta askotan



**Hontza**  
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4  
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56  
20 004 DONOSTIA




irudiak agertzen dira la-  
gungarri gisa. Irakaskuntza  
ertainean erabiltzeko edo  
Fisikako kontzeptuez edo-  
nork izan ditzakeen zalan-  
tzak argitzeko egokia da lan  
hau ■

«**TEO HIPERMERKATUAN.**

VIOLETA DENOUE, ISABEL  
MARTI. **ITZULTZAILEA:** JO-  
XANTONIO ORMAZABAL. EL-  
KAR. 30 orr.

VIOLETA Denouk berak  
irudiak egin dituen eta hau-  
rrei zuzendurik dagoen li-  
buru honetan, Teo, bere  
gurasoak eta senideak hi-  
permekatura joan dira eros-  
ketak egitera. Bertan, Pablo,  
Teoren anai txikia galdu  
egin da. Azkenik, oso gus-  
tora irteten dira denak hi-  
permekatutik erosketak  
egin ondoren ■



«**ERRUSIAKO IPUINAK (II).**

A.N. AFANASIEV. **ITZULTZAI-  
LEA:** TOMAS SARASOLA.  
ELKAR. 224 orr.

HERRI ipuinez osaturik da-  
go XIX. mendean bizi zen  
Alexandr Nikolaievich Afa-  
nasiev errusiarrak idatzi  
zuen liburu hau. Belaunal-  
diz belaunaldi, etenik gabe  
zabaltzen den ahozko lite-

raturan oinarriturik, hiru  
motakoak dira bertan ager-  
tzen diren hemeretzi ida-  
zlanak: animalia ipuinak,  
ipuin miragarriak eta ohitu-  
razkoak. Seve Callejak pres-  
tatu du bilduma hau, eta Jose  
Maria Muñozek egin ditu  
barruko marrazkiak eta  
azala ■

«**EUSKAL AGENDA 1993.**

**TROKA.**

Ohitura zahar, folklore, si-  
neskeria eta magiaz josirik  
dago agenda hau. Mendee-  
tan zehar euskal herritarren  
oroimenean bizirik iraun  
duten gertaera historiko eta  
kontakizun ugari aurki dai-  
tezke, bertan, egunez egun.  
Euskal agenda hau egin ahal  
izateko ezinbestekoa izan  
da hainbat etnologo, histo-  
riagile eta folklorezalek bu-  
ruru duten lana ■

«**SORGINAK ETA ITSASOA.**

**JON LEZEA. TROKA. 110 orr.**

BOST istorio fantastiko bil-  
tzen ditu Anboto Bilduma  
saileko liburu honek. Euskal  
Herriko alegietan oinarritu-  
rako kontakizunak. Haueta-  
ko bat, «Ametsik luzeena»,  
egileak oso-osorik asmatu  
duen bakarra da. Gainera-  
koak, alegira egokitutako  
egoera fantastiko, pertso-  
naia eta abenturaz osaturik  
daude. Sirenak, sorginak eta  
lamiak nonnahi aurkitzeko  
aukera dago arrantzaile eta  
marinelen munduan koka-  
turik dauden istorio haue-  
tan. Mitologiatik hartutako  
izaki fantastikoak dira na-  
gusi itsas bidaiak luzeak eta  
espazioan zeharreko joan-  
etorri haueetan. Liburu ho-  
nen azala eta marrazkiak J.  
Larrearekin egin ditu ■

B E G I B E L A R R I

M U S I K A

Abiadura, gorrotoa eta indarra

«**GAUA** berotzen doa, ilargia da  
nagusi, edozein tabernaren eskina  
sakonenean edaria, musika ta jende  
ugari». Esaldi honek laburbiltzen du  
nolabait bost lekeitiar gazte hauen  
musikaren funtsa. Bere oihartzunak  
lekeition ez ezik Euskal Herriko ha-  
maika kale eta tabernatan ere entzu-  
nak izango dira. Abiadura eta indarrak  
bat egiten dute «Etsaien etsaiak» izene-  
ko euren lehendabiziko disko hone-  
tan.

Hard-core eta punk musikaren ar-  
teko doinuak, Euskal Herrian aspaldi  
honetan areagotzen ari den mugida,  
burua biraka jarriz, gitarra doinu, ba-  
teriaren etengabeko jarioa eta hitz arin  
eta luzatuak, azken hitzen ahoskatze  
luzeak.

Hasieratik bukaeraraino; hitzak,  
olatuak baino zuzenagoak dira, zirika-  
tzaileak, lotsa gabe idatzitakoak, esan

esaten denaren lekuko, barnetik ate-  
ratzen denaren ispilu, istilua sumatzen  
bada ere. Bizitzaren gorabeherak dis-  
ko honetan, bizitza bera kantatuz,  
egunaren hogeitalau orduen zeregi-  
nak adierazten dituzten kantak. Bizit-  
za, ametsak, ideiak, hitzak, eliza,  
prentsa, eskola, tabernak, musika, be-  
rakatza, kalea, egunak eta gauak dira  
entzungai Esan Ozenkik kaleratutako  
disko gogor samar honetan.

Maiz somatzen da bizkaiera kantue-  
tan zehar, orain arte gutxi landutako  
euskalkia musika munduan, salbues-  
penak salbuespen. Behin eta berriro;  
bai Lekeitioko euskara eta bizkaiera  
bera erabiltzen delarik. Bada erdaraz-  
ko abestia ere, «92aren lotsa» deituri-  
koa, espainolez, espainolen lotsaga-  
bekeriaz lotsaturik.

Hasieratik bukaeraraino; bost pira-  
tez osaturiko untzia azkar doa itsasoan



«**ETSAIEN ETSIAIAK.**  
**ETSAIAK. ESAN OZENKI**

zeñar, haize bolada haundia dago eta  
irrintzi batek, iraultzarako deia egiten  
du, etsaien etsaiak dira, zirikatzaileak,  
eta ametsak amets, abiadura, indarrak  
eta gorrotoak jarraitzen du.

**PATXI GAZTELUMENDI**



## T E I L A K



## ■ EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA

**HEZKUNTZA** munduko hainbat elkartek «Denon Artean» plataforma eratu dute, «despotismo ilustratuari» aurre egin eta Euskal Eskola Publiko Berria, «euskalduna, titularitate eta finantzaketa publikoduna, deszentralizatu eta lan marko berridunaren aldekoa» eskatzeko. Bertan parte hartzen dute: Sortzen, Ikastolen Elkarte, EHUko Hezkuntza Mintegia, EILAS eta LAB sindikatuek, Irakasle Elkarte eta Bizkaiko OHO nahiz Irakaskuntza Ertaineko Ikasle Gurasoen Elkarteak.

## ■ BI IRAKASLE GOSE GREBA MUGAGABEAN

**ANTTON** Azkargorta eta Enrique Lopez EHUko irakasle kaleratuek, gose greba mugagabea hasi dute euren plazak konkurtso publikora atera dira eta, gobernu taldeak hartutako erabakia ezabatu dezan eskatuz. Era berean, Errektoretzarekin negoziazioak has daitezzen aldarrikatzen dute.

## ■ EUSKADIKO FILMATEGIKO FILMEAK

**EUSKAL** zinemagintza ezagutarazi asmoz Euskadiko Filmategiak bi filme kaleratu ditu bideoan, Mauro Azkonaren «El mayorazgo de Basterretxe» (1928) eta Fernando Larrukerten «Euskal herri-musika» (1978), mutua bat eta dokumentala bestea. Gehiengoarentzat ezezagunak diren lan hauen bitartez, gorderik dauzkan pelikulen zabalkundeari ekin dio Filmategiak.

## ■ IKAS-TXIP, EUSKARA ORDENADOREZ

**EUSKARA** ordenadorez ikasteko programa, Ikas-Txip, aurkeztu du HABE erakundeak. Puntako baliabidetzat jotzen dituzte egileek, oraingoz, 1, 2 nahiz 3. urratsak soilik jorratzen dituen metodo berria. Zazpi ataletan banaturik, «erabilterraza eta ikasketara pertsonalizatua diseinatzen du», Pello Esnal HABEko Euskalduntze arloko arduradunak zehaztu duenez.

E R R A N A K E R R A N




*«Lebiaketei duten garrantzia eman behar zaie, ez geiago ez gutxiago. Egoera normaldu batean idazle berriak ezagutarazteko balio dute, eta idazle euskaldunen kasuan, beharrezkoa dugun diru pixka bat irabazteko».*


**Felipe Juaristi, idazlea.  
Egin, 92-XII-2.**

*«Ondare nazionaleko elementu premiazkoak diren herrietako kultura eta mintzaireri, gaurko errealitateetara egokitua litzatekeen bizi bat eman nahi diet».*

**Jack Lang, Frantziako  
Hezkuntza ministroa.  
Egunkaria, 92-XI-29.**







# TXUTXU - MUTXUKA

## EUSKARAZKO OINARRIZKO HIZTEGIA

**EUSKALTZAINDI**AK martxan duen Euskarazko Oinarrizko Hiztegiaren lanak aurrera doaz. Ibon Sarasolaren esku dagoen Hiztegi Batuaren Batzordea, Andoni Sagarna eta Jose Antonio Aduriz UZEIko ordezkariak, Pierre Xarriton, Luis Baraiazarra eta Mikel Zalvide ari dira egitasmoaren mamitzen. Lehen saio batean, ondare zaharretik datozen 2.500 hitzen bilduma osatu eta berrikusteko erabakiak landu dituzte. Segidakoan, maileguzen esparruari eutsiko diote zuzen, sentiberatasun eta irizpide ezberdinen saila eztabaidatua hauxe. 1996 aldera amaitzea espero duten hiztegiak 25.000 forma jaso eta erabakiko ditu.

*Sozialistek badakite zein lege markotan eta zein herritan ari diren. Beraz, marko borren barruan antolatuta beharko dute irakaskuntza sistema.*

**Mari Karmen Garmendia, EAEko Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia. Egunkaria, 92-XI-29.**

*«Bilinguismoa, Estatuak gaztelera mantentzeko egindako asmakizun handia baino ez da izan».*

**Aureli Argemi, Ciemen erakundeko idazkari nagusia. Deia, 92-XII-3.**

*«Pobreziaren estetikaz hasi nahi dugu 'Garziarena' aldizkaria. Papera bukatzen ari bailitzan jardungo dugu, aldizkari dotoreetatik urrun».*

**Bernardo Atxaga, idazlea. El Mundo, 92-XII-3.**

*«Musika eskolak ghetto antzekoak izan dira, eta borrela izanik, euskararekiko kontserbatorioetan islatu izan diren jarrera arduragabeak bonen lekuko besterik ez dira».*


**Jose Ignacio Lopez de Luzuriaga, musikagilea. Egin, 92-XI-30.**

# NOR - NORI - NOR K



### M. AZKARATE

Euskaltzaindian sartu den lehen emakumeak, Jose Migel Barandiaranen gainean egin zuen sarrera hitzaldia, azaroaren 27an. Lore anitz jaso zituen Miren Azkaratek egun horretan. Euskaltzale jakintsutzat jo zuen Haritzelharrek. Politagorik esan zion Patxi Altunak: fruituz betetako arbola gaztea ●



### M.P. ESTREMERARI

eman diote Donostiako Zinemaldiko ardura. Aurrena bat, gero bestea, eta azkenez Manuel Perez Estremera, Diego Galanen eskutik etorri den salbazioarako perla, bibotez eta betaurrekoz jantzia. Kontxaren moduko irribarre zabalez egin diote ongi etorria, Rudi Barneten aje eta akatsak atzean utzi direlakoan ●



### P. ESNALEK

txalo eta sari jaso ditu aspaldion. Bertsopaperetan maisu, ate itxirik ireki du oraingoan. Hain zuzen, Bruño Espainiako argitaletxeak «Txukunago ibiltzen da kostako tren» bertsoen bilduma argitaratu dio Durangorako. Bruño bertsolaritza munduaz interesarazi duen Esnalek doinu berria erantsi dio ofizio zaharrari ●





# Artaun-Oba, lamien bidezidorretan barna

**IRAGAN** astean Arabako hegoaldean aritu ginen moduan, oraingoan Bizkai-ko hegoaldeko inguruak ezagutu asmoz aterako gara. Motxilan hamarretako ederra egiteko adina sartu eta Arratiako haranean murgilduko gara. Dimara jo eta handik Artaunera, bertan autoa utzi eta Obarainoko ibilaldiari ekingo diogu. Bizkaiko hegoaldean hobeto kokatzeko, ekialdera Durangoko haitzak ikusi behar ditugu eta hegomendebaldera Gorbeia ipar mendi saihetsak.

Baserriak banaka-banaka ikusiko ditugu han eta hemen. Atlantiar populamendu barreiatuaren ezauga-

rriak ondo mantendu izan duen lekuetakoa da Arratiako harana. Baserri gehientsuenen aurrean erai-kuntza txiki batzuk ikusi ahal izango ditugu, harlanduzkoak eta bi uretako estalkiez. Garai batean baserriarrek bertan ogia edo egiteko eta, batez ere, garaua errotara eramanez bano lehen, artaburuak kiskaltzeko erabiltzen zituzten.

**HAMAIKA** gauza daude ikusteko irteera honetan, esaterako, Ugariotz auzora heldu aurretik kareaga bat ikusi ahal izango dugu eta, oro har, bide guztian zehar, malkarretatik jausitako kareguneak daude, eta horiekin batera harri bihurtutako



Garai batean Artaun Ibo inguruan lamiak bizi zirela esaten den lurralde honetan, bisitariak paisaia ikusgarriaz gozatzeko aukera izango du.


molusko eta koralak. Gure lurren miliurtekotasunaren adierazgarri dira, gaur lurra dena aspaldi batean itsaso gazia zela gogorarazten diguten lekuko isilak.

Kareguneak aipatuta, ezin utzi aipatu barik kareagak, gobela produkzioarako gune

bereziak. Gaur egun jada karea ez da horrenbeste erabiltzen, baina sasoi batean garrantzi handikoa zen baserri munduan: eraikuntzarako, ongarri moduan, edota jakiak denbora luzez gordetzeko.

**OBA-BARRENDIKO** (Obabekoa) sarreran jada, arte burumotz handi bat ageri zaigu, eta bertatik aurrera so eginez gero, mendi-lepo batean S. Laurenti Baltzola-ko bazelizaren irudi bakartia. Ezkerretara abiatuz gero, Obako eliza zaharra bisitatzeko aukera hantxe izango da.

Itzulerari ekitean arkaitz handi bakarti bat topatuko dugu bide erdian, bere aldamenen dagoen artesi txiki bat zeharkatu beharko dugu. Baina artesia zeharkatzean kontuz bertako lamiakin. Izan ere, aspaldian inork ez du lamiarik ikusi inguruan, baina ibili, sasoi batean ugari ei zebiltzan inguru horietan. Oilo-hankak eta emakume itxura duen izakia da lamia, eta bidaiari bat baino gehiago xaramelatu ei dute euren berba goxo eta edertasunaz. Argi, bada, itzulerarekin.



**ARTAUNEN** hasten den ibilbide honetan baseliza ondotik jaisten den bidea hartu behar dugu

- 1** Ugariotz auzunera iristen garenean iturritik aurrera eskuineko bideskari segituko diogu.
- 2** Emaldi auzune inguruan, Dima-Oba errepidearekin bideska bat lotzen den lekuan ezkeraldera joko dugu.
- 3** Bidea utziz gero, ezkeraldera abiatzen

bagara Obabarrendi auzunera helduko gara.

- 4** Errepidea berriro hartuz gero Obara igoko gara.
- 5** Aurrera joko dugu Goiko-etxe baserri tabernaren atzetik doan bideskatik.
- 6** Ondoren, errekatxø bat pasata, bide nagusian barrena jarraituko dugu.
- 1** Ugariotz auzuneko iturrira heldu eta Artauneraino bide beretik itzul gaitezke.



BOST IZARRETIK GORA

JUAN

JOSE

LAPITZ

HURA OTORDUA!

**TITO  
IRAZUSTA**

Kazetaria



**Babarrunzale  
amorratua**

ETXEAN egindako platerekin izugarri gozatzen duen horietakoa dugu, nahiz eta lan kontuak medio, sarritan etxetik kanpo jan behar izaten duen. Bada, dena den, beti gustora jaten duen zerbait: odolkitz eta azaz lagunduriko babarrun platerkada. Bere emazteak, gainera, oso ederki prestatzen omen ditu. Babarrunak betidanik maite izan dituen bezala, dena den, bakailoa txikitatik gorrotatu izan du Titok, eta nahiz eta gaur egun bigarren hau ere jaten ikasi duen, ez du platerik gustokoena. Ostrekin ere, beste hainbeste, frogatu zituen arte ez baitzuen uste bera gauza horiek jateko gai izango zenik. Nolanahi ere, ostre gutxitan dastatzen dituela aitortu digu. Sukaldean baldar samarra, bi jatetxe aholkatu dizkigu etxetik kanpora joan nahi dugun egunetarako: Donostiako «Urepel» eta Usubileko «Saltxipi».


**Entziako mendikatea  
inguratuz**

**NEGUA** errazago jasanarazten duten egun eguzkitsuetan, atsegina da mendian zehar ibiltzea eta beste sasoiak landaretza dela eta ikus ezin daitezkeen gauza ugari ikustea.

Gaur proposatzen dizuedan ibilbidea, Nafarroako Olazitik irtetzen da, Urbasako mendikatera igotzen da, Sakana liluragarri batetik Zudairaera jaisten gara eta Lizarrarako bidea utzita, ezkeraldera joz Entziako mendikatea inguratuz igotzen joan Opakuaraino, Arabar lurraldeetan.

Jaitsiera gogor baten ondoren Agurainera iritsiko gara. Hasierako herritik bukaerako herriraino dagoen distantzia 50 kilometro ingurukoa da. Ez da komeni bidaia guztia segidan egitea, hobe paisaia ikusi ahal izateko autoari tarteka lasaitasuna ematea. Mendian zehar ibilalditxo bat eginez, ahaztu behar ez ditugun plazerrak baitira hauek.

Agurainek bisitaldi lasaia eskatzen du, bertako alde zaharra benetan ikusgarria da, elizek, jauregiek eta etxe ederrek herri honek historikoki izan duen garrantzia erakusten digute.



Interesgarria da Arrizala ikustea, bertan baitago Sorgintxo trikuharria. Oso egoera onean mantendu den trikuharri hau garai batean bertan historiaurreko gizakiak bizi zinela adierazgarri dugu.

Gosea sentitzen hasten garanerako Jose Mari jatetxea oso aukera egokia da, arkume erre goxoa dastatzeko. Naturaz gozatzen jarraitu nahi dutenak Araiako Marutegi battersira igo daitezke ■

**EGUBERRIEN SUTAN**

**Intxaursaltsa**


**OSAGAIK  
LAU LAGUNENTZAT**

200gr intxaurre, zurituta ●  
200gr azukre ● kanela  
makiltxo ● esne eta ur litro  
bana

**PRESTATZEKO ERA**

Zuritutako intxaurreak zapi batean bildu eta guztiz xehetu oretxo fin bat lortu arte.

Ura berotzen jarri, kanelarekin batera. Irakiten hasten denean intxaurreak gehitzen zaizkio. Ura lurrundu bitartean sutan mantendu. Ondoren, esnea eta azukrea



**Gabon afarian ohizkoa izaten da turroiarekin batera intxaursaltsa aurkitzea azkenburuko gisa Euskal Herriko mahai askotan.**

gehitu eta egosten eduki loditzen den bitartean.

Ontzi ezberdinetan jarri eta hozten uzten da, kanela apur bat gainera botaz. Epel dagoela ere jan ohi da.

Jaki hau ohizkoa izaten da Gabon eguneko afarian eta

intxaurreak zuritzean lan handia eskatzen badu ere, prestatzea ez da oso zaila gertatzen. Merezi du lana hartzea jaki hau prestatzeko, benetan goxoa baita Euskal Herrian askotan jaten den azkenburuko hau ■



### Aluzinogenoen garrantzia kulturean

**MENDEBALDEKO** gizarteko kulturean, batez ere literaturan, alkoholak garrantzi handia izan duela diote askok. Potosin eginiko jardunaldi batzuetan azaldu denez, herri indigenetan eta baita gaur egungo herri garatuetan ere, aluzinogenoek

izugarriko garrantzia izan dute aspaldidanik.

**AMANITA** muskaria, Ayahuasca eta antzeko sustantziak ikertu dira jardunaldi hauetan. Bertan, ikusi da herri indigenetako kideen % 20 eta % 25 bitartean horrelako sustantziak hartzen

dituztela. Bestetik, azaldu zuten herrien % 90ek hartzen dituztela nolabaiteko sustantzia aluzinogenoak

**JARDUNALDIEN** emaitzarik esanguratsuenak, bi urtero kongresu bat antolatzeke erabakia izan da, *«argi baitago aluzinogenoek gizarteratzeko bide egokia direla. Terapeutikoki oso interesgarriak dira, eta garunaren ikerketa biokimikoak egiteko erabil daitezke»*, adierazi du Alexander Shulgin-ek, *estasi* drogaren sortzailea den zientzialariak. Berak gehitu duenez, *«dirudenez, sustantzia hauek epe ez oso luzera legezkatuko dira»* ■



**Herrialde gehienetan aluzinogenoak hartzen direla plazaratu da Potosin sustantzia hauen inguruan eginiko jardunaldietan. Herrialde indigenetan % 25ek kontsumitzen dituzte sustantzia aluzinogenoak.**

#### Aluzinogenoen aztarna zaharrak

**SUSTANTZIA** aluzinogenoak ez dira gaurko kontua eta honen adibide dira eginiko ikerkuntza arkeologikoetan aurkituriko 3.000 urte baino gehiagoko gorpuek sustantzia aluzinogenoekin harremanak zituztela. Txileko Atacama herrian, adibidez, aurkituriko 5.000 gauzatik,

% 30 aluzinogenoak hartzeko materialekin erlazionaturik zeuden.


Tirolen aurkituriko izozturiko gizonak ere aluzinogenoak diren ondokoak zeramatzan.

Beraz, ikus daiteke kultura ezberdin eta zaharretan ezagunak eta erabiliak zirela sustantzia hauek.

#### BATA ZURIA ERANTZITA

#### JOXERRA AIZPURUA

Elhuyar-eko kidea



#### Nazioartekotasuna

Mende honetan nazioarteko erakundeak ezezik nazioartekotasun kontzeptua ere gizartean zabaldu da. EEE (Europako Ekonomi Elkartea), NB (Nazio Batuak), etab, nazioarteko erakundeak dira, baina adibidez, Lurreko leku desberdinetako jendez osaturiko nazioarteko brigadak Nikaraguara, El

Salvadorra eta Bosniara joatea, nazioartekotasun-kontzeptua beste modu batera lantzea da. Batez ere, azken modu honi buruz dextente dakigu Euskal Herrian.

Zientzian ere, nazioartekotasunak gero eta garrantzi handiago du. Alde batetik estatu desberdinetako unibertsitateen eta ikerketa zentruen eta enpresen arteko harremanak areagotzen ari dira, saiakuntza desberdinen arteko alderaketaren bidez, ikerketak aurrera egiten duelako eta bestetik zenbait arazo (ozono-zuloa, berotegi-efektua, gainpopulazioa, hondakin solidoen birziklapena,...) nazioarteko arazo direlako.

Nazioartekotasunak badu alderdi arriskugarri bat, hots, hizkuntza desberdinen arteko lehia. Lehia honetan, ia beti, hizkuntzarik indartsuenak ateratzen dira garaile; esate baterako ingelese eta alemaniera hizkuntza garaile horietakoak dira. Arazo honi aurre egitea oso garrantzitsua da gurea bezalako hizkuntza ahulentzat, laneko hizkuntza ez den neurrian interesa

galdu bait dezake.

Hala ere, terminologia zientifikoak badu hain partikularra ez den zatia, hots, kontzeptu fisikoen (luzera, abiadura, indarra, lana, potentzia, tentsioa, etab) neurketarako edo adierazpenerako erabiltzen den terminologia laburtua. Terminologia hau, oro har, mende honetan sortutakoa da eta beraz, hizkuntza guztietan tradizio motza du. Hau dela eta, hizkuntza desberdinetan era berean idazten den terminologia laburtuak ez dut uste distorsio handirik sortu dezakeenik hizkuntza bakoitzaren barnean; osteraz, hizkuntza desberdinetan irakurri behar duenarentzat askoz ere erosoagoa izan daiteke.

Nazioartekotasunari errazteko bide bat azaldu dugu, baina, uniformizazioa (berdintasuna) eta estandarizazioa (bateragarritasuna) ez ditugu inola ere konfunditu behar, estrapolazio faltsuak eginez. Naturan biodibertsitatea aberastasunaren zeinua den bezala, hizkuntzen aniztasuna biodibertsitatearen adierazpidea da.



# ETXE ZULOAN

BOTANIKA



**Botrytis eta zurin gaitzak nahiko arruntak izaten dira etxeo landareen artean. Hauek sendatzea ez da oso zaila, baina zainketa handia eskatzen du.**

egokitu beharko dira.

**ZURIN** gaitzaren ondorioz hostoak hauts zuriz ezaltzen dira. Hau konpontzeko okerren dauden hostoak kendu behar dira eta azufrea jarri gainean. Haize gehiago beharko du landareak gaitza berriz ez hartzeko.

**EULI** txuriek sorturiko gaitza oso zaila da kontrolatzea. Intsektu txuri txiki hauek berehala birsortzen dira eta landarea indarrik gabe uzten dute. Hauek hiltzeko era bakarra produktu bereziak erabiltzea da

**ITSATSITA** geratzen diren intsektuen kasuan, normalki enbor edo hostoen azpikaldean geratzen dira. Hauek kentzeko trapu busti bat erabili behar da birsortu baino lehen, eta ondoren produktu bereziren bat bota

## Landareen gaitzak sendatzeko bidean

**ETXEKO** landareek gaitz ugari izaten dituzte. Gaurkoan hauetatik garrantzitsuenak aipatu eta sendatzeko bideak aipatuko ditugu.

**BOTRYTIS** izeneko gaitza, batez ere landarearen alderdi biguinetan sortzen da, eta kolore grisa hartzen du landareak. Hotza eta hezetasunaren ondorioz sortzen

da, batipat. Hau sendatzeko era, gaitza hartu duten zati guztiak moztu eta erretzea da, gero Benomyl bezalako produktu bat botaz. Ondoren, landarearen baldintzak

# gartzelako poemak

JOSEBA SARRIONANDIA x

«Gartzelako Poemak» liburua Joseba Sarrionandiaren biografiaren aldi ezagunenetik hurbilena duguna da. Hain hurbil gutako askorengandik non urteotako literaturan bereizi ezina bilakatu den hartaz ari den: gartzela, oinazea, heriotza.

RUPER ORDORIKA

Irakurlea, liburu hau amaitu ondoren, ez da hasterakoan bezain sosegaturik geratuko. Zerbait irauliko zaio barruan eta handik aurrera irudituko, bera ere zelda batean entzerraturik bailegoen, esku artean daukan liburu katea astuna bihurtu zaiola.

JIMU ITURRALDE

( Liburuko grafikoak oro JOSU MORENO pintoreak egin ditu Herrera de la Mancha eta Monterroso-ko gartzeletan )



SUSA ARGIALETXEA ☎ (943) 37 07 38



## TELEBISTA-IRRATIA

TELEBISTA-IRRATIA • TELEBISTA-IRRATIA

BOTOIA SAKATU AURRETIK

IKUSI BAIETZ



«Bi eta bat» umorezko telesaila dator berriro ETBra. Donostiako pisu batean gertatzen diren kontuak izango ditu gai nagusitzat. Astelehen gauean.

● Astelehenean, abenduaren 14ean, «Bi eta bat» telesaila dator berriro ETBko programaziora. Barne produkzio honetako pertsonaia nagusiak, Donostiako pisu berean bizi diren Idoia, Jasone eta Jose Lontxo ditugu. Sortzen diren arazo guztien gainetik umorea eta dibertsioa nagusituko dira. 21.35etan. Asteartez, 14.45etan, errepikatuko da saioa.

● Astelehenetik ostiralera, «Iparraldearen orena» informatiboa. 18.50etatik 19.00etara bitartean, Baionatik datozen berrien emankizuna.

● «Zaharrak berri», dokumental saioak Euskal Herriaren hurbileko historiaren berri ematen digu.

Abenduaren 15ean, 23.15etan, «Altzamendu militarra» gaia jorratuko du.

● Abenduaren 20an, igandean, pilota partidua eskainiko zaigu 11.30etan, hots, **lau t'erdiko txapelketaren finala**. 12.30etatik aurrera bestalde, eskubaloia: **Teucro Caja Pontevedra Elgorriaga** taldearen aurka.

● Egun berean, 15.05etan, «Oz-eko aztia» ren lehen atala: «**Esmeralda hiria- ren askatzea**». Marrazki bizidunotako abenturak Oz lurraldean gertatzen dira; Dorothy, Toto, Scarerrow, Tin Man eta lehoiak, Azti maltzuraren botereari aurre egin eta menderatzen saiatuko direla.

TXORI BATEK ESAN DIGU

IPAR Euskal Herriko berriak biltzen dituen «Iparraldearen orena» saioan hainbat aldaketa burutu dira. Allande Boutinek utzi eta gero, France 3 telebistara egin baitu txangoa, Inma Alvarez tolosarrak bete du oraingoz, haren hutsunea. Orain bitartean Donostiako korrespontsalian aritutako kazetariak ekipo berria osatu aurreko lana beteko du. Hain zuzen, ETBko arduradunek, bi pertsona bildu nahi dituzte etorkizuneko «Iparraldearen orena» osatzeko. Bertako bi kazetarirekin jarraitzea dute helburu nagusia, egungo emankizunaren sendotzearekin batera. Datorren urtearen hasiera aldera burutuko dute aldaketa, Iurretako prentsa zerbitzutik adierazi zaigunez.

## Kafiristanen errege egin zuten

LARUNBATA 19, 23.10etan.

ABENTURA ZINEA: «ERREGE

IZAN NAHI ZUEN GIZONA».

ZUZENDARIA: JOHN HUSTON.

ANTZEZLEAK: SEAN

CONNERY, MICHAEL CAINE ETA

CHRISTOPHER PLUMMER.

RUDYARD Kipling Indian lanean ari den kazetari gazteak Britainiar Armadako bi sarjentu ohi aurkitu ditu. Kafaristan herri primitibora, bertako altxorrek eskura-

tzeko xedez, joan nahi dutela adieraziko diote. Fish soldadu ohiarekin topo egingo dute bidean, eta denen artean, hasierako helburuak baztertu eta Kafaristango etsaiei hagin luzeak erakutsiko dizkiete.

Borrokak erakutsitako adoreagatik, sarjentu ohietarik bat errege izendatuko dute. John Hustonek maisutasun handiz darama filme honetako haria ■



Sean Connery antzezle preziatuak abenturaren biderei eutsi dio oraingoa ere. John Hustonen eskuetan, Britainiar Armadako sarjentuaren papera beteko du.

● ABENDUA 16, 22.00ETAN. ZINE GAUA:

«HASI GAITEZEN BERRIRO».

ZUZENDARIA: ALEXANDER

HALL. ANTZEZLEAK: JANE

WYMAN, RAY MILLAND ETA

ALDO RAY.

GARY Stuart musikagilea Manhattan-era itzuli da bere emaztearekin elkartzeko asmoz. Emazteak ordea, Courtney Craig-ekin harremanetan hasita dago eta ez du senarrarekin itzultzeko asmorik ■

● ABENDUA 20, 15.55ETAN. ZINEA:

«CYBORG 009».

GURE planetako etorkizuneko zibilizazioak Cyborg izenez erdi gizon erdi makina den izakia sortu du, gizartearen gaitz eta ajeak alda ditzakeelakoan. Cyborg buru belarri jarriko da gaizkileen atzetik, agindu zaion helburua bete artean. Ez du lan honetan ordea, hasiera batean pentsatu bezala jokatuko ■



## Felipe Barandiaran: «Konkistari buruz hemengo ikuspuntua eman nahi genuen»

**C**olonek Amerika aurkitu zuenetik 500 urte bete diren honetan ETBk ere tartetxo bat eskaini dio gertaera honi. «Amerika eta euskaldunak» izeneko saioan bertan gertatutakoan euskaldunek beteriko papera azaltzen da. Erreportaia hauen aurkezle gisa ibili da Felipe Barandiaran.

**ARGIA.** Nola sortu zen saio hau egiteko ideia?

**F. BARANDIARAN.** 5. mendurena zela eta jendeak proiektuak aurkeztu zituen telesailak egiteko, liburuak idazteko eta abar. Zumalde gionista, historiadorea da eta gidoi bat prestatzea pentsatu zuen euskaldunak Amerikan, konkista garaian gaia jorratuz. Zazpi atal egin genituen eta neri eskatu zitaten aurkezle lanak egingo

ote nituen eta neri ideia ona iruditu zitzaidan. Gogo handia bait nuen Ameriketako zenbait paraje ezagutzeko.

**A.** Nola joan da grabaketa?

**F.B.** Talde oso txikia ibili gara grabaketan eta oso atsegina izan da. Bost bidaia inguru egin genituen eta lurralde ederrak ikusi ditugu. Euskaldunen aztarnak jarraitzen ibili gara.

**A.** Zein izan da saio bonen

helburua?

**F.B.** Konkistako garaian euskaldunak ibili zirela agertzea, gure ikuspegitik. Aurten Espainiako telebistan eta beste zenbait telebistetan zorioneko konkistarekin denetarik ikus behar izango genuela uste genuen. Orduan pentsatu genuen komeni zela hemengo ikuspuntua ematea konkistari buruz eta han parte hartu zutenen gainean, denetarik izan bait zen han. Honen adibide dira, alde batetik Agirre, Venezuelan oraindik ere umeak beldurtzeko bere izena erabiltzen baita. Bestetik, Juan De Zumarraga Mexicon izan zen indioei laguntzeko asko egin zuen. Guzti hori eskaini nahi izan dugu, baina ez dakit lortu ote dugun.

**A.** Saioa grabatzerakoan zein izan da aurkitu duzuen oztoporik nagusiena?

**F.B.** Saioa egin baino lehen ez ginen hara joan lokalizazioak egitera, oso garestia baitzen. Horregatik aurkitzea pentsatzen genituen zenbati leku ez ditugu aurkitu. Terremoto bat dela eta, edo beste edozein arrazoi dela eta jadanik ez zeuden. Urrutiraino joaten ginen askotan zerbaiten bila eta ez genuen ezer aurkitzen. Bestetik, askotan leku batera iristeko arazo handiak izaten ditugu komunikabideak oso txarrak bait dira. Zenbaitetan sei ordu baino gehiago behar izan ditugu ehun kilometro egin ahal izateko.

IKUSITAKOAK

IKUSITA

### Songoku!


**S**ongooku! Eta ukabilkada bat eman zidan txantxen artean nire lagunene umeak. Tontakeria hau izan zen hain zuzen ere geroxeagoko afarian zati luze batokupatu zuen gaia. Pixkanaka gogoratu genituen gure haurtzaroan botatzen zizkiguten teleaio famatu askoren izenak: «Los Chiripiti-flauticos», «La casa del Reloj», «Heidi»... Gaur egungo umeek, alderantziz, beste moeta batekoak dituzte: «Dragoi Bola», «Ninja dortokak», «Conan»... Japoniarrak gehienak.

Telebista guztietan umeentzako teleaioak oso garrantzitsuak bihurtu dira, umeak gero eta denbora gehiago pasatzen bait dute telebistarn aurrean. Hau dela eta gustatuko litzaidake jakitea zenbateraino arduratzen diren komunikabide-medioak umeentzako programen edukinetaz eta zentzu zabalago batetan haien nortasunen oinarrietaz, haiek eragin handia dutelako beraiengan.

Oso positiboa da pentsatzea ume euskaldunak euskara jatorragoa izango dutela horretarako sortuta dagoen laguntzari esker: ETB-1. Baina beldurra ematen du ere ez jakiteak zernolako edukinak sartzen dizkiegun (konturatu gabe?): biolentzia, indarkeria, ulertezintasuna, gizarte-kaseak, intolerantzia, gizarte-rolak...

Aukera gurea da, ez beraiena eta gehienetan hauxe hautatzen dugu: sexua ('maitasuna') ez, biolentzia bai. Erreparua ematen digu umeek bikote bat musukatzen ikusteak baina, ez alderantziz, elkar jipoitzen duteneko irudiek. Eta kontutan izan behar dugu umeak, guk egiten genuen bezalaxe, bere herioekin identifikatzen direla.

FERNANDO VILLAR




Felipe Barandiaran Ameriketara zehar ibili da saio honetarako erreportaiak grabatzen eta leku ugari ezautzeko aukera izan du.

AITZIBER YARZA



# Denborapasa

## Gurutzegramama



**EZKER ESKUIN:** 1.- Maisuak. 2.- Zamak garraiatzen dituzten abereak. Bat. 3.- Tona. Bihi. Nuen, hari. 4.- Isurkai zuri. Urtaro bero guztietan. 5.- Detektagailua. Bokala. 6.- Aurritzia. Hostoak. 7.- Hitza. Euskaraz eta Kitto! Kontsonantea. 8.- Galioaren sinbolo kimikoa. Eta. Muga. 9.- Ikas eta Ari. Esnez egindako oreak. 10.- Lehenengoak. Arabako herria. Bokala.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Etsaia, arerioa. 2.- Jainko egyptiarra. Arloak. 3.- Eguzkia. Alderantziz, Bizkaiko herria. 4.- Karrika. Landa, kanpo. Kontsonantea. 5.- Areagotzeko partikula. Gerta. 6.- Musika nota. Urritzaren fruitua. Aluminioaren sinbolo kimikoa. 7.- Landaredi. 8.- Eguzkia. mea beltz. 9.- Argonaren sinbolo kimikoa. Nahastura trinkoa. Kasik. 10.- Iparaldean, usain txar. Zikinkeria.

## Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



### 8 letra

Abestiak  
Emakumea  
Gurariak  
Tantaiak

### 7 letra

Aberats  
Aldatza  
Gabirai  
Senidea

### 4 letra

Abar  
Aizu  
Akta  
Arku  
Aroa  
Arra  
Atea  
Auzi  
Baba  
Bait  
Batu  
Boga

Deba  
Elai  
Emea  
Ezti  
Leza  
Maiz  
Onak  
Ozen  
Sara  
sega  
Ulia  
Zart

### 2 letra


Ar  
Da  
Es  
Ia  
Ll  
ss  
Ur  
Us

### 3 letra

Bat  
Bor  
Dut  
Ote



**ERANTZUN** zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den pertsonaiaren izena, Goizuetako idazle baten izena alegia, ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6	7	
8	9	10	11	12	13	14	15

		Herriko osagileak Basabehia		Zerrikeria Titanioa		Garrak Ohorezko hitzmatea		Erail
			1					
						5		7
Liriazki mendua Gorotza		Musika nota Molibdenoa		Nanoak Fruitu mota				
	8							
(Errep.) Eon mota Iparretarrak				Peruko herria Bokal bikoitza			14	
		Emakume izena Barrearen onomatopia						Tona
	4			15				Sevillako herria
		(Pl.) Jantzki mota Eritasun						... egin, istua bota Azido mota
								3
Asko				Eako				
Zintzoa				Noruegako hiriburua				Ogigile
			12					
		Bizkaiko herria Eta						
Du, niri Begi gairako azala				Putzuak Zaren hori				
								Lehenengo pertsona Potasioa
Lehen eta azkenekoa								(Errep.) Dantza mota
	2							6
		Ukapen						
			11					

# —Hieroglifikoa—

# Ir at

Europako nazio bat

## Aurreko asteko soluzioak

GONTZIAL  
MENDIBIL

### Gurutzegrama

●	Z	●	●	D	●					
Z	I	N	T	Z	O	A				
●	E	●	I	●	M	A	I	A	T	Z
I	R	A	T	Z	A	R	●	N	●	A
●	A	H	●	●	U	D	A	●	Z	Z
E	T	A	●	T	R	A	T	U	A	K
●	Z	I	G	●	R	●	E	R	I	A
K	A	D	I	R	A	K	●	A	●	L
●	N	E	●	I	●	E	S	N	E	A
B	A	●	I	Z	U	●	I	I	●	●
●	K	L	A	U	S	T	R	O	A	K

EZKER ESKUIN: 1. Tolosaldea. 2. Arizeta. Tl. 3.  
Lege. Artoa. 4. Okilak. Rr. 5. Ga. Arabako. 6. Ito. Tk.  
Kin. 7. Lu. Za. Sena. 8. E. Bilbotar. 9. Ar. Ad. Se. T. 10.  
Karneta. Su.  
GOTTIK BEHERA: 1. Talogileak. 2. Orekatu. Ra. 3.  
Ligi. O. B. R. 4. Okela. Zian. 5. Se. Artalde. 6. Atakak.  
B. T. 7. Lar. B. Sosa. 8. D. Trakets. 9. Erorkina. S. 10.  
Aia. Onartu.

## Hieroglifikoa: Gares

### Hitz Kateatuak

E	L	A	I	E	Z	A	K		
E	K	A	R	Z	U	M	O	A	
S	A	I	A	T	U	A	A	R	T
A	I	K	A	R	R	A	T	U	A
N	Z	A	T	I	M	A	L		
G	U	T	I	Z	E	T	A		
I	R	U	B	A	T	U	S		
S	E	G	A	L	A	R	I	L	O
U	K	I	A	R	E	T	O	A	K
N	I	N	I	E	U	L	I	A	
N	A	I	Z	B	A	O	A		

# KAXKU

M. L.






# Ez dago katixima onik

**VATIKANOK** erditu berri duen katiximaz hitz egiten entzun dut eta zuzen zuzenean, *best-seller* zerrendaren partaide izango dela esan didate: lehendabiziko edizioen artean Frantziakoa dago, 150.000 ale bota dituzte. To! Hasiera besterik ez da. Eta entzun dut eztabaidagai bihurtu dela, ez bere irakurleen artean, baizik eta testuaren berri izan dutenen artean: liburu sendo eta zuzena, holandarra arrakastatsua izan zen bezala —katixima holandarra, garai haietan jarrera progresistetatik oniritzia jaso zuena—, eta ez gure haurtzaro koadernotxo haien modukoa: niri Ripalda izenekoa irakatsi zidaten, baina bazegoen Astete izeneko beste bat. Dogma eta moral osoa izaera dentsu eta dramatikorikoa, txiki eta elelderreko foileto batean!

**DRAMATIKOA** diot, antzerki lantxo bat bailitzan idatzita zegoelako. Bi pertsonaia zituen: umea eta dotrina erakuslea (apaiza bururatzen zitzaigun denoi). Oso ondo gogoratzen dut komediaren hasiera:

— *«Ea, mutil, zein da zure izena? (Erantzun: Pedrito, Pepito, Juanito, eta abar)»*. Bitxia zen —guri, mutilei, normala iruditzen zitzaigun— katekistak neska batengana ez jotzea: *«Esan, neska, zein da zure izena?»*,



**A L F O N S O S A S T R E**

Antzerki egilea

eta neska erantzun ahal izatea, adibidez, Julita, Martita, Elenita, eta abar. Interesgarria zen baita, hurrengo galdera: —*«Kristaua zara?»*

—*«Bai, Jainkoaren graziaz»*

Ez zen kontuan hartzen mutila —zertarako hitz egin neskez?— kristaua ez izatea. Hori gertatu zitzaion, hain zuzen ere, nire seme bati, erlijio azterketa batean dotrinako galdera horixe bera egin eta honek lañoki erantzun zuenean: *«Ez, jauna»*. Orduan irakasleak, ironikoki, budista ez ote zen izango galdetu zion, eta berak zintzotasun berberaz ez zela budista erantzun zion. Epaimahaia, kasuaren arrarotasunak zur eta lur, begirune handiz bota egin zuen.

**KATIXIMEZ** ari gara berriro ere —egia izango ote da Historia

gelditu egin dela?—, eta, hasieran aipatzen nuen bezala, detaileak ezagutu baino lehen eztabaidagai bihurtu da. Jendearenganaino heldu diren datuen arabera, katoliko progresistentzat *dotrina txar bat* da. Ez dut fededunen eztabaidetan sartu nahi; txartzat jotzen duten nire ingurukoak baitira, zinez, Elizak atzerantzko beste urrats bat emanaz kexu direnak. Pentsa daiteke katoliko erreakzionarioenak pozik egongo direla hain instituzio agurgarri baten antzinako tradizioekiko fidelotasun frogaren aurrean.

Arrotza zaidan eztabaidan sartu gabe, esan bezala, zertxobait komentatu nahi nieke Elizan dirauten ene laguneri —oimarrizko kristauak, borrokalari sozial paregabeak—, jarraian doazen hitzok: «Ez al zaizue iruditzen, susmatzen duzuen edukina hala balitz, *dotrina txarrago* baten aurrean egongo zaretela, baina ez zatekeela ona, halaber, *dotrina on* bat argitaratu izan balitz? Dotrina oro txarra da. Bigarren Vatikanoko Kontzilioa oso inspiratua egonda ere, edo bere buruari hori esanda ere, bat argitaratu izana berez da albiste txarra.

Badakit nire hitzak finegiak direla, eta katoliko asko izango direla —Askapenerako Teologiaren ildokoak—, ni baino erradikalagoak bere hitzak esatean.






GAZTEA

*eta*

EUSKALDUNA



**F.M. 102.6**

Lekeition 98.1

Ondarroan 92.5

Markinan 96.7

Aramaion 104.9

**BIZKAIA**

*irratia*



# 1992an



## EUSKADIKO LEHEN KOMUNIKABIDEAK HAMAR URTE BETE DITU

Hamar urte pasatu dira eta badirudi atzo bertan izan zela. 1982an Euskal Irrati-Telebista martxan hasi zen. Gaur egun, bi telebistakate eta lau irrati-emisora dituela Euskadiko lehen

komunikabidea da dudarik gabe: bai entzulego alde-tik eta bai jendearen partaidetzagatik.

Oraindik badago zergirik, proiektu berriak, helburu berriak...



## HAMAR URTE